



XABIER URZELAI

Amica gertu legoke Edesan inbertitzeko

26,8 milioi euro inbertitzeko prest dagoela eta 140 lagunentzako lana badagoela dio Edesa Industrialek; langileak eta Fagor taldea haserre dira / 4

Euskarazko ikus-entzunezkoen laborategia aurkeztu dute, "sektorea sustatzeko" / 5

Monterron parkea herrira zabaltzeko ideien lehiaketa deituko du Arrasateko Udalak / 0

Seminarioko jolastoki azpian aparkalekua egiteko 1.400.000 euro bideratuko ditu Bergarako Udalak / 24

Realeko zuzendaritza berrian beste debagoiendar bat izango da, Javier Igarza bergararra / 26



SINADURAK

VALEN MONUX / 8	JON KORTABARRIA / 28
MANEX ARRIOLABENGOA / 16	JON SAGARZAZU / 32
ASIER ELORZA / 23	MIKEL IRIZAR / 44





GORETTI MADINA

BNI Aukera Debagoienako presidentea

Debagoienez da BNI Aukera, 30 enpresa baino gehiago batzen dituen sarea

Konfiantza, konpromisoa eta profesionaltasuna garrantzitsuak dira negozio batek aurrera egin dezan, eta oinarritzko printzipio horietan sustraitzen da BNIren lana; negozio-erreferentzien munduko erakunde handiena da eta Debagoienez maiztzean hasita ari da lanean, eta irailean egin zuen aurkezpena jende aurrean.

Zein da BNIren helburu nagusia?

Idea nagusia da beste alternatiba bat sortzea, betiere, BNIren leloa oinarri hartuta: negozioa egiteko beste modu bat.

Norendako da?

BNI ez da mundu guztiaren-

dako eta mundu guztia ez da BNIrendako; alegia, baldintza batzuk bete behar dira.

Lehenik, pertsona bat dago jardura bakoitzeko; izan ere, konfiantza eta konpromisoan oinarritzen gara, kontua ez da lehiakortasuna sortzea taldearen barruan. Astero batzartzen gara,

eta elkar ezagutzen joaten gara gure jardura aurrera eramaten dugun moduaren eta konpromisoaren arabera. Ez dago komisiarik eta asistentzia oso garrantzitsua da. Beste pertsona batekin konfiantza lortzeko, denbora eskaini behar zaio batera lan egiteari, pertsonen

arteko hartu-emanak sustatu behar dira, hartu-eman profesional bihurtzeko. BNI, mahaiaren gainean jartzen da gure profesionaltasuna.

Zelan konbentzitu zenuke pertsona bat BNI Aukera Debagoienarekin bat egin dezan?

BNI egiten dena oso ondo ordenatuta eta oso ondo antolatuta dagoela esango nioke. Parametro batzuk eta adierazle batzuk daude; dena neurtzen da, eta jarraibide horren arabera jarduten dugu gure egunerokoa. Guk geuk ezarritako helburu batzuk daude zehaztuta, kuantifikatuta daude. Helburuen betetze-maila eta adierazle horiek aztertu egiten dira batzartzean.

Zelan egiten duzue lan?

Pertsona bakoitzak, asteko batzartzean, bere lanaren berri ematen dio taldeari, eta hori serioitasuna da. BNI dituen serioitasuna, zorrotasuna eta printzipioak; izan ere, mundu osoan 30 urte baino gehiago daramatza jardunean, eta frogatuta dago funtzionatzen duela. Hori guztiori, talde bakoitzak bere nortasunari eutsita, BNIren lan-metodoarekin, baina, dudu barik, estilo propioarekin. Hain zuzen, BNI Aukera Debagoienaren ezaugarriak argi islatzen dira taldeko kide diren enpresen arteko erlazioan, gure idiosinkrasia propioarekin. Gustura eta gogo handiz egiten dugu lan, elkarrekin, taldea osatzen dugun 32 lagunek. BNI Aukera Debagoienako kideek askotariko lanetan dihardute: eraikuntza eta propietatean, enpresei

zerbitzu ematen, marketinean eta komunikazioan, lege eta finantza zerbitzuak eta partikularrentzako zerbitzuak.

Zein konpromiso hartu behar dituzte kideek?

BNI Aukera Debagoienako kideek hartzen duten lehen konpromisoa parte-hartzea da, baina baita asistentzia ere. Beste adierazle bat taldeak sortzen duen negozioa da, baina ez zaio bakoitzak egiten duen negozioari begiratzen, baizik eta kide bakoitzak egiten duen ekarpenari. Hirugarren parametro elkarri pasatzen dizkieten erreferentziak dira. BNIren lan-metodoaren erreminta garrantzitsua bat da erreferentzia, eta kalitatezko erreferentziak dira beti.

Zer dira, baina, erreferentziak?

Erreferentzia bat da norbait nire deia zain dagoela, lankide bat bitartekoa izan delako nik egon gura dudana pertsonak har nazan. Funtsezkoa da hori. Ez da ate hotz bat, ez da "hor konpon!" esatea. Alegia, nire taldeko bat bitartekoa izan da, nik negozioa egin dezadan pertsona horrekin. Eta, gainera, nire deia zain daude. Ezberdindu egin behar dira kontaktua eta erreferentzia. Lehenengo pausoa da loturak egiteko, negozio-aukerak sortzeko aukera egon dadin. Funtzionamendua ezagutzeko, egokiena gure batzartze batera etortzea da, gonbidatu gisa, inolako konpromiso barik.

“Givers Gain”

BNI®

aukera
DEBAGOIENA

Beste enpresa batzuekin batera hartu-emana izan eta negozioa sortu nahi duzu?

Etor zaitez:

bniaukera@gmail.com



Aratz Estonba, Julia Monge, Iraitz Lazkano eta Janire Lazkano, astelehenean egindako agerraldian. L.Z.

Frankismoaren krimenak auzibidean lehen aldiz

Bergarako laugarren instrukzio auzitegiko epaileak aintzat hartu du Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak aurkeztutako genozidio salaketa. Erabaki historikoa dela esan dute bultzatzaileek; aurrerapauso "ausarta" eta "garrantzitsua"

Larraitz Zeberio ELGETA

Lehenengo aldiz 40 urtean epaile batek ofizioz eman du frankismoaren krimenak ikertzeko eskatzen duen kereila bat tramitera onartzeko pausoa. Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak urriaren 4an Bergarako epaitegian aurkeztutako kereilarekin lotuta etorri da albiste. Bertan, hamalau krimen dokumentatzen dira, eta Laia Abokatuak taldeko Aratz Estonba adierazi du urtarrila inflexio-puntu garrantzitsua izango dela, ordurako aurreikusten dute-eta lekukoek epaitegian deklaratzeko.

Abokatuak esan du epaitegiak beste edozein salaketarekin mo-

duan jokatu duela kasu honekin, eta, hain justu ere, hori dela azpimarratzekoa. "Aurkeztutako lekukotasunak genozidio eta gizateriaren kontrako krimen kalifikazioarekin onartu ditu epaileak, eta horrekin aurrera egitea erabaki du. Hori da garrantzitsua hemen", azaldu du.

Fiskaltzaren jarrera, ikusteko

Estonba azaldu du ikusteko dagoela fiskaltzak zein jarrera hartzen duen. "Orain arte, Estatuko fiskaltzaren jarrera ez da horrelako krimenak aztertearen aldekoa izan, eta pentsatzekoa da presio egingo duela auzia bertan behera uzteko. Egia da arrakalak zabaltzen ari

direla. Epaile honek erakutsi du hori. Agian, fiskaltzak ere harrituko gaitu".

Biktimak, deklaratzeko prest

Elgetako kereilarako lekukotasunak eman dituzte herritarrek poztasunez hartu dute ustekabeko albiste. "Urte asko dira zain gaudela", adierazi dute Anttoni Telleriaren senitarteak. Jose Vicente Garayren ondorengoak ere deklaratzeko gogoz azaldu dira. "Gure lekukotasuna baliagarri bada, aurrera!", esan dute.

Arrasateko Udala ere kereilari gisa aurkeztu da. Jakinarazi dute oraingo ez dutela epaitegitik erantzunik jaso.

Hezkuntza publikoko langileak, greba deialdiarekin bat eginda

Ikasturte 'beroa' iragarri dute, sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak etenda daudelako

I. Larrañaga / L.Z. DEBAGOIENA

Bailarako hezkuntza publikoko eskolek bat egin zuten martitzeko greba deialdi bateratuarekin. Kalitatezko hezkuntza publikoaren alde borrokan dabiltzala nabarmendu du Arrasate Eskola Publikoko zuzendari Beñardo Balerdik, eta beharrezko jotzen dute hezkuntzara bideratutako inbertsioa handitzea. Sindikatuek emandako datuen arabera, 2009an baino 162.000 euro gutxiago bideratzen dira gaur egun hezkuntzara. "Eskatzen duguna, besteak beste, ordezka-

penak lehenengo egunetik egitea eta behin-behinekotasuna jaitea da. Uste dugu modu horretan kalitatezko hezkuntza hobea lortuko dugula". Balerdik ikasturte "beroa" aurreikusten du, gaur-gaurkoz sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak etenda daudelako. Irailaren 27an egin zuten irakasleen arloko azken mahai sektoriala. Azaro amaieran saiatu ziren beste bat egiten, baina bertan behera utzi zuten. Hala, protesta eta greba gehiago egingo direla uste du.

Mundukidek laguntza eskatu du Mozambikeko nekazariendako

Hamabost urteotan hobera egin du familia askoren egunerokoak, baina miseria egoera handia da oraindik

Larraitz Zeberio DEBAGOIENA

Mundukide Fundazioak deialdi berezia egin die debagoiendarrei Laboral Kutxako bulegoetan egiten duen kanpainaren harira. Lankidetzan jarraitzen dute Mozambikeko nekazari familiekin, eta familiak horiek bizi duten miseria egoeraren aurrean elkartasunerako dei egin dute. Ekarpene ekonomikoak egiteko eskatu dute. "Hamabost urte daramatza Mundukidek bertako familiekin lankidetzan eta orain arte ikusitakoak gero eta indar handiagoa ematen digu lanean

jarraitzeko", adierazi dute. "Haro gaude bidegabekeriari aurre egiteko tresnak eta mekanismoak sortu ditugulako eta, ondorioz, 10.000 nekazari familiaren bizitzek hobera egin dutelako". Jasotako ekarpenak erabiltzen dira urte osoko janaria bermatzeko, etxeko osasun edo hezkuntza beharrak asetzeko, etxebizitzak egokitzeko, altzariak erosteko eta bizikletak zein motorrak eskuratzeko. "Zuk ere lankidetzan sinesten baduzu, pasa zaitez Laboral Kutxako edozein bulegotatik eta egin zure ekarpena".

AUKERA HONEKIN EZ DUZU MAHATSAK JAN ARTE ITXARONGO

GAURSAN SOILIK GAMA OSORAKO DESKONTU BEREZIAK LOR ITZAZU URTE AMAIERA BAINO LEHEN

GAURSA Gamarrako Atea, 46 A-B - 01013 - Gasteiz - Araba - Tel. 945 262 501

Kontsumo mistoa: 3,2 - 9,5 l/100 km. CO₂ isurpenak: 85 - 172 g/km. Kontsumo homologatua europar legeriaren arabera.

Inbertsore baten berri eman du Edesak

Amica taldea 26,8 milioi euroko inbertsioa egiteko prest legokeela azaldu du Edesak; Fagor marka erabiltzeko baimena lukete negoziatioek erdigunean. Fagorrek, berriz, gezurtatu egin du markaren erabileraren inguruko negoziaketarik dagoenik

Iker Oñate ARRASATE

Hartzekodunen hitzarmenerako aurre-proposamena aurkeztu du epaitegian Edesa Industrialek: 26,8 milioi euroko inbertsioa egiteko prest legoke Poloniako Amica Group taldea. Prentsa ohar bidez azaldu dutenez, "likidazioa saihesteko eta industria jarduerekin jarraitzeko asmoaren" baitan legoke proposamena. Orain, negoziaketekin hastea dagokie.

Horren bidean, enpresako langile batzordeko kideak atzo, eguna, batzartu ziren CNAko presidente Jorge Parladerekin; aurrera begirako bideragarritasun plana aurkeztu zien hark. "Oraindik gauza asko dituzte ixteke. Aurkeztutako plana gauzatu ahal izateko bazkideak behar dituzte, esaterako", azaldu dute langileek, bilera bukatuta. Fagor Kooperatiba Elkarteak, berriz, ez daki ezer inbertsioren inguruan, "hedabideetan argitaratutakoa salbu".

Proposamenaren arabera, bi jardueretara bideratuko lukete dirua: batetik, lerro zuriko produkzio unitatearekin jarraitzeko erabiliko lukete inbertsioa; hor legoke sukaldarako osagaien labeak, sukalde independenteak, plakak, ke-erazgailuak, mikrouhinak eta osagarriak, hozketa aparatuen hozkailuak eta

izozkailuak, garbiketarako tresnen garbigailuak eta lehor-gailuak eta ontzi-garbigailuen produkzioa. Diruaren beste zatia, bestalde, produktuen komertzializaziorako sortuko litzatekeen filiala finantzatzeko erabiliko lukete; enpresa ezberdinen artean legoke banatuta filial horren jabetza.

Fagor marka, ezinbestean

Fagor marka erabiltzeko baimena ezinbesteko baldintza litzateke inbertsiorako. Oharraren arabera, martxan daude horren bueltako negoziatioak; Mondragonekin leudeke harremanetan. Dena den, datua gezurtatu dute Fagorreko iturriek: "Ez da egia Amicak edo Edesak marka erabiltzeko eskubidea negoziatzen dihardutela Mondragonekin. Besteak beste, horren bueltakoak geurekin negoziatzea dagokielako; gu gara Fagor markaren jabeak. Eta ez dira gurekin harremanetan jarri".

Langile batzordeko kideek, berriz, Fagor markak inbertsioekin bidean duen garrantzia azpimarratu dute: "Finean, esan daiteke Amica Group taldeak Fagor marka erabili gura duela; eta, horren truke, diru kantitate bat inbertitzeko prest dagoela".

140 lanpostu mantendu

Edesak ohar bidez helarazita-koaren arabera, 140 bat lanpostu sortzea ahalbidetuko luke inbertsioak; eta, hiru urte igarota, 200dik gora lirateke langileak. "Euskal Autonomia Erkidegoan mantenduko lirateke jarduera industrialia eta komertziala", gaineratzen dute.

Hala ere, bilera bukatuta, horri buruzko "kezka" azaldu dute langile komiteko kideek: "Gaur-gaurkoz, soilik 40 lanpostu inguru sortzeko ekinbidea dute lotuta. Horiek Eskoriatzako plantan jardungo lukete, lapiko ekoizpenaren bueltan. Bestetik, Amicako lantaldean ere sartu gura dituzte Edesa Industrialeko zenbait langile; komertzial alorrekoak, nagusiki. Beraz, proposamena bere horretan gauzatzeko, bazkide bila dabilta".



SUV KONPAKTU BERRIA
CITROËN C3 AIRCROSS
ESPazio ZABALAGOA, MODULARITATE HANDIAGOA

CITROËNek nahago du TOTAL KONTSUMO ARIKOA (l/100 km) / CO2 EMISIOA (g/km): CITROËN C3 AIRCROSS: 4.0-5.6 / 104-126

TALLERES CHAPIME
San Andres 5, 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 45 22

Aurretik, negoziatioa

Edesa Industrialeko zuzendari-tzak inbertsio proposamenarekin aurrera egitea erabakiko balu, martxan duten hitzarmena bertan behera uzteko negoziatioei ekitea lukete lehen urratsa. Beraz, akordio hori erdietsita hasi behar lukete hitzarmen berriaren ingurukoak negoziatzen.

Hori horrela, bere eskaerari helduta segitzen du Fagorre: "Bere garaian hartu zuten konpromisoa bete dezatela, orain artean egin ez duten bezala".

Bestelako ekonomia eredua sustatzen KoopFabrika-rekin

Abenduaren 23ra arte eman daiteke izena. Ostean, elkarrizketa aldiari ekingo diote bultzatzaileek

Iker Oñate DEBAGOIENA

Bestelako ekonomia eredua sustatzera bidean, KoopFabrika formazio zikloa egingo dute, bigarren. "Proiektu profesionalak eta ekimen sozioekonomikoak martxan jartzen laguntzeko formazio programa da. Eta eduki soziala, kooperatiboa eta eraldatzailea litzazke erdigunean", dio Elena Herrartek, egitasmoaren bultzatzaileetako batek.

Bide horretan, Oarsoaldeko, Beterri-Buruntzako eta Debagoieneko 40 pertsonaz osaturiko taldea sortu gura dute. Beraz,

mugatuta dago parte hartzaile kopurua: izen emate epea bukatuta abenduak 23-, elkarrizketak egingo dituzte. Ostera, urtarrilaren 17an ekingo diete saioei; Hernani eta Debagoien Bergara eta Eskoriatza artean egingo dituzte horiek.

Zehatz esanda, ekintzaileei, euren jarduna profesionalizatu gura duten elkartei eta enpresa baten barnean egitasmo berria abiatu nahi dutenei dago zuzenduta KoopFabrika. "Saio parte hartzaileak dira. Beraz, edukiak osatzeko eta horietan sakontze-



Iaz egitasmoan esku hartu zutenak, saio batean. KOOPFABRIKA

ko lagungarri da esperientzia aniztasuna. Profila ezberdineko jendea egoteak aberatsago bilakatzen ditu saioak. Finean, ekonomia sozialean garrantzitsua da kolektiboki lan egitea", argitu du Herrartek.

Lan ildoak

Hainbat lan ildo jorratuko dituzte KoopFabrikako parte hartzaileek; teoria ez ezik, praktika ere landuko dute. Tartean, proiektu baten garapenak funtsezko dituen tresnak eta eko-

nomia sozialaren bueltako edukiak izango dituzte jorragai. "Euren proiektuak garatzeko lagungarri izango zaizkie horiek", azaldu du Herrartek.

Dena den, esan beharra dago formazio zikloa ez dela saio bateratuetara mugatuko, euren proiektu pertsonalak garatzeko tartea ere izango baitute parte hartzaileek. "KoopFabrikak bere beharren arabera laguntza eskaintzen dio bakoitzari, proiektuaren izaeraren arabera", gaineratu du Herrartek.

Iazkoak eman zuen fruiturik

Iaz 25 egitasmo inguru sortu zituzten parte hartzaileek. "Egun, heldutasun maila ezberdinak dituzte proiektu horiek. Batzuk hasiak dira zerbitzua eskaintzen", azaldu du Herrartek. Ibarrean bi proiektu leudeke martxan.

Ikus-entzunezkoen laborategia, gertuago


Euskarazko Ikus-entzunezkoen Laborategia aurkeztu dute, "ekoizpena eta kontsumoa handitzeko eta sormen testuinguru berriak sustatzeko" helburuarekin, sektoreko kideen elkarlanaren bidez. Kokagune izango duen Tabakaleran aurkeztu dute

Eneko Azkarate DONOSTIA

Atzo aurkeztu zuten Euskarazko Ikus-entzunezkoen Laborategia. Kokatuko den tokian, Tabakaleran, aurkeztu zuten proiektuaren egileek: Mondragon Unibertsitateko Amaia Pavonek eta Goiena Komunikazio Taldeko Iban Arantzabalek. Tabakalerako patronoak diren hiru erakundeetako buruak, Bingen Zupiria Kultura sailburua, Markel Olano ahaldun nagusia eta Eneko Goia Donostiako alkatea izan ziren ekitaldian. Ikus-entzunezkoen Laborategia Foru Aldundiak bultzatutako Etorkizuna Eraikiz planaren barruan garatu den proiektu esperimentalak da.

Sektoreko eragileekin landua

Euskarazko Ikus-entzunezko Laborategiaren proiektua "sektoreko eragileekin luze eta zabal landutako elkarlan prozesuaren ondorioa" da: 80 elkarriketa luze sektoreko ordezkariarekin eta bi *world kafe*, sei adituz osa-



Iban Arantzabal, Euskarazko Ikus-entzunezkoen Laborategia aurkeztzen. GOIENA

tutako kontraste mahaia, lurraldeko 2.500 neraberen artean EHUK egindako kontsumoari buruzko ikerketa, eta nazioarteko erreferentziekin kontraste jardunaldiak. Gainera, hainbat proiektu pilotu abiarazteko edo

egokitzeke ere balio izan du laborategiak: esate baterako, *Go!azen* telesail arrakastatsua-ren transmedia proiektua, *Next Station* izenarekin euskarazko websail bat sortzeko lehiaketa, eta *JarriON* aplikazioa, euska-

razko edukiak kudeatzeko eta ikusteko.

Inkubagailu papera

Misio zehatza izango du laborategiak, Iban Arantzabalek adierazi zuenez: "Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena eta kontsumoa handitzea, sormen testuinguru berriak sustatuz, ekoizpen-eredu eta formatu berrietan esperimendatuz eta zabalkunde kanalak biderkatuz". Betiere, sektorea osatzen duten "eragileekin elkarlanean eta herritarren partaidetza aktibatuz". Helburuak, berriz, ondorengo lau puntuetan ardatzen dira: "Euskara sustatzea, irismena handitzea, sektorean eragitea eta nazioartekotzea sustatzea".

Laborategiak antena gisa funtzionatuko du: industriarako aukera berriak hauteman, nazioarteko tendentzietatik ekimen berriak proposatu, arrakastatsu eta berritzaile izan daitezkeenak identifikatu... Bestetik, inkubagailu eginkizuna ere izango du, sorkuntzarako espazioak eta dinamika baliatuta. Prototipoak garatu eta produkzio fasera pasa aurreko testatzea lantzeko eremu bat ere izango du. Zeharka, gainera, "sektorearen erraztaile" lanak egingo ditu: "Interakzioa eta lankidetzak, finantzazio aukerak, nazioartekotze estrategiak", eta abar. Amaitzeko, produktuen zabalkundeak sustatzeko lan egingo du.

Euskadiko ekonomia %2,7 haziko da 2018an

Laboral Kutxaren txostenaren arabera, 16.000 lanpostu berri sortuko dira

E.A. BILBO

Ekonomia %2,7 haziko da 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan, Laboral Kutxaren arabera. Hortaz, aurtengo aurreikusitako %3ko hazkundearen azpitik. Edozelan ere, azkeneko urteotako gorako joerari eutsiko dio, garapen "osasuntsuari" eutsiz. Ekonomiaren hazkundearen ondorioz, lanpostu berriak sortuko dira: finantza erakundearen ikerketaren arabera, lan-jardun osoko 16.000 lanpostu berri sortuko dira datorren urtean eta langabezia tasa %10,5ean kokatuko da Euskadin. Debagoienera langabezia tasa %8,42 da, eta, aurreikusitako beherako joerari eutsiz gero, %7 azpitik jar daiteke datorren urte amaieran.

Europako ekonomiaren motor eta euskal enpresen bezero nagusi diren Alemaniako eta Frantziako enpresen hazkundeak mesede egingo dio euskal ekonomiarri.

BON 10+



Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.

www.bono10.eus

EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

HARAKIN MAISUAK



**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

OÑATI:

JESÚS ODRIÓZOLA HARATEGIA - Arantzazuko Ama, 2 Behea
ANTXON HARATEGIA - San Lorentzo, 5

BERGARA:

LETURIA HARATEGIA - Pedro Deuna, 24

ANTZUOLA:

GABILONDO ARREGI HARATEGIA - Kalebarren, 5

Nerabezaroa, bihurgune arriskutsua

ION ALBIZU GONZALEZ

ARETXABALETA

Maiz entzuten dugu gazte batzuek zerbait apurtu, margotu, erre egin dutela. Beste askotan, *gazte-droga* hitzak bat eginda agertzen zaizkigu. Ariketa bat planteatzen dizuet: borratu porroa, farola, oihuak... iruditik eta begiratu diezaiogun atzean dagoen pertsonari.

Garai erabakigarria da nerabezaroa. Nortasunaren eraikuntza, adin-berekoekin, helduekin eta ingurumenarekin harremanak garatzen baitira. Hain da erabakigarria, arriskutsua da! Hain da intentsua, polita da!

Azken urteetan gauzak asko aldatu dira gure gizarte postmodernoan: ikaragarritzko aldaketak gure bizitzetan eta baita gure gazteenetakoetan ere, noski.

Nerabezaroa lehenago hasi eta beranduago bukatzen da; bukatzen bada. Gurasook gero eta gutxiago egoten gara haiek atenditzeko. Mundu likido honetan dena azkar eta orain dugu eskuragarri. Moden joan-etorrian gazteak kontsumo helburu bihurtu dituzte. Eskuko telefonoak pseudo-gertutasun batean mantentzen gaitu. Denak alde argi eta ilun guztiekin.

Baina, galerna honetan, zer pasatzen zaie gure gazteei?

Egoera honek autonomia ematen die: pseudo-independentzia, agian. Itxura bai, baina sakonean ekonomikoki eta emozionalki helduen dependenzia dute, ikaragarria. Horregatik, etengabe ari dira gure atentzioa bilatzen eta gero eta gehiago topatu ezin. Baina behar gaituzte; borrokatzeko bada ere. Behar gaituzte guk haiek ikusteko, limiteak jartzeko eta munduratze prozesuan laguntzeko; mundu gogor honetara ateratzeko gure laguntza behar dute, bai.

Baina eskaera ez da egokiena izaten, amorruz eta biolentziaz egiten baitute maiz. Eta zergatik, hainbeste

behar bagaituzte! Haien nortasuna garatzeko gugandik desberdindu behar direlako. Joko zoroa, e!

Familiak, eskolak, instituzioek eta orokorrean gizarte osoak erronka handia dugu. Ea lortzen dugun gure gazteak zaintzea –egoten, limiteak jartzen, laguntzen eta maitatzen–. Nor bere barruari begira jarri eta bere barruko –oraingo edo lehenagoko– nerabearekin adiskidetzea izan daiteke hasiera polita, ezta?

Badator VI. A8M!

GURUTZ LARREA

A8M-KO ANTOLAKUNTZA

ANTZUOLA

Ia urtebete da otsailaren 19an *azkenengo* Antzuolako 8 Miliak mendi lasterketa egin zenetik. Atzean, bost urtetan egoera pertsonalak asko aldatu eta nekatuta amaitu zuen talde bat zegoen. Nabaria zen ingurukoen pena, lasterketa barruan zein kanpoan, herritar guztiok batzen gaituen egun bihurtu baita A8M.

Baina berriz ere iritsi da lanean hasteko ordua. Talde eraberritu batekin. Ilusioz beteta eta lanerako gogoz gaude berriz. Urteroko legez, badakigu otsailaren 18an herria %100ean egongo dela gurekin, eta horrek lasaitasuna ematen digu.

Antzuolako Udala eta Arrola MT izango ditugu, beste behin, bidelagun, eta eskerrak eman nahi dizkiegu alde z aurretik.

Beraz, 2018ko otsailaren 18an Antzuolara etortzeko gonbita luzatzen dizuegu. Beste behin, mendiaz, herriaz eta herritarrez gozatzeko eguna izango baita. Mendi lasterketaz gain, umeen motortxo *lasterketa* eta ezinbesteko bihurtu den *hamarretakoa* izango dira lasterketa bukaerara inguratzen diren guztientzat.

Bestalde, gogoratu, herritarrok, hamar dortsak zozketatuko ditugula aurtengoan ere. Zozketan parte hartzeko, *antzuolako8m@gmail.com*-era

zuen izen-abizenak eta telefono bat bidali beharko dituzue abenduaren 30a baino lehen. Besteok, berriz, urtarrilaren 7an, goizeko bederatzietatik aurrera eman ahalko duzue izena *www.kirolprobak.com* webgunean. Bertan elkar ikusiko dugulakoan.

Hitzak edukiz betetzen

AITZOL ITURBE BERISTAIN ETA MIKEL BARGIELA IPARRAGIRRE

ANTZUOLAKO EH BILDUREN IZENEAN

ANTZUOLA

Badira hainbat hilabete Antzuolako EH Bilduren egituraketa fasea abiatu eta bere eginkizunen inguruko zehaztapena adostu genuela.

EH Bilduk Euskal Errepublika dauka helburutzat, uste dugulako Euskal Errepublikak soilik emango dizkigula beharrezko dugun ongizatea lortzeko tresnak. Eta Antzuolan, ongizate horrek nolakoa behar lukeen marrazteari ekin diogu.

Ongizatea, modu indibidual zein kolektiboan, eremu materialen zein ez materialen arteko oreka egoera izan daiteke. Bizi garen komunitatearen beharren asebetetze maila neurtzen duen egoera, alegia. Urtero-urtero, ongizatea osatzen duten eremu ezberdinak hartu eta honen inguruko elkarrizketa mamitsuetan murgilduko gara.

Gauzak honela, 2017-2018 ikasturteari dagokionez, *hezkuntza* gaia lantzeko ardura hartu dugu. Malcom X-k honela zion: "Hezkuntza da etorkizunerako pasaportea, biharamuna gaur prestatzen ari direnei dagokie".

Antzuolako herrian duela urte asko konstruktibismoaren heziketa metodoari ekin zitzaion. Udaletik ere eredu hori babestu eta inbertsio lagungarriak burutu izan dira. Eta estatu propioa bagenu? Zein izango litzateke etorkizuneko hezkuntza sistema? Zeintzuk dira gaur egun ditugun gabezia eta arriskuak?

Data zehatzaren berri aurki jakinaraziko dugun arren, 2018ko lehen hiruhilekoan batzar ireki bat egingo dugula jakinarazi nahi dugu. Antzuolar guztiekin –gazte, heldu, guraso, irakasle...– batera egin nahi genuke batzarra, ongizatearen zutabe garrantzitsu honen ezagutzan sakondu eta aurrera begira izan beharko lukeena marraztea guztioi dagokigu eta.

Gure historiaren zati bat

JUAN RAMON GARAI

ARRASATE

Josemari del Palaciok eta Intxorta 1937 kultur taldeak helburu berarekin dihardugu aspalditik; hain zuzen, isilpetik argitara ateratzen gerra galdutakoen historia. Gure aurrekoen historia, askotan eta zoritxarrez lotura zuzena izan duena oraingo egoerarekin.

Secuelas de nuestras guerras y derrotas, de la República a la 'modélica' democracia liburuan, guk geuk bizitako historia ausardiaz aztertzen du.

Zeharkatzen dituen pasadizo hauetariko parte izan gara. 5. kapituluan *–De la esperanza al desconcierto–*, 70eko hamarkadan idazleak bizitakoen ikuspuntua ematen du.

Ados egon edo ez, benetan interesgarria.

Bere aita Faustino, Morales de Toro herritik etorritakoa, jornalaria, emigrantea, komunista eta poeta liburu honetako protagonista da.

1920-1970 tartean, batez ere, Arrasatera etorri ziren emigranteen historia gure historiaren baitan dago. Morales de Toro eta Cuevas del Valle, Gaztelatik; Montilla eta Montemayor, Andaluziatik; eta Quintana, Valle eta Higuera de la Serena, Extremaduratik, batzuk aipatzearren.

Etorritako asko eta asko ezkerrekoak, frankismoaren errepresiotik eta gosetik ihesi gure herrira lan egitera etorri behar izan zuten.

Batzuk, gainera, Faustino bezalakoak, poetak: Juan Jose Aguilar, Montemayorkoa, eta Benito Garcia, Quintana de la Serenakoa, biluztu egiten dira poesiaren bidez.

Faustinoren bertsoak, bere jaioterri biak Morales eta Arrasate, emigrazioa, borrokak, sufrimenduak, maitasunak, poztasunak... sentimenduen adierazle dira.

Liburuaren aurkezpena aste honetan bertan izan da, eguaztenean, Arrasateko Kulturateko areto nagusian.

Zoramen kontsumista

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EKIMENAREN

ARDURADUNA

BERGARA

Gizarte kontsumista batean bizi gara, nabarmen ikusten da Gabon jaiak hurbiltzen direnean.

Iragarkien mezu guztiek sinestarazten digute derrigorrez zerbait erosi behar dela pozik bizi izateko.

Erosteke, dirua behar da; dirua lortzeko, berriz, lana; eta lana edukitzeko, ekoizten diren gauzak saldu egin behar dira beste batzuek eros ditzaten.

Ohartu gabe, zoramen kontsumista batean murgilduta bizi gara.

Zoramena gehiago bultzatzeko, XX. mende hasieran hasi ziren, nahita, kalitate eskasagoko produktuak ekoizten.

Horren adibide da bonbilla, gizarte modernoaren sinboloa, alegia.

Edison-ek asmatu zuen lehenak 1.500 ordu inguru iraun zezakeen piztuta; geroago, fabrikatzaileek adostu zuten 1.000 ordu iraunda nahikoa zela. Kontzeptu horri zaharkitzapen programatua esaten zaio.

Zoramen honek zentzurik ez dauka, eta, are gutxiago, beste bati oparitzeko zerbait erostea, oraingo moda delako, jakin gabe besteen beharrak zeintzuk diren.

Egoera horretan bazaude, nire aholkua hau da: zuhaitz bat oparitu.



ZABALIK

VALEN MOÑUX

'Whatsappitis' akutua'

- Buenas, ¿está Consuelo? [con suelo]
- No.
- Entonces ¿dónde pisan?

Nire ume denboran telefonoa nobedade teknologikoa zen eta txantxa horrek arrakasta handia zuen. Pixka bat geroago, beste berrikuntza galant bat disfrutatzen hasi ginen: atezain automatikoa.

Donostiako lehengusuekin kristorena muntatu genuen Gros auzoan.

Bakarrik geunden baten, txilioka hasi ginen atezaineko telefonotik eta jendea hasi zen pilatzen gure atari aurrean, atezaineko bozgorailuan bahitutako norbait laguntza eske baitzegoen. Udaltzainak ere agertu ziren, eta eskerrak ez zutela deskubritu zein etxebizitzan gertatu zen *bahiketa*.

Azkenean, tresna berriak umeen eskuetan, umekeriak egiteko.

BATEN URTEBETETZEA DENEAN, BEHARREZKOA DA TALDE BARRUAN DENOK ZORIONTZEA, BANAN-BANAN?

berde ospetsua sakatzea ikusteko zenbat tontokeria, informazio faltsu, mezu txepel eta zabor pila gordetzen dugun gure sakeletan. Gaixotasun berria delakoan nago, eta *whatsappitis akutua* deitzen diot.

Eta ez da lehen telefonoarekin edo atezain automatikoarekin gertatzen zen bezala, umeen gauza bat, baizik eta adin guztietako jendea afektatuta dagoela garbi ikusten da.

Hemen nire galdera batzuk: taldeko baten urtebetetzea denean, beharrezkoa da talde barruan denok zoriontzea, banan-banan? Ez da egokiagoa modu pribatuan zoriondu, beste denak ez molestatzeko? Ezin da filtro bat jarri eta ez *whatsappatu* eduki matxista edo arrazista duten *mem*e-ak? Ezin ditut jasan *Whatsappeko beltza*-ri buruzko txepelkeriak.

Azkenik, ikasleen gurasoen taldeei buruz zer komentatuko dugu? Orain dela gutxi, mota honetako elkarrietzeta baten transkripzioa iritsi zait, barrez lehertzeko modukoa. Norbaitek interesa badu, telefonoa pasatu eta *whatsapp*-a bidaliko diot. ;)

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Lore handiak

MARTXELO OTAMENDI

HTTPS://LABUR.EUS/ONWJN
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Bigarren albiste bikaina jaso zuten atzo Moriarti zinema ekoiztetxean jakin zutenean *Handia* filmak 13 hautagaitza eskuratu zituela Espainiako Goya sarietan.

Aurreneko albiste ona, kulturgile orok dioenez garrantzitsuena, publikoak eskaini zion, filmari egindako harrera oso ona izan delako: 90.000 ikusletik gora, gehienak Euskal Herrian.

Beste datu esanguratsu bat zinema aretoetan iraun duen

denborak ematen digu, urriaren 20an estreinatu zenetik oraindik ikusgai baitago Donostiako areto komertzial batean. Beste marka bat.

Asko dira *Handia*-k lortu dituen hautagaitzak, eta litekeena da gutxiago izatea sariak.

Hala izanda ere, inork ezin izango die masaileko irribarrea ezabatu Aitor Arregi eta Jon Garaño zuzendarien ardurapean jardun duen talde zabala osatu dutenei, lan ederra egin dutelako.

Loreak Oscar sarien azken aukeraketaren atarian geratu izanak eta *Handia*-k Goya sarietan

eskuratu dituen hautagaitza kopuruak erakusten dute Moriartin kontrolatzen dituztela gaurko zinemaren klabeak, eta publikoarekin konektatzeko gaitasuna daukatela.

Euskarazko produktuen aldeko apustuak merezi duela berresten du *Handia*-ren arrakastak.

Apustu sendoak izan behar dute, indar handia daukaten bi hizkuntzaren eremu berean lehiatzen baitira euskarazkoak.

Beste ondorio bat.

Europako publikoaren ateak zabalduko dizkiote atzoko izendapenak *Handia*-ri.

goiena^{ak}
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Marta Leturia.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Krisiak utzitako ondorioak betiko geratuko dira"

NIKO CUENCA EKONOMISTA ETA EUSKADI IRRATIKO KOLABORATZAILEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Ekonomia berbagai ipinita, mahai-ingurua egin dute asteon. Niko Cuenca ekonomista izan da hizlarietako bat.

Hasteko, krisitik irten gara?

Datuek diote baietz.

Aberastasuna neurtzen duen Barne Produktu Gordina 2007koaren pare dago egun. Baina zifrak besterik ez da. Ostera, langabezia datuek diote, oraindik, egoera txarra dela. 70.000 lanpostu gutxiago daude, baina berdina produzitzen da. Nola da posible hori? Hor, efizientzia arazoa dago.

Hortaz, etorkizun baikorra izango dugula esango zenuke?

Argi batzuk badaude honetan guztian. Baina kezkarria da krisitik nola, zein modutan, zein egoeratan ateragaren. Egungo pobrezia tasa krisia hasi aurrekoa baino handiagoa da. Klaseen arteko desoreka oso nabarmena da. Pobre zirenak pobreagoak dira eta aberatsak, aberatsago.



Niko Cuenca AED-ren lokalean, eguazteneko hitzaldia hasi aurretik. X. GOROSTIDI

Oso pbreak zirenak ez dira krisitik irten.

Krisiaren aitzakian hartutako neurriak kalterako izan dira?

Bai. Lan merkatuaren erreforma, pentsio sistemen erreforma, soldaten jaitsiera...

Horiek guztiak, gelditzeko etorri dira. Krisiak utzitako ondorioak betiko geratuko dira. Multinazionalak kontrolatzen dute guztia. Geroz eta botere handiagoa dute, eta gobernuak kentzeko

edo aldatzeko gaitasuna ere bai. Italian, adibidez, Berlusconi kendu eta Monti ipini zuten. Demokraziak ere indarra galdu du.

Etorkizuna beltza da, orduan?

Ez nuke hori esango, baina lan handia daukagu aurretik. Bereziki, baldintzak

duintzeko. Pentsio sistemak eta lan erreformak utzitako ondorioak kezkatzen naute bereziki. Dena den, argitasunak ere badaude.

Zeintzuk dira aurretik aipatu dituzun argitasun puntu horiek?

Euskal Herriak beste batzuek baino hobeto jasan badu, industriarengatik izan da. Lan-baldintza hobeak izan ditu. Eta baita kooperatibismoak izan duen sarearengatik. Fagor itxi zutenean, beste kooperatiba batzuetan hartu zituzten hango langileak. Kooperatibismoak bermatu egin du enpresak hemen geratzea. Enpresen deslokalizazioa oso txikia izan da bailara batzuetan. Bereziki, Debagoienean.

Pbreak pbreako eta aberatsak aberatsago. Eta, klase ertaina?

Klase ertaina berreskuratzen hasi da. Krisiaren aurretik sinestara ziguten guztiok ginela klase ertaina. Baina segituan antzeman zen hori ez zela erreal.

HAU BE BADOGU!

Zorion mezuak 'Handia' pelikulako kideei



@Handiafilm: "13 zenbakia itsusia dela esaten dute askok... ba guri asko gustatzen zaigu!!! 13 hautagaitza!! #Goya2018".

@iurkullu: "Mundu zabalean Herri txiki batek ekarpen Handia egin dezake lan sendo eta bikainaren bidez.

Zorionak @Handiafilm!".

@saioasan: "Zorionak Handia! Itzela egiten ari zareten ibilbidea!".

Bertsolari Txapelketa Nagusia, hizpide



Domekako finalerako motorrak berotzen ari dira erabiltzaileak sare sozialetan #BTN17 traolaren bidez:

@Bertozale: "#BTN17 Iganderako prest gaudela".

@alper_ego: "Bejondeiela BECerauko autobusa igandean 05:45tan Maulen hartuko duten gizalaba eta gizaseme horiei guztiei!".

@enazazu: "Kudrillako bertsoporra eginda, Maialen garaile, tsunamia bezala!".

Parisko manifestazioa sare sozialetan

Pasa den domekan presoen eskubideen alde 11.000 lagun inguru batu ziren Parisen, eta sare sozialetan *trending topic* izan da asteon ere #PaixenPaysBasque traola.

@artisans_paix: "Igandean, 11.000 manifestarik Frantziako gobernuari bake prozesua aitzinarazteko eta euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko araudiarekin bukatzeko eskatu diote frantses gobernuari".

ITURRI ONETIK

Seminarixoaren irudia eta egitaraua

Manu Muniategiandikoetxeak egin du Seminarixoaren logotipoa. Kultura ikuskizun askotarikoetarako Bergarako bilgune izan nahi duen aretoaren irudia izango dena eta programazioa datorren astean aurkeztuko dituzte. Antzerkiak, musika, umeentzako ikuskizunak... egongo dira, baina zinematik ez, oraingoz. Javier Muguruza -azken lanarekin- eta *Artxipielagoak* ikuskizuna dira Seminarixoan laster ikusi ahal izango direnak; azken hori, Bergarako talde baten laguntzarekin.

GORA ETA BEHERA



"Pozik", hilerriko baranda berria dela eta

Inguru horretan hara eta hona sarri aritzen den onatiar batek idatzi du GOIENARA, eskertzeko, "azkenean", berriztatu dutelako kanposantura joateko saihesbidea gainerik gurutzatzen duen zubiaren baranda. "Hondatuta zegoen aspaldian, erabat erdoilduta, eta oso segurua ere ez zela uste dut", dio. Eta gehitu du: "Orain bai dagoela ondo; eskerrik asko!".



32.247.058 euro datorren urterako

Hori izango da Udalak datorren urterako izango duen aurrekontua. EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin egin du aurrera, nahiz eta oposizioak aurka botatu duen. Inbertsio alorrean, Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturola dira garrantzitsuenak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urteko azken osoko bilkuran onartuta geratu da 2018rako Arrasateko Udalak izango duen aurrekontua. 32.247.058 eurokoa izango da, iaz baino 700.000 euro gehiagorekin eta %2,16ko igoerarekin. EAJko Anuskak Ezkurak azaldu zuen "aurrekontu errealistak, zuhurrak, solidarioak eta egonkorak" direla. Enpleguaren sorrera eta ongizate zerbitzua indartzeko balioko dutela adierazi zuen, hainbat adibide emanda: enpleguaren kasuan, aurrekon-

tua 800.000 eurokoa izatetik 1.034.000 izatera pasatzea eta gizarte zerbitzuetan biztanle bakoitzeko 229 euro bideratzea. Horrez gain, Juan Arzamendi Musika Etxea eta Kulturola proiektuetan inbertsio garrantzitsuak egingo dituztela gaineratu zuen, "arrasatearrentzat proiektu estrategikoak direla-ko".

Oposizioaren kritikak

EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik bat egin zuten udal proposamena "berandu eta gaizki"

heldu zaiela esanez, eta euren emendakinak onartzeko "borrondate falta" salatu zuten.

EH Bilduko Eneko Barberenak adierazi zuen eurek aurkeztutako 50 emendakinetatik bakarra izan dela onartua; hain zuzen, jaietara bideratuko dirupartida 22.000 euro handitzearena. "Gure eskariak ez onartzean, hauen onuradun izango liratekeen kolektiboak dira kaltetuta aterako direnak", azaldu zuen Barberenak, eta adibide bezala jarri zuen alokairuak diruz laguntzeko pro-

graman eurek planteatzen zuten partida gehigarria, ezgaitasunak dituztenak, dibortziatuak eta 70 urtetik gorakoak kontuan hartzen dituenak.

Udal Gobernuarekin birritan batu direnean nabaritu duten "faltsutasuna" salatu zuen Balei-keko Igor Urizarrek. 2018rako egongo diren 700.000 euro gehigarriak behar handien dutenei ez bideratzea kritikatu zuen, horren ordez "adreibidun proiektuak" finantzatzeko direla iritzita. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna baretzeko neurriak igarri ditu faltan, eta adibide bezala jarri zituen Arrasateko enplegu datuak.

Irabaziko Juan Luis Merinoren ustez, "tamalgarrak da aurrekontuak izan duen igoera enplegura, gizarte zerbitzuetara, ingurumenara eta komertziora ez bideratzea". Horrez gain, aurrekontu parte hartzaileetara bideratuko diren 250.000 euroak "lotsagarritzat" jo zituen, inbertsioen ataleko %6 bakarrik direla gehituta.

Oposizioak egindako kritikei erantzunez, Anuska Ezkurak adierazi zuen "ikusuntu ez-

2018ko aurrekontuaren ildo nagusiak

Gastuen banaketa

- **11.028.300** Pertsonal gastuak.
- **10.663.200** Ondasunak eta zerbitzuak.
- **15.800** Interesak.
- **4.804.000** Transferentzia arruntak.
- **325.000** Kreditu globala
- **3.930.800** Inbertsioak.
- **983.600** Kapital transferentziak.
- **180.000** Finantzaketa aktiboen aldaketa.
- **316.400** Maileguen amortizazioa.

Inbertsio nagusiak

- **1.230.000** Juan Arzamendi Musika Etxea.
- **500.000** Kulturola proiektua.
- **350.000** Kultur ekintzak
- **105.000** Makatzenako igogailua ordaintzeko.


PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Korixi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia:
umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa
genero indarkerian

Laguntza eskolarak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAKUNTZA

Tel.: 943 08 27 39
607 95 79 11
www.asreformak.net
ARRASATE

Ohiturei eutsiz, jan dezagun txistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!



Euskal okela, bertan egindako txorizoa,
tripakiak eta solomoa

Olarte kalea 20
ARRASATE

berdinak" dituztela. "Zuen emendakinetan gure partidei gehikuntzak egitea eskatzen duzue, baina gehikuntzak egiteko dirua beste leku batzuetatik kendu behar da, eta, guretzako, Juan Arzamendi eta Kulturola behar estrategikoak dira".

Emendakinak onartu gabe

Aurrekontuekiko ikuspuntu orokorrak azaldu ostean, emendakinak botatu zituzten. EH Bilduk bederatzi aurkeztu zituen, eta Baleikek eta Irabazik launa. Horieta bat bera ere ez zen onartua izan, denetan emaitza bera errepikatu zelako: hamar boto alde (EH Bildu, Baleike eta Irabazi) eta hamaika kontra (EAJ eta PSE-EE).

Oposizioko alderdiek prentsaurreko bateratua egin zuten asteazkenean, Udal Gobernuak euren proposamenak egiteko erakutsi duen "borondate falta" salatzeke. "EAJk eta PSE-EEK ez dituzte gure proposamenak seriotasunez landu. Gure ustez, aurrekontu hauekin galtzaileak ez dira oposizioko alderdiak, herritarrek baizik".



Udal Gobernuak hamaika zinegotziak emendakin bati aurkako botoa ematen. X.G.

Lurraldebusen gaineko mozioa

Aurrekontuak onartu ostean, azken mozio bat eztabaidatu zuten: EH Bilduk, Baleikek eta Irabazik kalitatezko garraio publikoari buruz aurkeztu dutena. 2017ko lehen seihilekoan erabiltzen ari zirela "nabariak" egon ostean, Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza linean izandako "murrizketak" salatu zituzten, adibide hauekin: autobusen maiztasuna 20 minutukoa izatetik 30 minutukoa izatera pasatzea eta gaueko ordutegia laburtzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako aldaketek ekarritako hainbat onura zerrendatu zituen Oscar Garciak. "Gidariak bi ordu pasatxoko ibilbide zirkularrak egitetik ordubeteko ibilbideak egitera pasa dira, atsedeen hartzeko dituzten tarreak errespetatuz. Horrez gain, autobusean doan bidaiari kopurua handitu egin da. Irailean batez beste hogeitaz bidaiari zeuden autobuseko eta urrian, aldiz, zifra hori 38koa izan da".

Parte-hartzea: lehen aurrekontua

2018ko udal aurrekontuan 250.000 euroko diru poltsa izango da herritarrek nahi dituzten proiektuetarako. Ekainaren 28an aurkeztu zuten egitasmoa eta uztailaren 15era izan zen herritarren ekarpenak jasotzeko epea; guztira, 354 proposamen batu ziren.

Udal teknikariek banan-banan aztertu dituzte 354ak, bideragarriak diren aztertzeko, eta 241 aukerako zerrenda bat osatu dute. Hainbat izan dira zerrenda horretatik kanpo geratzeko arrazoiak: legez kanpokoak izatea, jada egiteko dauden proiektuak izatea, aurrekontuekin zerikusirik ez izatea, Udalaren eskumena ez izatea, eta informazio falta.

Bideragarritzat jo diren 241 aukeretak asko errepikatu egiten ziren; beraz, 114 proiektuko zerrendaren baitan egin beharko dute bozketa arrasatearrek. Prozesuan parte hartzeko beharrezkoa izango da Arrasaten erroldatuta izatea eta 18 urtetik gora izatea. Parte hartzeko bi modu daude: udal webgunearen bitartez eta BAZen bertan botoak emanda. Prozesu honetan parte hartzeko azken eguna abenduaren 22a izango da. Aukera asko direla ikusita, parte hartzaile bakoitzak hiru proiektu hautatzearen alde egin dute. Udal webgunetik parte hartuz gero, egindako lehen aukerak bost puntu jasoko ditu, bigarrenak bi eta hirugarrenak bakarra. Hala ere, posible da hautatutako aukera ezabatzea —Kendu nire bozketatik botoiarekin— eta aukeraketa berria egitea.

Bulego berezia BAZen

Prozesuan sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta hizkuntza ulertzeko zailtasunekin laguntzeko bulego berezi bat egokitu dute BAZen bertan. Proposamenen tituluak euskaraz eta gaztelaraz irakur daitezke, baina hauen muina ez, bertan herritar bakoitzak proposamena egiterakoan erabilitako hizkuntza baitago ikusgai.

Renault KADJAR

Crossover by Renault



Serie mugatua TECH ROAD

17.900€-tik aurrera*

6. EASYIDEA: GEHIAGO EMANGO DIZUGU ZURE LEHENGO AUTOAREN TRUKE**

17,8 cm-ko (7") ukimen-pantaila, Smartphone Connection eta guzti
Trakzio-kontrola Extended Grip sistemaren bidez
Kanpoko kirol-diseinu dotorea

Renault Kadjar gama: kontsumo mistoa (l/100km) 3,8tik 6,2ra bitartean. CO₂ isuriak (g/km) 99tik 139ra bitartean. *Hizkuntza honetarako Peninsulan eta Balearetan bakoitzeko, partikularmentzat eta autonomientzat, 2017ko abenduaren 1etik 31ra bitartean eskatutako eta matrikulatutako Renault Kadjar Tech Road TCE 97kW (130CV) autoentzat, RCI Banque SA Sucursal en España-rekin finantzaturik gero, eta erositako Renault berriaren truke edozein markatutako ibilgailua entregatuz gero. Baina daude zergak, garrak, RECSAK eskatutako promozioak eta Acción Reprise. Finantzatu beharreko gutxiengo zenbatekoa: 6.000 €. Gubirako epea: 24 hilabete. Ez da bateragarria beste finantza-eskaintza batzuekin. Irudiko modelo: Renault Kadjar Zen Energy TCE 97kW (130CV), desira-gorriko pintura metalizatu berezia, eta 48 cm-ko (19") alaczioko haigunak. Extended Grip aukerakoa, PSP gomendatua (zergak, promozioak eta Acción Reprise berriz hartutak: 20.650€). **6. EASYIDEA: 800 € deskontatutako zaldiekin (zergak berriz hartutak) 2017ko abenduaren 1etik 31ra bitartean eskatutako Renault Kadjar autoei, erositako Renault berriaren truke edozein markatutako ibilgailua entregatuz gero.

Renault finantzaketa: elf

Renault es

AUTOBERRI San Andrés Auzoa, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE

Kantaldi ugari izango dira asteburuan zehar

Gabonetako kantu giroak presentzia nabaria izango du Arrasaten, gaur eta bihar artean zuzeneko kantaldiak nonahi izango baitira. Arrasate Musikalek, Goikobaluk, Elai abesbatzak eta Txorbela otxoteak emanaldiak egingo dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gabonak kantuan egiteko sasoi aproposa dira, eta ate-joka dau dela agerian geratuko da asteburuan zehar Arrasaten izango den kantaldi kopuruarekin.

Goikobalu, Harreman laguntzen

Urtero legez, Goikobaluko kantariak Gabonetako kontzertu solidarioa eskainiko dute gobernu kanpoko Harreman erakunde laguntzeko asmoz. Hitzordua gaur izango da, arratsaldeko zortzietan, San Juan Bataiatzailea parrokiari.

Urtean zehar antolatutako ekintzetan herritarrek izandako parte hartzea eskertzeko anto-

latzen du kantaldia Harremanek. Momentu honetan, bazkide kanpaina daukate martxan. "Bazkide kanpaina jarri dugu abian, babesten ari garen Mozambikeko eta Ankurreko proiektuek duten beharra ikusita, bazkide berriak lortu eta ekarpenak era erregularrean egiteko helburuarekin", adierazi dute elkarteko kideek.

Txorbela otxotea

Otxoteko kideak gaur burubelarri arituko dira, bihar egingo duten musika sakroko kantaldia prestatzen. Hain zuzen ere, 13:00etan egingo dute, San Franzisko elizan, datorren urtean

Erroman egingo duten kantaldia prestatzen joateko.

Kantaldiei dagokienez, Aramaioko Elai abesbatzak Gabonetako kontzertua egingo du bihar, 20:00etan, parrokiari,

Arrasate Musikal

Atzo arratsaldean Iturbide egoitzako egoiliarrei saioa eskaini ostean, gaur Gabonetako kontzertua joko dute Arrasate Musikaleko ikasleek. Emanaldia Kulturateko areto nagusian egingo dute, 18:30ean. Biolin, piano, tronpetak, oboe eta xilofono doinuak entzun ahal izango dira, Eli Auzmendiaren zuzendaritzapean.



Txatxilipurdiren truke azoka. GOIENA

Bihar Biterin Txatxilipurdiren jostailu truke azoka

Erabiltzen ez diren jostailuei bizi berria emateko asmoz dator berriz Txatxilipurdik antolatzen duen Jostailu truke merkatua. Azaroaren 20an hasi zuten bilketa, eta atzo egin zuten azken bilketa saioa Seber Altuben eta Biterin.

Hala, bihar, 11:00etatik 13:00etara, Biterin jarriko duten postuan egongo da jostailuak trukatzeko aukera.

'Emakumeak protagonista' saioa, Ane Irazabalekin

Emakumeak protagonista elkarriketa saioaren barruan, Ane Irazabal elkarriketatuko du Iraitz Agirrek. Hitzordua abenduaren 20an Kulturaten, 19:00etan. Emakumeen lana ikustarazteko helburua duen saio horretan, munduan zehar aritzen den kazetari arrasatearren lana eta bizitza gertutik ezagutzeko aukera izango da.

Gazteguneeetan ez da atsedunik izango Gabonetako oporraldian

Abenduaren 26an eta 27 goizean lokalen apainketa egiten arituko dira, eta arratsalderako sukaldaritza tailerra daukate antolatuta.

Abenduaren 28an, Bailarako Gaztelekuaren Topaketa egingo dute Bergaran, 29an sexualitateari buruzko tertulia eta Olenzero ezkutua eta 30ean, aldiz, mendi irteera.



ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

Ondo pasa santamasetan!

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

Kontzeziño 4 behea ARRASATE Tel.: 943 79 78 09

erreka

taberna - jatetxea

Ondo ibili santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zorientsuak!

Iturriotz 21 - Tel.: 943 79 03 84 - eyaelec@telefonica.net
ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

Monterron parkea herrira zabaltzeko ideien bila

Udal Gobernuak ideia lehiaketa antolatu du, Zarugalde hasieratik San Frantziskoko biribilgunerainoko tartea birdiseinatzeko. Kondekuan lurpeko aparkalekuak egiteko aukera eta jaietan txosnak jartzeko gunea ezinbesteko baldintzat ezarri dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun zinegotzi Ibon Arrupek honela azaldu du zein den lehiaketa honen helburu nagusia: "Monterron parkea erabilera pribaturako diseinatuta dago. 1983an parkea publiko egin zen, baina ordutik hona ez da esku hartzerik egin bertan, eta ezkutu geratzen da Arrasate ondo ezagutzen ez dutenentzat. Lehiaketa honen bidez, parkeko sarbidea herrira zabalduko duten diseinu ezberdinak pilatuko ditugu, etorkizunean esku hartzerik egokiena egiteko".



Kondekuako belardia eta Monterron parkearen sarrera. XABI GOROSTIDI

Beharrezko elementuak

Diseinuek bai ala bai errespetatu beharko dute San Juan jaietan edo Maritxu Kajoi egunean txosnak jartzeko gune bat izatea, Zarugaldetik San Frantziskoraino joango den bidegorria, eta Kondekuan 100 plaza izango lituzkeen lur azpiko aparkalekua. "Mugikortasun

planean, Otalora, Zarugalde, Olarte eta Ignazio Zuloaga kaleetan aldaketak aurreikusten dira, eta bertan galtzen diren aparkalekuentzako konponbide bezala ikusten dugu Kondekua-ko lur azpiko parkinga. Oinez-

koentzako eta bizikletentzako espazioak irabazteko 131 aparkaleku desagertuko lirateke, eta horientzat konponbide izango litzateke Kondekuako parkinga, egoiliarrentzako 100 plaza izango lituzkeena. Hala

ere, hau egitasmo bat besterik ez da, eta argi utzi nahi dugu bertan ez dugula esku hartzerik egingo aparkalekuentzako alternatibarik ezarri gabe", azaldu du Arrupek.

Epe luzera egingo dela ere azaldu du. "Aparkalekuekin lotutako aldaketa hauek ez dira legealdi honetan egingo, eta, ziur aski, hurrengoan ere ez".

10.000 euro irabazlearentzat

Parte hartzaileek hilabeteko epea izango dute euren lanak

aurkezteko. Ondoren, jasotako lanekin erakusketa egingo dute Kulturaren, herritarrek diseinuak ikusi eta euren iritzia eman dezaten. Guztira, 18.000 euro banatuko dituzte saritan: lehenak 10.000 euro, bigarrenak 5.000 eta hirugarren, laugarren eta bosgarren sailkatuek 1.000. "Lehiaketa bezala planteatuta, ideiak erosi egingo ditugu, ondoren bertan aldaketak egin ahal izateko. Hala, Arrasateko Udala ez da lanak egitera derrigortuta egingo".

Bakoitzaren onena
banatik doia

Gabon goriontsuak!!

Sikol
leintzeria

Tel.: 943 79 89 32 - Olarte kalea 7 - ARRASATE

kapikua
MODA NEURRI HAUNDIAK
OSAGARRIAK OPARIAK


Doctor Bañez 4, Arrasate
kapikua_arrasate@hotmail.com
www.facebook.com/kapikua

Ondo pasau Santamasak!!

B
leintzeria

Iturriotz 4
943 79 12 05
Arrasate

Chantelle
PARIS



IÑAKI GOROSTIDI

Tiburon kioskoa kendu egin dute

40 urtez prentsa banatzeko erabili izan duten estruktura kendu egin zuten astelehen arratsaldean. Tona baten bueltako pisua izan arren, garabi batekin altxatu zuten. Jabeek penaz esan diote agur, eta, egoitza berria pauso gutxi batzuetara egon arren, hutsunea igarriko du arrasatear batek baino gehiagok bertatik pasatzerakoan.

Alde zaharreko kale batzuetan irristatzeak saihesteko ahalegina

Herritarrengandik hainbat kexa jaso ostean, Obra, Zerbitzu, Mantentze Lan eta Auzoetako batzordeburuak proposatu zuen alde zaharreko kale batzuetako zoruan ez irristatzeko tratamendua egitea.

Hala, Olarte kantoian, Zurgin kantoian eta Iturriotz kaleko espaloietan esku hartzea egingo du Tratamientos Antideslizantes Ziur SL enpresak.

Irunen kokatutako enpresa da, eta esperientzia zabala du Euskal Autonomia Erkidegoan eta baita Nafarroan ere. Aipatutako hiru kaleetan egingo duten esku hartzeak 6.064 euroko kostua izango du Udarentzat, BEZa barne.

Berrogeigarrena, Petreñasen eta Kabiketaren omenez

Domekan egingo dute Santamas Krosaren berrogeigarren edizioa –haurrena 11:00etan eta kuadrillen artekoa 12:30ean–, eta, azken hamabost urteetan omendutako Enrike Kabiketaz gain, Jose Ramon Petreñas ere izango dute gogoan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bi gizon izango dituzte gogoan aurten urteurren borobila beteko duen Santamas Krosean. Izan ere, hamabost urte dira lasterketa herrikoi hau Enrike Kabiketaren omenez egingo dutena, eta, horrez gain, aurten zendu den eta hainbat urtetan epaile lanak egiten aritu izan den Jose Ramon Petreñas ere omenduko dute, haren emazteari oroigarri bat emanda.

Ohikoa den moduan, haurren txanda izango da lehenengo. 11:00etan, 13 eta 14 urtekoek hartuko dute parte –800 metroko lasterketa, Kajoi tabernan hasita–; 11:10ean, 11 eta 12 urtekoek –600 metroko lasterketa Azkoaga M.F. farmazian hasita–; 11:20an, 10 urtekoek –400 metroko lasterketa, Kajoi tabernan hasita–; 11:30ean, 9 urtekoek –400 metroko lasterketa, Kajoi tabernan hasita–; 11:40an, 8 urtekoek –175 metroko lasterketa, Azkoaga M.F. farmazian hasita–;



Korrikalari bat, 2015ean. IMANOL SORIANO

11:50ean, 7 urtekoek –175 metroko lasterketa, Azkoaga M.F. farmazian hasita–; eta eguerdiko hamabietan, 5 eta 6 urtekoek –100 metroko lasterketa, Kajoi tabernan hasita. Fernando Zufiria antolakuntzako kidearen

esanetan, haurren lasterketa horiek giroa alaitzen laguntzen dute. "Neska-mutiko askok hartzen dute parte eta hori oso pozgarria da guretzat", azaldu du.

Horren ostean, 12:30ean, kuadrillen arteko lasterketari emango zaio hasiera. 5,8 kilometro egin beharko dituzte lasterkariak, herriko kaleetan. Ibilbideari dagokionez, azken urteetakoa izango da, eta ibilbide horri lau itzuli eman beharko dizkiote parte-hartzaileak.

Izen-ematea: bost euro

Egunean bertan eman beharko da izena, lasterketaren aurretik, eta bost euro ordaindu beharko dira. Iaz 270 parte-hartzaile inguru izan ziren, eta, Zufiriaren esanetan, aurten 300era heltzea da asmoa. "Urtetik urtera lasterkari kopurua haziz doa eta aurtengoan 300era heltzeak ilusioa egingo liguke", azpimarratu du antolakuntzako kideak.

"Eguraldiak laguntzen badu, paisaia ederrak ikusiko ditugu"

SERGIO SERRANO BESAIDE ELKARTEKO KIDEA

Arrasate Bira mendi ibilaldia antolatu dute, lehenengoz

E.A. ARRASATE

Jose Maria Arizmendiarieta plazatik abiatuko da –lehenengo Laubide– domekan, 08:00etan.

Arrasateri Bira izeneko mendi ibilaldia egingo duzue domekan. Zer da, zehazki?

Arrasate inguruan egingo dugun ibilaldi bat izango da, gure mundu txikia ezagutzeko aukera emango diguna. Mendizaleen programetan begira, ikusi genuen zenbait herririk halako birak egiten dituztela. Eibarren, adibidez, herria inguratzen duen ibilbidea egiten da urtero, eta, hori oinarritzat hartuta, Arrasaten gauza bera egitea erabaki dugu.

Nondik nora ibiliko zarete?

Jose Maria Arizmendiarieta plazatik abiatu, eta hainbat tokitatik pasako gara: Kurtzetxiki, inguruetako zenbait baso, San Cristobal, Meatzerreka, Udala, Uribe eta Garagartza auzoak...

Lau ibilbide egongo dira, ezta?

Hori da. Helburua herrikoia izatea da; beraz, ez da eskatzen federatuta egotea, ezta izen ematea ere. Aukera ezberdinak eskaini behar genituela garbi genuen, eta lau ibilbide osatu ditugu: motzena ume txikiekin doazen familiei zuzendutakoa



Sergio Serrano. S.S.

izango da, Kurtzetxikira igo eta ospitaleraino, 7,1 kilometro. Bigarren ibilbideak 12 kilometro izango ditu, hirugarrenak eta 15,4 kilometro eta bira osoak 18,8 kilometro.

Nola animatuko zenituzke herritarrik ibilaldian parte hartzera?

Giro polita sortuko da denon artean, eta, eguraldiak laguntzen badu, paisaia ederrak ikusiko ditugu; batez ere, Kurtzetxikitik. Udala auzoa ere oso polita da, nahiz eta askorentzat ezezaguna izan. Goiz ederra pasatzeko aukera bikaina izango da.

MERKATARI

Gabon hauetan erabil ezazu 'Merkatari' aplikazioa

Bila itzazu eskaintza bereziak,
**Resustan, Joslen, Ingoun,
Milar Elkoron, Feli Dendan...**

Goiinak eta ISEAk Arrasateko Udalararen laguntzarekin merkataritza lokala laguntzeko abian jarri duten app berria da Merkatarik.

*Merkatarik
gabon zoriontsuak
opa digkizue.*

"Nahiago dut antzerkia egitea grabatzea baino"

ASIER BURGUETE 'GO!AZEN' TELESAILKO MARKEL

Abenduan estreinatu dute herriz herriko antzerki bira berria, eta zapatuan geldialdia egingo dute Arrasaten. Hitzordua Amaia Udal Antzokian da, 17:00etan



Asier Burguete Markelen azalean sartzen da Go!azen telesailan. GLU GLU PRODUKZIOAK

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gazteen artean arrakasta nabaria izaten ari da ETB1eko telesaila, eta Arrasateko gaztetxoek euren aktore kutunak gertu-gertutik ikusteko aukera izango dute. Hona hemen biharko saioari buruz Asier Burguete aktoreak aurreratu duena.

Zer aurkituko dute bihar ikuskizuna ikustera doazenek?

Ostiraleroko ETB1en ikusten ari garen telesailaren laburpen antzerako bat ikusi ahaliko dute arrasatearrek, musikal formatuan. Zer ikusiko duten? Bada, Gariren eta Eliren arteko amodio istorioak, Julen eta Naia, Zuzen hor ibiliko da, eta Markel ere bertan izango da, bere ohiko bihurrikeriak egiten.

Zure kasuan, non gozatzen duzu gehiago, grabazioak egiten ala zaleen aurrean antzeztzen?

Nik neuk nahiago dut zaleen aurreko antzezpene; batez ere, euren erreakzioak ikusteko aukera daukadalako. Dibertigarriagoa da. Telesailan, plano ezberdinak egiteko errepikapen asko egin behar izaten ditugu, eta, niretzako, zuzeneko hauek errazagoak dira. Adibidez, antzezlekuetara heltzen garenean, eserleku guztiak hutsik daude. Baina saioa egitera irteten zarenean, eta aulki guztiak jendez

gainezka ikusten dituzunean, oso sentazio atsegina da, eta motibazio puntu bat ematen dizu, grabazioek ematen ez dituzena.

Noiz hasi zineten bira berri honekin?

Abenduaren 3an estreinatu genuen, Azpeitian, eta oso ondo funtzionatzen dabil.

Go!azen izaten ari den arrakasta agerikoa da. Zein da, zure ustez, telesailaren gakoa gazteekin hain ondo konektatzeko?

Nire ustez, gako nagusia da Euskal Herrian gaztetxoentzat ez dagoela telesailik, ezta antzerki nahikorik. Ez daukate aukeratzeko gaitasun handirik. Helduentzako, aldiz, eskaintza zabala dago, bai telesailetan eta baita antzerkiei dagokienez ere. Baina, gazteek dituzten aukera gutxi horien artean, euskarazkoak askoz gutxiago dira; beraz, hutsune betetzera etorri da Go!azen, eta hemen jarraitzeko gogoz gaude.

Arrakasta aipatuta, horren adibide garbia da ez dela jada sarerrerik geratzen. Zein mezu helarazi nahi diezu antzerkia ikustera joango direnei?

Esan nahiko nieke oso ondo pasatuko dutela, barre asko egingo dutela, eta denbora gutxian dantzatzen eta abesten egongo direla.

Komiki solasaldia Eider Rodriguezekin eta Julen Ribasekin

Marraskilari eta komikigileak elkarlanean egindako obra berria dute kalean: *Santa Familia* komiki sorta. Lan berria Xabiroi aldizkariaren ekimenez egin dute, eta horri buruzko xehetasunak emateko komiki solasaldia egingo dute astelehen, Kulturaren 19:00etan (ikus PUNTUA aldizkariako kultura atala.)

Lendakaris Muertos taldearen zuzeneko zoroa ostegunean

Kooltur Ostegunen urteko azken bigarren saioa izango da punk talde nafarrak eskainiko duena. *Podrán cortar la droga pero no la primavera* azken lana aurkeztera datoz, baina betiko klasikoak ez dira falta. Abenduaren 23an etxeko zaleen aurrean joko dute, Iruñean, eta ostean Kanariar uharteetan.

Arrasaten bizi, herrian erosi!

Abendua 2017

16 **Ume eta gazteentzako animazioa**
11:30-13:00 16:00-20:00 Biteri plazan

21-22-23 **TXU TXU TRENA Arrasateko kaleetan**
21-22 > 17:00-20:00 23 > 11:00-14:00 17:00-20:00 Zerrajerako erlojutik abiatuta

01etik 22ra **Gabonetako 100 otzaren zozketa**
Arrasate txartelarekin egin erostetarik
Zozketa 23an 14:00 Herriko plazan

Gabonetan **Erregeetako loteria banatuko da**
IBAI-ARTEko bazkideen artean erosteta unean

DOAN

"Lehen neraman bizitza guztiz ahaztuta daukat"

MAIDER UNDA BORROKALARI OHIA

Urte osoan egiten aritu diren olinpiadei bukaera emateko, omenaldia egingo diote gaur aramaioarrari, 19:00etan, kiroldegian, eta borroka erakustaldi bat egongo da

Eneko Azurmendi ARAMAIO

2016ko azaroan esan zion agur eliteko kirolari Maider Undak (Oleta, 1977), eta orain, Aramaio-ko Udalak omenaldia egingo dio, bere ibilbide profesionalaren aitortza modura. Herriko kiroldegia haren izena izango du aurrerantzean, udalbatzak aho batez onartu ostean.

Urtebete da borroka utzi zenuela. Nola doa zure egunerokoa orain?

Lehen neraman bizitza erabat ahaztuta daukat. Orain, beste dinamika batean murgilduta nabil, guztiz desberdina dena. **Faltan igartzen duzu lehengo bizi-modua?**

Gauza batzuk bai. Adibidez, lehen, deskonektatzeko denbora har nezakeen. Orain, ia ezin dut deskonektatu lanetik.

Lehengo presioa alde batera utzita?

Nik ez dut sekula presio hori sentitu. Neure burua asetzeko egiten nuen kirola, ez besteentzako. Beste dinamika bat eramaten nuen, eta ez nintzen kontziente halako pisua neukanik gainean.

Zure etxeko negozioarekin gustura?

Bai. Artalde bat daukagu, eta, artalde zaintzeaz gain, esnea batu eta gazta egiten dugu, ondoren saltzeko. Bestalde, bisita gidatuak eskaintzen ditugu etxean, gazta baten atzean dagoen lana zein den ezagutarazteko, eta horrek ere bete egiten nau. Lan asko izaten dugu, batzuetan gainezka ere ibiltzen gara, baina denboraldi amaieran, emaitzak ateratzen direnean, sentitzen dugun poza handia da.

Borroka erabat utzita duzu?

Ez. Borrokako eskolak ematen ditut Otxandion, astean behin, eta Gasteizera ere joaten naiz noizean behin eskolak ematera. Otxandion bi talde ditugu, 5 eta 9 urteko haurrekin. Ni txikienekin aritzen naiz –hamabost ume– eta Koikili Lertxundi nagusienekin egoten da –hamabi ume–.



Maider Unda, etxe atarian. **ENEKO AZURMENDI**

"ARAMAIOKO UDALAK KIROLARI EMATEN DION GARRANTZIA ADIERAZTEN DUTE OLINPIADEK"

Jarraitzen duzu gaur egungo borroka libre nola doan?

Bai, internet bidez aukera dut eta jarraitzen dut. Gainera, Espainiako Federazioko zuzendaritza batzordean nago, eta horrek era behartzen nau jarraitzera.

Eliteko kirolean erreferente bilakatu zara. Nabaritu duzu zuk hori?

Jabetu naiz, baina nire ibilbidearen bukaeran, azken urteetan. Esan dudan moduan, kirola nire buruarendako egin izan dut, eta ez komunikabideek ni jarraitzeko. Jakina, nire lanak emaitzak eman ditu eta guztia lotuta doa. Jende askok zoriondu izan nau, eta hori asko eskertzen dut.

Aramaioko herrian, jaso dituzu zorion eta maitasun keinu horiek?

Aspaldidanik naiz herriko alaba kutuna; beraz... Gainera, gertutik ezagutzen nauen jendeak badaki zenbat lan dagoen goi mailako kirolari baten atzean,

eta haien babesak sentitu izan dut beti. Ezin naiz kexatu.

Omenaldi bat ere egingo dizute, urte osoan zehar egiten aritu diren olinpiadei amaiera emanaz.

Hala da, eta niri egindako aitortzaz gain, Aramaio-ko Udalak kirolari ematen dion garrantzia adierazten du horrek. Hori inportantea da, datozen belaunaldiak kirola oinarritzat har dezaten, eta egunerokoan kirolak duen garrantziaz ohar daitezen.

Borroka erakustaldi bat ere eskainiko duzue kiroldegian.

Hori da. Arabako Federazioak antolatu du, eta helburua da gure ikasleek –Otxandiokoak eta Gasteizkoak– parte hartzeko aukera izan dezaten. Eliteko borrokalariak etorriko dira eta umeek, parte hartzeaz gain, aukera izango dute lehia bat ikusteko, ez dute eta inoiz ikusi. Niri ere parte hartzea tokatuko zait, seguruenik.

Aurrera begira, ze asmo dituzu?

Baserriarekin, ez dago epe luze berriz egiten, egunerokoan zentratuta nago. Borroka klaseak ematen ere jarraituko dut, eta behar ditugun azpiegiturak –leku egoki bat, koltxonetak...– lortzeko ahaleginean ere bai.

Kontsultatzeko moduan dago udal bideen inbentarioa

Aramaio-ko udal bideen inbentarioaren lehen fasea eguaztenean argitaratu da ALHAOn (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala). Beraz, fase honetan jaso diren bideen inbentarioa kontsultatzeko interesa duen edonork horretarako aukera izango du ondorengo 30 eguneko epean, baita alegazioak aurkezteko ere.

Fernando Gomez medikuaren hitzaldia, martitzenean

Burmuin abdominala, gure bigarren burmuina izeneko hitzaldia eskainiko du Fernando Gomez medikuak datorren martitzenean –hilak 19– kultura etxean, 18:30ean. Heste meharra eta lodia gorputzeko bigarren burmuina dela azalduko du medikuak hitzaldian, besteak beste. Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatutako saioa izango da.

Aitor Ugartek irabazi du 2017ko Bertxoko sariaketa

Gasteizko Hala Bedi tabernan jokatu zen finala, abenduaren 1ean, eta bertsolari hauek izan ziren oholtza gainean: Xabier Antia, Aitor Ugarte, Asier Rubio eta Unai Anda. Gai-jartzaileak Peio Ormazabal eta Maddi Sarasua izan ziren. Aitor Ugarte eta Unai Anda pasatu ziren buruz burukora, eta aramaioarra nagusitu zen.

Umerez beterik banatuko dituzte Ginkanako sariak

Bihar, zapatua, egingo dute Euskal Ginkanako sari banaketa, kultura etxean, 19:30ean. Sari banaketaren ostean, *Irri par txou* umorezko antzezlan eskainiko dute Jose Cruz Gurrutxaga eta Ion Martinez *Txiki* aktoreek. Ginkanako sarituen izenak –haurretan zein helduetan– *Goiena.eus* webgunean daude ikusgai.



1,2,3,4...

Gaur egun, edozein ikasgai ikasteko orduan ezinbestekoak diren oinarriko kontzeptuak askotan albo batera uzten ditugu, eta praktikotasunaren izenean, ikasgaia abiadura bizian gureganatzeari ekiten diogu, nahiz eta honela bere zentzuari buruzko hausnarketa galdu.

Matematiketan, adibidez, zenbakiak eta kalkuluak berehala ikasten ditugu; batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta beste buruketa konplexuago batzuk gauzatzeko abilezia garatuz, baina, gehienetan, matematikaren beraren zergatiari eta jatorriari erreparatu gabe.

Musika ikasteen ere, abestiak jotzen eta interpretatzen ikasten dugu, baina esango nuke ez dela musika bera ikasten, ez baita filosofikoki eta estetikoki lantzen.

Argi dago denok osatzen dugun gizarte honetan abiadura handiz bizi garela, eta ikasterako orduan ere azkartasuna baloratzen dugula, baina ondo etorriko litzaiguke ikasgaien zergatiari eta jatorriari gehiago erreparatuko bagenieke, pentsaera robotikoak gogoeta filosofikoetara hurbilduz.

Bizente Goikoetxea abesbatzaren kontzertua domekan

Gabonetako kontzertua eskainiko du etzi –domeka– Bizente Goikoetxea abesbatzak, 12:30ean, elizan. Bestalde, Elai abesbatzak ere emanaldia eskainiko du Arrasaten. Bihar –zapatua– izango da hori, 20:00etan, San Juan Bataiatzailea parrokiari. *Zapata txuriak* edota *Nunca suenan las campanas* izango dira abestuko dituzten kantuetako batzuk.



Iaz egindako Neguko Azokan ekoizlea eta artisaua. IMANOL SORIANO

Gabonak girotzera dator asteburuan Neguko Azoka

Hirugarrenez elkartuko ditu Herriko Plazan jarritako karpak Aretxabaletako merkataria, artisauak eta ekoizleak. Gaur, egubakoitza, egingo duten moda desfilearekin zabaldu, eta bihar eta etzi herritarren esanetara izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Hirugarrenez dator Neguko Azoka aste bukaeran. Karpa jarriko du Udalak, Herriko Plazan, beste behin, eta han elkartuko dira herriko merkataria, artisauak eta ekoizleak. Azokari hasiera emateko, moda desfilea egingo dute gaur, egubakoitza, 18:30ean, Aretxarte merkatarien elkarteko lagunek.

Harrera ona

"Herriko merkataritza eta bertako artisauak eta ekoizleak bultzatzea helburu duen ekimena da, eta aurreko bi urteetan herritarren eta saltzaileen aldetik izan duen harrera kontuan hartuta, aurten ere egitea erabaki da", adierazi dute Kultura Saileko ordezkariak. Goizez eta arratsaldean izango da zabalik

azoka zapatuan (10:30-14:30 eta 17:00-20:30) eta goizez bakarrik, domekan (10:00-14:30). Atzotik jarrita dagoen 300 metro koadroko karparen azpian hartuko dute babes horiek guztiek. Merkataria, ekoizle eta artisauak batera idazleek ere izango dute tokia; herrikoak eta ingurukoak elkartuko dira: Luis Jose Errasti eta Josune Murgioitio,

besteak beste. Errasti aretxabaletarrak aurten argitaratu duen *Altruista* eleberria eskainiko die gerturatzen direnei, eta Murgioitio arrasatearrak *Colores prohibidos* liburuaren berri emango die.

Moda desfilea gaur

Iaz legez, moda desfilearekin zabalduko dituzte karpako ateak gaur (18:30). Jaiki elkarteko dantzariak emango diote hasiera ekitaldiari, eta ondoren, Aretxarteko hainbat dendatako produktuak eta ekoizpenak erakutsiko dituzte herriko modeloei. Hona hemen parte hartuko dutenak: Belar Meta; Kilima; Tak! zapata denda; Haurrak; Lie; Gemes; eta L-10 ile-apaindegia. UDAko ordezkariak, gainera, hirugarren ekipamendua aurkeztuko dute, bihar eta etzi Neguko Azokan salgai izango dutena. Kamiseta solidarioa izango da hori, Aspanogi, Gipuzkoako haur minbizidunen gurasoen elkartearendako dirua batzeko, hain zuzen. Musikaz girotutako desfilea Jaikikoek itxiko dute.

Eguaztena arteko ekitaldiak

Karpak beste ekitaldi batzuk ere hartuko ditu datorren astean. Astelehenean, bideo jokoetan jolas egin ahal izango dute gaztetxoek. Martitzenean Gabonetako kontzertua eskainiko dute Leizarra musika eskolako ikasleek (18:00). Eta eguaztenean (19:00), dantza garaikide erakustaldia izango da Jaiki elkarteak antolatuta. InPut konpainiak, Natalia G. Muro eta Aiala Etxegarai bikoteak, eskainiko dute lehenengo saioa, eta Arantza Iglesias Arbizu dantzariak bigarrena. Debalde izango dira ekitaldiok eta herritar guztiak gonbidatu dituzte horietara.

Neguko Azokako postuak

Hoge postutik gora elkartuko dira Herriko Plazan jarritako karparen azpian zapatuan (10:30-14:30 eta 17:00-20:30) eta domekan (10:00-14:30).

Merkataria

- Belar Meta
- Tinta Beltza
- Lie
- Kilima
- Atai
- Gertu

Ekoizleak

- Etxe Zuri
- Jakion
- Mendibitzu

Artisauak

- Gu Haziak Gara
- Miriam Carretero
- Izaro Sanchez
- Nerea Maskariano
- Iban Urreta
- Ibai Mujika
- Itsaso Aldai
- Nere Uribetxebarria
- Okila
- Selcuk Mari Luz

Beste batzuk

- UDA

Idazleak

- Luis Jose Errasti
- Josune Murgioitio

Orly tabernak ere izango du postua, eta jatekoa eta edatekoa eskainiko ditu.

90 urtekoei omenaldia

Basotxo erretiratuen elkarteak 90 urteko hamahiru bazkide omendu zituen eguaztenean, Santa Luzia egunez. Unai Elkoro alkateak egin zien harrera horiei, eta dantzariak ongietorria. Elkarteko kantu taldeak hainbat abesti eskaini zizkien, eta ondoren, opariak jaso zituzten. Jendez lepo egon zen ekitaldia txokolate beroa hartuta bukatu zuten.



MIRARI ALTUBE

Patinaje ikastaroa eta puzgarriak izango dira kiroldegian

Gabon egunetarako hainbat jardura antolatu dituzte Ibarra kiroldegian. Batetik, familia giroan patinatzeiko aukera izango da abenduaren 27an (10:30-12:30), eta bestetik, puzgarrietan jolasean jardungo dute neska-mutikoek hilaren 28an (10:00-13:00). Patinatzeiko, aurretik izena eman beharra dago; azken eguna hilaren 22a da.

Jou Díaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

'Sugegorriak' antzezlanak ikasleen eskutik

'Karmele Igartua' sorkuntza bekari esker Alaitz Olaizola azpeitiarrak idatzitako lana taularatuko dute Kurtzebarri eskolako bosgarren mailako neska-mutikoei datorren astelehen, martitzen eta eguaztenean Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleek *Sugegorriak* antzezlan eskainiko diete senideei, eskolako kideei eta herritarrei. Abenduaren 18an, 19an eta 20an saio bana egingo dute Arkupeko Zeraia aretoan (18:00).

Mimoz gertatua

Karmele Igartua sorkuntza bekaren 2016ko lan irabazlea taularatuko dute: Alaitz Olaizola azpeitiarrak idatzitako eskola antzerkia, hain zuzen ere. Iurgi Etxebarria aretxabaletarra, Apropox Sormen Iturriko gidaria, dabil lantzen ikasleekin: "Zazpigarren urtez nabil lanean eurekin. Beti taularatzen dugu antzezlan bat eskolak bukatutakoan, eta aurten, *Sugegorriak* izatea eskatu digu Udalak", dio, eta onartu du berezia izaten dabilela: "Batetik, Karmele Igartua idazle aretxabaletarra, eskolako irakaslea, oso gogoan dugulako, eta bestetik, lehenengoz Arkupen eskainiko dugulako gure emanaldia. Hortaz, bai ikasleen, bai horren bueltan lanean gabiltzanon ilusioa eta gogoia handiagoa da".

Etxebarriak onartu du gogor egin behar izan dutela lan ohi baino denbora laburragoa izan dutelako gertatzeko: "Irailean hasi ginen lanean eta hamabost aste eskas izan ditugu. Dena den, gogotsu jardun dugu, eta erabat gertu izango dugu datorren asterako".

Ikasleen sorkuntza lana

Sugegorriak lanak kondaira baten berri jaso du. "Gaztetxo batzuk baserrira joango dira belzar-mozte lanak egitera, eta han daudela, mundu miragarri batean barneratuko dira; mundu horretatik sartu-irtenean ibiliko dira", azaldu du.

Ikasleek antzezlan horrekin jardun dute lanean, testuak



Antzezlanean parte hartuko duten hainbat ikasle. IURGI ETXEBARRIA

IKASLEEN SORMENA LANDU GURA IZAN DUTE ETA ISTORIOARI EUTSITA MOLDATU EGIN DUTE LANA

ikasten eta interpretatzen, baina moldaketa batzuk ere egin dizkiote: "Ikasleen sormena landu gura izan dugu, eta hala, lana geure egin. Gainera, protagonistak oso protagonistak izan behar ziren eta gela bakoitzean hogeik ikasle inguru direnez, asko ziren oso gutxi azaltzekoak; horregatik, protagonismoa banatzea pentsatu genuen, eta gehiago azalduko diren pertsonaiak izango dira", eta gaineratu du: "Bosgarren mailan hiru talde daude eta talde bakoitzak bere erara moldatu du; istorioaren muina eta ildoak berbera da, baina bigarren mailako papera duten pertsonaiek euren istoriotxoak garatu dute". Apropox Sormen Iturriko gidariak onartu du horrek lan handiagoa eskatu diela guztiei, baina, era berean, gehiago ase-bete dituztela.

Saioak hiru egunetan

Datorren asteko lehen hiru egunetan izango dira saioak. Goizean entseguak egingo dituzte, eta arratsaldean bi saio; lehenengoa, senideendako eta eskolako kideendako, eta bigarrena, herritarrendako (18:00). "Ikasleak urduri daude, baina ilusi handiarekin ere bai. Izan ere, eurganatu egin dutenez lana, oso barruan bizi dute".

2017ko bekaren irabazlea

Karmele Igartua sorkuntza bekaren VII. edizioa urrian aurkeztu zuten eta aurten film labur baterako gidaria egin beharko da, izan fikziozkoa edo dokumentala. Lanak aurkezteko epea orain dela hilabete bukatu zen eta hogeik lanetik gora jaso dituztelako pozik agertu da Joxe Migel Uribarren, Kultura Sailako zinegotzia. Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du, eta erakunde horretako ordezkariak eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko dutela jakinarazi dute. Sari banaketa ekitaldia, oster, abenduaren 30ean egingo dute (12:00) Arkupe kultura etxean.



Kurtzebarri eskolako ikasleak alkatearekin elkartuta abenduaren 5ean. ARAZI

Klima aldaketari buruz jardun dute ikasleek alkatearekin

Orain dela hilabete batzuk egindako proposamenen erantzunak jaso dituzte Kurtzebarri eskolako gaztetxoek

M.A. ARETXABALETA

Klima aldaketa izan zuten lanerako gai iazko ikasturtean Kurtzebarri eskolako eta institutuko ikasleek Eskola Agenda 21 barruan, eta herriaren egoera hobetzeko proposamenak egin zizkieten udalbatzako kideei orain dela hilabete batzuk. Abenduaren 5ean proposamen horien jarraipen-bilera egin zuten Unai Elkoro alkatearekin. Proposamen bakoitzari erantzuna emateaz gain, ikasleekin solasean jardun zuen alkateak. Galderak egiteko aukera ere izan zuten Lehen Hezkuntzako

eta Bigarren Hezkuntzako gaztetxoek.

Aurten ura eta ibaia izango dituzte aztergai, baliabide horren erabilera arduratsua sustatzeko. "Zein da urak jarraitzen duen bidea gure herrian? Zenbat litro behar ditugu egunero? Besteak beste galdera horiei erantzunez, uraren egoera bertatik bertara ezagutu eta iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko urratsak emango dituzte gazteek", diote antolatzaileek. Maiatzera arte jardungo dute lanean, eta emailtzak osoko bilkura berezian aurkeztuko dituzte orduan.

Begiraleak gura dituzte Gabonetako parkean lan egiteko

Urtarrilaren 3an eta 4an Ibarra kiroldetegiaren jarriko duten Gabonetako parkean egoteko begiraleak gura ditu Udalak. Eskararak aurkezteko azken eguna abenduaren 19a da eta honako helbide honetara bidali behar dira curriculumak: gazteria@aretxabaleta.eus.

Ezinbesteko baldintza bi bete behar dituzte: 18 urte beteta izatea eta euskaraz ondo jakitea. Eta baloratuko dituzte: ikasleak; begirale titulua; Gabonetako parkean esperientzia; Aretxabaletako udaleku irekietan esperientzia; udaleku itxiak; eta EGA titulua. Gainera, Aretxabaletako gazteek lehentasuna izango dutela iragarri dute.

OHARRAK

Dantza erakustaldia

Jaiki elkarteak antolatuta, dantza emanaldia izango da abenduaren 20an, Herriko Plazan (19:00). InPut konpainiaren saioa izango da lehenengo, eta ondoren, Arantza Iglesias Arbizurena.

Gabon kontzertua

Gabonetako emanaldia eskainiko dute musika eskolako ikasleek, martitzenean (18:00), Herriko Plazako karpan.

Antzerkia

Zurrunka taldeak itzalekin egindako lana, *Iraungorriko Marimiri*, eskainiko die umeei bihar, Arkupen (11:30).

"Itsasoa oso gertuan bizi dugu hemen ere"

IDOIA ELEXPURU ETA ENRIQUE IGLESIAS MARGOLARIAK

Kantauri itsasoko paisaiak jasotzen dituzten koadroak jarri dituzte ikusgai Arkupeko erakusketa aretoan; aurkezpen ekitaldia egingo dute gaur, 20:00etan

Mirari Altube ARETXABALETAK

Kantauri itsasuen pintura era-kusketa jarri dute Idoia Elexpuru Ugarte (Aretxabaleta, 1969) eta Enrique Iglesias Eraña (Eskoriatza, 1958) margolariek Arkupeko erakusketa aretoan. Itsasoa protagonista duten lanak aurkezteko ekitalditxoak egubakoitzean egingo dute, 20:00etan, baina lanak -21 guztira- abendu osoan izango dira ikusgai.

Ibilbide ezberdinak izan dituzuen bi lagun elkartu zarete...

Enrique Iglesias: Beti izan dut gustuko margotzea, baina orain dela zazpi urte hasi nintzen, erretiratu ostean. Lehenengo, Eskoriatzan jardun nuen, eta azken hiru urteetan Bergaran nabil Idoiarekin batera, oso gustura ibili ere, Juanjo Altuna Akizu irakaslearekin ikasten eta talde giro ederrean.

Idoia Elexpuru: Nik urte asko daramatzat lanean eta hainbat etapa izan ditut; sasoi batzuetan, gehiago margotu izan dut eta beste batzuetan, gutxiago. Aspalditxoan, oso gustura nabil, beti margotzeko gogotsu, eta datorren urtetik aurrera oraindik eta gehiago gurako nuke. Giro ederra dugu, gainera, Bergarako eskolan, eta oso pozik gabilta biok, ikasteko gogoz.

Eboluzio bat izango zuten zuen lanek, ezta?

E.I.: Izugarria. Bergaran hasi nintzenetik asko aldatu da nire margotzeko era, nahiz eta oraindik eskua guztiz hartu gabe izan, poliki-poliki noa... Hori bai, oso gustura nabil eta ez dut inora heltzeko aparteko anbizioirik.

I.E.: Egindako lanarekin gustura, pozik, geratzea da nire helburua. Abstrakturantz jo nahi-ko nuke, eta gorpuzak eskatu ahala horrantz egingo dut, baina, oraingoz, figuratiboarekin gustura nago, figuratibo gero eta askeagoarekin.

Itsasoa urrutitxo dago Debagoienetik...



Idoia Elexpuru eta Enrique Iglesias, Arkupeko erakusketa aretoan. MIRARI ALTUBE

"MARGOLARIEN LANA EZ DA LEHEN BESTE BALORATZEN, ETA KRISIA ERE BADAGO HORREN ATZEAN"

E.I.: Zumaian bizi naiz orain, eta itsasoa oso gustuko dut. Dena den, margolan guztietako paisaiak ez dira Zumaiakoak, badaude Getxoko kostaldekoak, Zarauzkoa, Donostiakoa...

I.E.: Kantauri itsasoa 35 minutura dago hemendik, eta itsasoa gertu bizi dugu guk ere. Era-kusketa osoa dinamika berberaren bueltan antolatuta egotea politagoa delakoan nago, eta, horregatik, gai bakarria hartu dugu ardatz. Aroa txukun geratu dela uste dut, beste apaingarri batzuk ere sartuta.

Erakusketak besteei erakustea esan nahi du; ikusleen iritzirik jaso duzue?

E.I.: Idoiak animatu nau. Nire lehenengo erakusketa da eta badirudi jendeari gustatu egin zaizkiola nire lanak; hori esan didate, behintzat. Dena den, nik neuk gustuko dut egindakoa, eta hori da garrantzitsua.


I.E.: Hangoek eta hemengoek esandako zerbait, zipriztin batzuk, iritsi zaizkit, baina oraindik jende askok ez nau ezagutzen margolari moduan. Asko harritu ere egiten dira eta galdetu izan didate: "Zeureak dira?"

Joan den astetik dago zabalik erakusketa, baina irekiera ekitaldia egiteko duzue oraindik, ezta?

I.E.: Bai; egubakoitz honetan egingo dugu jendaurreko aurkezpena, 20:00 aldera, mokadutxo baten bueltan. Herriar guztiei dago zabalik ekitaldia, eta interesa duzuenok, gerturatu lasai.

Ez da, beharbada, garairik onena margolariendako...

I.E.: Asko jaitsi da, ez da lehen beste baloratzen gure lana; krisiaren eragina ere badago atzean. Etxeko hormetan, gainera, denetik dugu, baina koadroek ere izan dezakete lekua; asko bete gabe, koadro on bat oso dotorea da. Arteak garestia dela uste izan da, eta askotan hala da, baina ez dut uste gure kasuan hala denik. Baten batek interesa izanez gero, gertura dadila guregana; oraingoz, bi ditut salduta. Beste lan batzuk egiteko enkar-guak hartzeko ere gertu gaude.



Jon Sanchez Herrasti lanean Kaia Studios enpresan. JON SANCHEZ

Bideo jokoan gaineko ikastaroa egingo du Jon Sanchez adituak

Kaia Studios enpresako aretxabaletarrak joko bat zelan sortu azalduko du bihar, zapatua, Arkupen (11:30)

M.A. ARETXABALETAK

Estatuko bideo joko onenen artean -Play Station plataforma-rako- dagoen *Dynasty Feud*-en sortzaileetako bat da Jon Sanchez Herrasti -Kaia Studios- eta bihar, zapatua, bideo joko bat egiteko prozesuaren nondik norakoak azalduko ditu Arkupen. Bideo joko txiki bat egiteko aukera ere izango dute ikastarora doazenek: "*Unity* bideo joko motorra nola erabiltzen den landuko dugu, eta honekin proiektu bat nola garatzen den ikasi", jakinarazi du Sanchezek, eta gaineratu: "Helburu nagusia bideo

joko bat garatzeko prozesua ulertzea da, eta horiek sortzeko jakin beharreko arloen berri emango dut; hau da, diseinua, programazioa eta artea". Bi orduko saioa izango da, eta lanerako ordenagailua norberak eroatea gomendatu dute antolatzaileek, Kultura Saileko kideek.

Bideo jokoan gainean hau dio Sanchezek: "Jaiotzatik jolasean gabiltzanak gero eta gehiago garenez, gero eta joko gehiago daude. Gainera, telefono mugikorrek aukera erabat zabaldu dute; orain, edozeinek dauka jolasteko gailu bat poltsikoan".



ASIER ATXA

Murrukixoren egutegia, banatuta

Asier Atxa aretxabaletarrak egindako argazkiarekin osatu du 2018ko egutegia Murrukixo mendizale elkarteak eta dagoeneko banatu die bazkideei. Gainera, bazkide egin edo federatu gura dutenek edo federatze aukeretan aldaketaren bat egin, gaur, abenduak 15, dute azken eguna. Hona bideak: 943 79 93 74 eta murrukixo@outlook.com.



Zurrumurrurik ez! egitasmoaren barruan herritarrek egin zuten lehen saioan batutako taldeetako bat, Ibarraundin. IMANOL BELOKI

'Zurrumurrurik ez!' egitasmoa, borobilduta

Azaroan jarri zuten martxan 'Zurrumurrurik ez!' egitasmoa, eta hainbat ekintza egin dira ordutik. Tailerrak eta dokumentalen proiektzioak izan dira, eta atzo, gizarte zerbitzuetako teknikarien eta Maite Peña Foru Aldundiko diputatuaren hitzaldiak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzan bizikidetza hobetzeko helburuarekin gauzatu den *Zurrumurrurik ez!* egitasmoari atzo eman zioten amaiera. Egitasmoa azaroaren 8an hasi zen, eta hainbat ekintza izan ditu ordutik atzora arte: herritarren arteko lan-saioak, dokumentalen proiektzioak eta atzoko bi hitzaldiak.

Lehenengo tailerrean, hiru taldetan banatuta, generoa, gazteak eta guraso/hezuntza multzoetan, hausnarketa eta eztabaida egin zuten, Murgibe Berdintasun Aholkularitzakoek gidatuta. Hausnarketa eta eztabaida talde bat sortu zuten lehen saioan, gehien barneratuta ditugun zurrumurruen gainean hitz egiteko, eta horiek apurtzeko helburuarekin. Askotan aurreiritziak nahi gabe sustatzen ditugula adierazi zuten bertan, eta egoera hori aldatzearen inguruan hausnartu zuten.

Bigarren saioan, berriz, manifestu bateratu bat idatzi zuten

herritarrekin partekatuzko, eta, horrez gain, *Sitio distinto* eta *The Basque Hotel* dokumentalen proiektzioak izan dira Zaldibar antzokian.

Laguntza sozialen informazioa

Atzo, Ibarraundin egindako hitzaldian, bestalde, gizarte zerbitzuetako udal teknikariek Eskoriatzan dauden migrazio datuei eta laguntzei buruzko informazioa eskaini zuten.

Diru laguntzak nola ematen diren azaldu zuten, zeintzuk diren legeak eta diru laguntzen definizio eta bete beharreko baldintzak, besteak beste. Gainera, diru sarrerak bermatzeko errentak (DBE) eta diru laguntzek izan duten eboluzioa ere

HERRIKO BIZIKIDETZA HOBETZEKO EGITASMOA ARRAKASTATSUA IZAN DA

aipatu zuten, hainbat datu emenez. Ondorio gisa, gizarte zerbitzuko teknikariek emandako eta aurreko lan-saioetan ateratako informazioarekin, zurrumurruen gaineko beste ikuspegi bat jaso zuten hara bertaratu zirenek.

Maite Peña, Eskoriatzan

Teknikarien hitzaldiaren ostean, Gipuzkoan dagoen gizarte politikari buruzko hitzaldia eskaini zuen Maite Peñak, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatuak. Adinekoen gaineko hainbat datu eman zituen: Eskoriatzan, 65 urte edo gehiago dituztenak 825 direla (%20,22), egoitzan edo adineko eguneko zentroan dauden itxarote zerrendaz mintzatu zen... Egoitzan konponketak egiteko, aurtengo aurrekontuan eman duten diru laguntza 120.177 eurokoa izan dela adierazi zuen. Hitzaldiez gain, aurreko saioetan, herritarrek bateratutako manifestua aurkezteko aprobetxatu zuten bertaratu zirenek.

Borroka arteetako eta borroka kiroletako ikastaro solidarioa

Ikastaroaz gain, elikagai bilketa egiteko aprobetxatuko dute antolatzaileek, behar handien dutenei laguntzeko

I.B ESKORIATZA

Beste urte batez, borroka arteen ikastaro solidarioa antolatu dute Gu Denon Artean eta Karate Atama Eskoriatza elkarteek. Zapatu honetan Joseba Inurra-tegi pilotalekuan izango da hitzordua, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Sos Refugiados en Red sarearentzako janari bilketa antolatu dute, eta, horrekin batera, borroka arteetako eta borroka kiroletako ikastaroa eskainiko zaie bertaratzten direnei. Hone-la adierazi du Jaione Jauregik, antolatzaileetako batek: "Ez dago izena eman beharrik, eskatzen ditugun elikagaietatik zerbait eramanez ordaintzen da ikastaroa. Hala, herritarrei gonbidapena egin nahi diegu, kausa honetan lagundu eta, bide batez, goiz bikaina pasatzeko borroka arte ezberdinak probatuz".

Elikagai bilketa

Arroza, garbantzuak, babarrun zuriak, azukrea, tomate frijitua, olioia, fruta almibarretan, esne kondentsatua, barazki kontserbak, haurrentzako esnea eta pixoihalak eramateko eskaera egin dute antolatzaileek, horiek direlako gehien behar dituzten produktuak.

Ikastaroan, aukera ezberdinak

Rafa Carriet Karate Atama Eskoriatzako entrenatzaileak gidatuta, eta borroka arte ezberdinetan adituak diren beste hainbat entrenatzaileekin batera, kenkidoa, defentsa pertsonala, judoa, kickboxinga eta kenpoa praktikatzeko aukera izango dute bertaratzten direnek. Informazio gehiagorako, 627 44 21 42 telefonora deitu, edo kenpofulldefense@gmail.com helbidera idatz daiteke.

Gabonetako ekintzetan

Tortolis ludotekako haurrak Gabonetan murgilduta izan dira egunotan. Gabonetako postalak egiten izan dira astean zehar, eta, horrez gain, ludoteka bera apaindu egin dute, bertan batu diren guztien artean.

Horrekin batera, abenduaren 29an, Bilboko PINera joateko dei egin dute. Izena emateko, ludotekara joan beharko da.



NEKANE ATXAGA





Merkatariak, erakusleihoak apaintzen. IMANOL BELOKI

Komertzioak hasiak dira erakusleihoak apaintzen

Gabonei begira urteetan egin den komertzioen erakusleio lehiaketa astelehenean hasiko da. Aurten sortu den Merkataritza Mahaia ekimena bultzatu nahi du, eta, lehiaketaz gain, 'Komertzioen mapa' ere egingo du urtea bukatu aurretik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gabonak gertu, urtero moduan, merkatariei zuzendutako erakusleio lehiaketa jarri du abian Eskoriatzako Udalak. Lehiaketa astelehenean hasiko da, eta urtarilaren 6ra arte, komertzioen erakusleioak apaintuta ikusi dituzte herritarrek.

Erakusleio lehiaketa urtero egin bada ere, aurtengo garrantzi handiagoa eman nahi dio Eskoriatzako Udalak; izan ere, irailean sortutako Merkataritza Mahaia bi ekintza antolatu ditu, eta urtea bukatu aurretik egingo ditu. Batetik, Gabonetako erakusleio lehiaketa, eta bestetik, Eskoriatzako establezimenduak non dauden jakiteko plano bat, *Komertzioen mapa* izenekoa.

Erakusleio lehiaketa, sari bakarra izango da, 300 eurokoa, eta Eskoriatzako merkataritza-establezimendu guztiak aintzat hartuko dira lehiaketan, aurrez izena eman behar izanik gabe. Gutxienez, 2017ko abenduaren 18tik 2018ko urtarilaren 6ra

bitartean (biak barne) erakusketarako prestatuta egon behar dute erakusleioek, eta botoa emateko azken eguna urtarilaren 3a izango da. Bozketa egiten dutenen artean, bestalde, 100 euro zozketatuko dira Eskoriatzako edozein establezimendutan gastatzeko. Sari banaketa eta zozketa, bestalde, urtarilaren 5ean egingo da, 19:30ean, Fernando Eskoriatza plazan, eta irabazlea aukeratzeko, erakusleioaren kalitatearekin batera, kontuan hartuko dira publizitate-mezuaren irudimena, originaltasuna eta eraginkortasuna. Berrerabilitako materiala erabiltzea ere baloratuko da. Epaimahaia, berriz, herriko elkarte bako-

**ERAKUSLEIHO
LEHIKETAKO SARI
NAGUSIA ETA
BAKARRA 300
EUROKOA IZANGO DA**

tzeko kide banak osatuko du. Sariduna aukeratzeko, epaimahaikide bakoitzaren botoak batuko dira, eta horiei herritarren botoak gehituko zaizkie.

Gabonetako egitaraua

Datorren astean, Gabonetako egitaraua etxetik etxe banatuko dute, eta, horrekin batera, *Komertzioen mapa*, turismo mapa, eta erakusleio lehiaketan herritarrek bozkatzeko txantiloia. Horrekin batera, komertzio txikia sustatzeko herriko merkataritza definitzen duten hainbat hitz agertuko dira.

Urtarrilerako plangintza

Erakusleio lehiaketa eta *Komertzioen mapa* ekintzen ostean, urtarilean elkartuko da berriz Merkataritza Mahaia, eta, biler horretan, herriko merkataritza indarberritzeko 2018rako plangintza zehaztuko dute. Hala, Udalak erakusleio lehiaketan parte hartzeko dei egin die herritarrei.



I.B.

Gabonetako argiak piztu dituzte

Abenduaren 5ean piztu zituzten Gabonetako argiak Eskoriatzan. Horretarako, hainbat ekintza gauzatu zituzten Fernando Eskoriatza plazan: Tortolis ludotekak haurrentzako tailerrak egin zituen, txokolate-jana egon zen, musika eskolako kantak, eta argiak pizteaz Merkataritza Mahaia kideak arduratu ziren. Horrez gain, suzko erruberrak jaurti zituzten.



I.B.

Erretiratuen txistor-jana, ederto

Olazar Jubilatu Elkartek txistor-jana antolatu zuen martitzenerako, Eskoriatzako erretiratuendako. Guztira, 500 txistor-pintxo egin zituzten, eta 140 lagun inguru batu ziren kultura etxean eta erretiratuen tabernan, ardo pixka batekin txistor-pintxoak jateko. Giro ederra izan zuten, eta antolatzaileek egindako lana eskertu zuten bertaratu zirenek.

Orixolera mendi irteera egingo dute, San Kristobaldik

Hezkuntza Foroak antolatuta, Orixolera mendi irteera egingo da domekan. Irteera Huzei Unibertsitateko aparkalekutik egingo da, 09:30ean, eta ez da izenik eman behar. Nork bere autoa eraman beharko du joan-etorria egiteko, haurrak ezin izango dira bakarrik joan, eta nork bere bazkaria eraman beharko du.

Sormen tailerra familian izango da zapatuan

Hezkuntza Foroak antolatuta, zapatuan, 17:30ean, sormen tailerra familian egiteko aukera izango da kultura etxean. Ipuin baten oinarrituta, esperimentazio artistikoa egingo dute parte hartzaileek. Marrazteko teknika berriak ikasiko dituzte jolasaren bitartez eta 4 urtetik gorako haurrei eta euren gurasoei zuzendutako tailerra izango da.

Urteko azken saioa Eskoriatzan izango da

Xake Produzekzioen 'Mami Lebrun' antzezlanaren urteko azken emanaldia Eskoriatzan izango da. Domeka honetan, Zaldibar antzokian, 19:00etan. Kepa Errasti aretxabaletarrak, Ane Pikazak eta Ainara Arteagak antzeztuko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

2016ko maiatzean Xake Produzekzioek estreinatutako lana da *Mami Lebrun*. Pertsona maitatu baten heriotzari buruz gogoeta egiten duen lana da, Kepa Errasti aktore aretxabaletarrak idatzitakoa, eta Eskoriatzako emanaldia urteko azkenengoa izango da.

Bikote bat (Egoitz eta Miren) Egoitzen amona Kontxa hil berriaren omenaldia prestatzen ari da. Amonaren etxeko ganbaran aurkitutako eguneroko eta gutun batzuetan oinarrituko dira Kontxak gaztetan Parisko kabaret batean bizi izandakoak kontatzeko.



Mami Lebrun antzezlanaren momentu bat. KEPA ERRASTI

Memoriaren garrantzia

"Heriotzaz jardungo dugu. Maitate dugun pertsona bat hiltzean, horrek barruan sortzen digunaren gainean, eta memoriaren mantentzearen garrantziaz... Gai honen inguruko gogoeta bat da. Printzipioz, helduentzat zuzendutako obra da, baina 11 urte dituen gaztetxo batek ere edeki ulertuko luke. Eskoriatzako saioa urteko azkena izango da, eta estreinatu genuenetik 30. saiora iritsiko gara otsailean eskainiko ditugun azken biekin. Beste lan batekin ere ari gara buru-belarri, *LUR* izenekoarekin,

hain zuzen. Ane da pertsonaia nagusia. Anek *potota* dauka eta mutila da... ez dut gehiago arduratu nahi", adierazi du Kepa Errasti aktoreak.

Errastiren gidoia, oholtzara

2016 Dramaturgia Berriak izeneko lehiaketan parte hartu zuen Kepa Errastik; hark idatzitako gidoia aukeratutako bat izan zen, eta oholtzara eramango da. "Nire lana amaitu da gidoia idaztearekin. Orain, lana egingo duen produktorearen esku geratuko da nork antzeztu...

eta lana; Printzipal antzokian, Victoria Eugenia eta Arriagan eszenaratuko da".

Aretxarteren arrakasta

Atxabaltan be kriston aukeratzarrak daz! Aretxarte 2017 spotak ere arrakasta itzela izan du, eta bertan parte hartu du Errastik. "Pozik hartu dugu izan duen arrakasta. Astebetean 23.000 ikustaldi izatea izugarria izan da. Ez nuen halakorik espero, baina herritarren parte-hartze handiagatik herritik harago zabaldu dela esango nuke...".

Gabonetarako saskibaloi campusa antolatu du Areskok

Urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean Manuel Muñoz kiroldegian, 09:00etatik 14:00etara bitartean

I.B ESKORIATZA

Urtarrilaren 3an, 4an eta 5ean, Areskok antolatutako Gabonetako campusa egingo dute Manuel Muñoz kiroldegian; 2005 eta 2009 urte artean jaiotako jokalarientzako da. Hain zuzen

ere, saskibaloian aritzen diren bitartean, dibertitzeko bost orduko saioak izango dituzte bertaratzen direnek.

Lacturale Art Araski-ren entrenatzaile laguntzaile Julen Fornies-ek zuzenduta, Araskiren

entrenatzaile diren Iñigo Cimiano eta Roberto Bengoa Eskoriatzako saskibaloia entrenatzaileak izango dira campus horren arduradunak. Prezioa 65 euroa da, eta bertara doazenek kamiseta jasoko dute opari, hamaiketako izango dute eta egunero bost orduko entrenamenduak jasoko dituzte.

Izena emateko azken eguna datorren egubakoitza izango da, abenduaren 22a, eta informazioa nahi duenak 666 82 55 56 telefonora dei egin dezake.

LEINTZ GATZAGA



Eskolako haurrak Martzelinaren ortuan barazkiak jasotzen. EIDER ENCINA

Ortua sortu eta marmelada egin dute eskolako haurrek

Urtea amaitzeko, hilabete eta erdi iraun duen proiektuarekin aritu dira Leintz Gatzagako haurrak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako eskolan zortzi ikasle daude, eta urtean zehar ekintza ugari egiten dituzte. Urteari amaiera emateko, berriaz, azken ekintza nagusi moduan, udazkeneko proiektua landu dute.

Hilabete eta erdi iraun du proiektu horrek, eta, hainbat gauza egin badituzte ere, azpimarragarrienak izan dira ortua sortzea eta marmelada egitea.

Produktu bila irteerak

Ortua sortzeko, Martzelina Plazaolaren ortura joan ziren es-

kolako haurrak, eskolako hiru haurren birramonaren ortura, hain zuzen ere. Han, produktu ezberdinak jaso zituzten, eta oiloei jaten emateko ere aprobetxatu zuten goiza, txikien gozamenerako.

Inaxio Gabilondoren Labidea taberna-dendatik ere pasa ziren orturako produktu ezberdinak jasotzera. Batutako barazki guztiak gelan landatu zituzten loreontzi ezberdinetan, eta, ondo zaindu ostean, eta barazkiek indarra hartu ostean, ortura eraman zituzten; hantxe landatu zituzten.



Sagar-marmelada egiten

Barazkiak ortuan sartzeaz gain, marmelada egiten ere ikasi dute Gatzagako haurrek. Sagar-marmelada egin dute. Sagarrak zatitxotan moztu, panifikadoran egosita sartu, azukrearekin eta limoi-urarekin nahastu, eta gailatekin batera jan zuten.



GABONAK 2017

+ SANTAMASAK



**Dekorazioa, norberaren esku
Oparien ilusioa
Mendira joateko ohitura
Santamasak: tradizio zaharren ferria**



gelatzu s.l.

Gabon Zoriontsuak!

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51



Gabonetako dekorazioa norberaren esku dago

Etxeko leihoak, ateak, paretak, zuhaitza, kanpoaldea... apaintzeko sasoi betea da. Gabonetako apaingarriak norberak egin ditzake, bere gustuari eutsiz. Helburua da berrerabilpena bultzatzea eta naturak ematen dituen elementuak aprobetxatzea

Maidor Arregi DEBAGOIENA

Nork bere gustuari kasu eginez, Gabonetako dekorazio propioa egin dezake. Zuhaitza nahiz etxe osoa apaintzeko aukera dago. Hala, berrerabiliz Gabonetako apaingarriak egiteko filosofiaren aldeko hautua askok egin dute. Birziklapenari eta jasangarritasunari keinu eginez, etxe osoa dekoratzea dela joera dio protokoloan aditua Alaine Altube arrasatearrak: "Etxeko estetika-aren arabera dekorazioa da aurtengo Gabonetako joeretakoa bat. Gai bat aukeratu eta horrekin soilik jokatzeko, alegia. Zuhaitzari dagokionez, beti topatuko dugu txokoren bat jartzeko. Eta

horrek ere etxeko dekorazioaren arabera izan behar du. Hau da, egongela tradizional batean ez jarri zuhaitz moderno nordikorik. Zuhaitz tradizionala, aldiz –berdea eta apaingarri koloreduna– edo sortzailea –urrezkoa, arrosa...– izan daiteke. Eta apaingarriak, lore freskoak, kristalezkoak, metalezkoak...".

GAI BAT HARTU ETA HORREN ARABERA ETXE OSOA DEKORATZEA DA AURTENGO JOERA

Apaindu beldurrik gabe

"Aurten edozer apaintzeko momentua ere bada –mahaia, etxe kanpoa, sabaia, beheko sua– eta zuk zeuk egin bada, hobeto! Ideia errazak aukeratu, eta zure etxearendako aproposak direnak. Denbora handirik ez erabili apaingarriak egiten eta jartzen eta kolore edo joerak ez nahastu. Zentzuz aukeratu", gomen datu du Altube adituak.

Leihoak, paretak, mahaia, sabaia... edozer apaindu daitekeela dio. Proposamen batzuk: "Arrosa koloreko paperezko loreak otarre batean sartu ditzakegu; eta kristalezko edukiontzi batean pinaburuak –zer-



Naturako elementuekin apaindutako mahaia. PINTEREST

OLGETA

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOLKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA

Zerkaosteta 4 behea • Tel.: 628 67 35 50 • www.olgeta.eus • olgeta@olgeta.eus

Ondo ibili
santamasetan!

Urtaza

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia
Gabon zoriontsuak!

Janira **IMPETUS** **Felina**

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89

Gaztetxoekin apaingarriak egiten

Gabonetako zuhaitza eta etxeko leihoak apaintzeko hainbat eskulan egiten dituzte Antzuolako Xinkonan herriko neska-mutilek. "Ideiak hartu eta modu errazean egiten ditugu apaingarriak. Oso erraza da, adibidez, kanpaiak egitea etxeko kafe-kapsulekin. Edo koloretako izarrak eta bolatxoak egitea", dio Alaitz Jauregik, ikastaroko gidariak.



Haurrak apaingarriak egiten. GOIENA



Zuhaitz moderno arrosa. PINTEREST



Etxe osoa dekoratuta. PINTEREST

gatik ez urre koloreko esprai batekin tindatu?-. Ardo botila ere Olentzeroren alkandoraren koadrozko oihalarekin estali dezakegu eta kartoi mehez txapela egin. Gin-tonic tamainako edalontzietan flotatzen koloretako kandela txikiek ere giroa goxatzen laguntzen dute".

'Zuk zeuk egin' filosofia

"Modu entretenigarrian, saltsan, disfrutatuko dute gure etxeko gaztetxoek apaingarriak eginez eta margotuz", azaldu du Gabo-

netako eskulan ikastaroa gidatzen duen Alaitz Jauregi antzuolarrak. "Etxean izan ditzakegun hainbat material berrerabiliz, apaingarri ugari egin ditzakegu; esaterako, Gabonetako zuhaitzean jartzeko izarra egin dezakegu. Hori margotzeko, baina, brillantina erosi dezakegu eta guk geuk margotu. Modu horretan, apaingarriek bestelako balio bat izango dute, geuk eginak baitira", esan du Jauregik. Iru-dimena eta sormena lantzeko aukera ona dela dio.



Sabaia bolekin jantzita. PINTEREST



Edalontziak kandlekin. PINTEREST



Eskaintza baliagarria: 2018/01/06 arte

**Euskaraz
jolastu,
euskaraz
bizi**

**Euskal
jostailuak**



EROSKI

ARRASATE



Musakola z/b ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Gabonetan mendira joateko ohitura, errotuta

Asko eta asko dira egun berezi hauek gure bailarako mendietara joateko aprobetxatzen dutenak, bai familian, baita lagunartean ere, askotariko planak eginda

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Gabonak egun bereziak izaten dira, eta horiek ospatzeko modu desberdinak aukeratzen dituzte debagoiendarrek.

Ohitura handia dago, esaterako, mendira joateko. Familian, lagunartean, bikotearekin edota bakarrik. Askotariko moduak aukeratzen dituzte.

Batzuek urtez urte mendi bat eta ibilbide desberdin bat egiteko ohitura dute. Beste batzuek, berriz, urtero-urtero mendi berera joaten dira, urtearen amaiera edota hasiera ospatzera. Da-

maso Gallastegi bergararra, adibidez, Aretxabaletan bizi da, eta, lagun taldearekin urtero Degurixa ingurura joaten bada ere, urtero ibilbidea aldatzen saiatzen dira. "Bidean egon daitezkeen kobazulo ezberdinak erakutsi izan dizkiegu haurrei", azaldu du Gallastegik.

Aramaio aldean, urtero Orixolera joateko ohitura dute, egun berean. "Abenduaren 31n Otxandiotik igotzen dira eta urtarri-laren 1ean Aramaiotik. Betidanik egon izan da ohitura hori", dio Aitor Arana mendizaleak.

Orixolera, urte berria ospatzera

Aramaioko Orixol Mendi Elkartek antolatuta, urte berriari ongietorria egitera joaten dira Orixol mendira hainbat aramaioar aspaldiko urteetan. Ordu bat jarri eta nahi duten herritarrei gonbita egiten diete urtero, eta hainbat kuadrilla joaten dira. "Goian turroia eta xanpaina izaten ditugu, eta ondoren behera", dio Aitor Arana mendizaleak.



Aramaioko hainbat ume, 2017ari ongietorria egiten Orixolen. AITOR ARANA

Urteroko hitzordua, urtero ezberdina

Orain dela sei bat urtetik hona, Arrasateko lagun kuadrilla bat urtero elkartzen da Gabonetan, bazkaria egiteko. Bazkariaren aurretik, irteeraren bat egiten dute, urtero ezberdina. "Mendira joaten hasi ginen, Udaltxera egin genuen lehen irteera, eta iaz Arrikruzeko kobetan egon ginen, espeleologia egiten", dio Jokin Bereziartuak, kuadrillako kideak.



Iaz Arrikruzeko kobetan eman zioten urteari bukaera. GANIX LASA

ALDEDI

Ondo pasau santamasak!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



Damaso Gallastegiren lagun taldea, iaz. DAMASO GALLASTEGI

Olentzeroren bila

Aretxabaletako hamabost bat laguneko talde batek urte luzeetako ohitura dauka Degurixa inguruko txabola batera joateko. "Umeak txikiak zirenean hasi ginen. Orain dela 18 bat urte joan ginen lehenengoz eta urtero saiatzen gara Olentzero bezperan joaten. Olentzero jantzitako norbait ere eduki izan dugu han, umeendako antzerkitxo bat egin dezan", azaldu du Damaso Gallastegik, taldeko kideak.

Toki berera joaten dira beti, baina ibilbide desberdina egiten saiatzen dira. "Taldean basozain bat daukagu, inguruak ondo ezagutzen dituen, eta, ahal dela, ibilbidea aldatzen dugu urtetik urtera", adierazi du Gallastegik, Aretxabaletan bizi den bergararrak. Aurten ere joateko asmoa daukatela azpimarratu du.

Urteko lehen hitzordua, Aloñan

Aspaldiko ohiturari jarraituz, urtarilaren 1ean lagun talde handi bat batzen da Aloñako tontorrean. "Urtero 11:00etan egiten dugu hitzordua. Argazki bat ateratzen dugu beti, eta ostean, turroia, xanpaina eta salda beroa hartzen ditugu, elkarri urte berri ona opaz", azaldu du Santi Mendiola, taldeko kideak. Urtero 30 lagun inguru batzen dira.



Lagun taldea 2017ari ongietorria egiten, Aloñan. SANTI MENDIOLA

Urte bukaera Aizkorrin

Eskoriatzako familia batek Aizkorrin ematen dio bukaera urteari, urtero. "Duela sei bat urte hasi ginen joaten. Goizean goiz abiatzen gara, eta, goian xanpaina edan ondoren, jaitsi egiten gara. Normalean, hamar bat lagun elkartzen gara eta aurten ere joango gara", adierazi du Manex Agirregabiriak, familia horretako kide batek.



Aizkorriko puntan xanpainarekin, urteari bukaera ematen. AMAIA ELORTZA

Zenbaki aholkulariak abokatuak osatzen dugunok jai zoriontsu eta 2018 urte berri on bat opa dizugu.



zorionak
eta urte berri on



zorionak
eta urte berri on




zorionak
eta urte berri on



zorionak
eta urte berri on



zorionak
eta urte berri on



Olentzeroren opariak ilusioz jasotzeko asmoz

Gure aitaita-amamek Olentzerori eskatzen zizkioten oparien artean eta gaur egungo haurrek eskatzen dizkieten oparien artean ezberdintasun ugari daude


Imanol Beloki DEBAGOIENA

Laster etorriko da urte osoan zain egoten garen Olentzero gure etxeetara opariak uztera. Batzuei, eskatutakoa ekarriko die Olentzerok; beste batzuei, ez. Urte osoan ondo portatzea izaten da gakoa kasuren batean edo beste, edo ez. Dena den, ilusio handiarekin jasotzen dituzte urtero gure bailarako haurrek Olentzerok ekarritako opariak, baina gure aitaita-amamek eta gaur egungo umeek eskatzen dituzten oparien artean diferentzia handia dago.

Ezberdintasunak, lehen eta orain

Lehen, beharrezko gauzek zuten lehentasuna; hala adierazten zieten beraien gurasoek gure aitaita-amamei. Izan ere, kasu askotan, gurasoek zer eskatu zitekeen aurrez esaten zieten gure aitaita-amamei. Eta eskatutakoa edo beste edozer jasoz gero ere, sekulako ilusioz hartzen zuten oparia.

Gaur egun, aldiz, haur askok denetarik eskatzen dute, eta, hala ere, ez dira konformatzen. Baina hori batzuen kasua da, ez guztiena.



Olentzerori gutxi eskatu, baina ilusioz

Maribel Herrera, amama

"Lehen ez zegoen gaur egun beste jostailurik eskatzerik; pilotak, buztinezko panpina hauskorak... beti ilusioz jasotzen genituen..."

Danel Amenabarro

"Guztiontzat opariak heldu daitezen, nik opari bakarra eskatu dut aurten: bateriaz doan autoa".


Lehen eta orain ilusio berbera

Kontxi Umerez, amama

"Amak egindako galtzerdiak, bufanda, gorroa... jasotzen genituen. Urte batean, amak jositako panpina ekarri zigun. Hura urtea!".

Ane Elkoroberezibar

"Mugikorra, arropa eta jolasa eskatu dizkiot Olentzerori".



Lehen gutxi eta orain gehiegi

Paski Madrid, amama

"Eskatu gauza asko eskatzen nituen. Ekarri, oso gutxi: pikuak, intxaurrek, turroi zati handi bat... Behin, meza-liburua ekarri zidan".

June Barrena

"Ilea tindatzeko kita, mahai-jokoa, Nintendorako jokoa eta sorpresa bat eskatu dizkiot".

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte vending zerbitzua eskaintzen

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
KAFEE

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



www.bidebarri.org



Eskaera ezberdinak Olentzerori

Maite Barandiaran, amama

"Ez genuen ezer eskatzen, baserrian dibertimendua genuen. Beti ekartzen ziguten mazapanezko krokodiloa..."

Ana Aranzabal

"Eguneroko agenda elektroniko bat eskatu dut aurten".



Eskatu bai, baina dena jaso...

Mari Tere Galdos, amama

"Beharrezko gauzak eskatzen genizkion: koloretako margoak, galtza beroak, mazapana..."

Oier Ezkibel

"Nerf pistola, Meccano, futboleko zapatilak eta eskularruak, etxerako bata eta zapatilak eta Mini Skate Park Tech Deck eskatu dizkiot Olentzerori".

Musika amamak, baita ilobak

M. Carmen Amasorrain, amama

"Piano gorria eskatzen nion Olentzerori. Eta ez dut ahaztuko nire anaia bati ekarritako buruhandia".

Amaia Alberdi

"Trikitia eta panderoa eskatu dizkiot Olentzerori. Nire ahizpa txikiak, berriz, txupeteak".



Zaharrak berri eta sorpresa ugari

Reyes Elortza, aitaita

"Txikia nintzenean, erregeak etortzen ziren gurera, eta urtero mazapanezko sugea, mahaspasak, piku sikuak eta mandarinak eskatzen nizkion. Gaur egun ere mazapanezko sugea eskatzen jarraitzen dut".

Ane Jauregi

"Oraindik ez diot eskutitza idatzi Olentzerori, baina dagoeneko pentsatuta daukat zer eskatu. Munduko bola eta Monopoly jolasa eskatu dizkiot, baita sorpresa ere".

Maialen Jauregi

"Memoria jolasa eta galderak eginez nor edo zer naizen asmatu behar dudana jolasa eskatu dizkiot Olentzerori. Horrez gain, nik ere sorpresa eskatu diot, ahizparen moduan, urtero lez. Ea ekartzen dizkigun eskatutakoak".

Gabonetan edertasuna oparitu

*Pertsona berezi horri zer oparitu ez dakizula?
Etorri, eta gustura lagunduko dizugu.
Bete-betea asmatuko duzu!*

- Aurpegirako eta gorputzerako tratamenduak
- Masaje erlaxagarri eta zirkulatorioak
- Etxean emateko produktu kosmetikoak
- Manikura

...eta askoz gehiago

AMAGARA
Estetika Zentroa



Erdiko kalea 54 behea
ARRASATE

Tel.: 943 79 09 09

www.amagaraestetikazentroa.es

Gabon zoriontsuak guztioi!

EGITARAUA

ABENDUAK 15

EGUBAKOITZA

18:00 Umeendako herri kirolak.

19:00 Santamas pilota txapelketako finalak, Uarkapen.

20:00 Goikobalu abesbatzaren kontzertua, parrokian.

ABENDUAK 16

ZAPATUA

10:00-14:00 Ehoziri-lan tailerra Kulturateko areto nagusian.

10:00-14:00 Natur jostailuen tailerra Kulturateko Jokin Zaitegi gelan.

13:00 Lore Gazteak eta Txikitxu taldeen eskutik, borobileko dantza saio parte-hartzailea.

13:00 Txorbela Otxotearen kontzertua, San Frantzisko elizan.

17:00 *Go!azen* emanaldia Amaia antzokian –sarrerak agortuta–.

ABENDUAK 17

DOMEKA

10:30 Santamasetako padel txapelketako finalak, Musakolan.

10:30-12:00 Santamas krosa.

17:30 *Hamaika kontu kontukabin* ipuin kontaketa, Okendoko ludotekan.

ABENDUAK 18

ASTELEHENA

18:30 Dantzaldi-erromeria irekia, *Herrixa dantzan*-en eskutik, Seber Altube plazan.

19:00 *Santa Familia* komikiaren aurkezpena, Jokin Zaitegi gelan.

ABENDUAK 21

EGUENA

18:00 Erakusleiho lehiaketaren sari banaketa.

18:30 Etxafuegoak.

19:00 *losu Amantzio* txerriaren aurkezpena, Herriko Plazan.

19:00 Kantu kalejira kalez kale, Portalo taldearen eskutik.

19:00 Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa, Herriko Plazan.

20:00-23:00 Basajaun taldearen eskutik dantzaldia plazan.

20:00 Bertso saioa Amaia antzokian.

21:30 Zezensuzkoa, plazan.

ABENDUAK 22

EGUBAKOITZA

9:30 Udalaxpe txistulari taldearekin diana, herriko kaleetan.

10:00 Ganadu eta hegazti feria Laubide plazan.

10:00 Fruta, barazki eta herriko saltokien lehiaketa, Seber Altuben.

11:00-14:00 eta 18:00-20:30 Belenen erakustaldia.

10:00 *losu Amantzio* txerriaren aurkezpena.

10:30 Artisau langintzen jarduera feria, J. Zaitegi plazan eta Biterin.

11:00 Taloak eta Aramaioko sagardogileak, Herriko Plazan.

11:30 Herriko kaleetan zehar, kalejira: Arrostaitz eta Lore Gazteak, trikitilariak, txistulariak, gaiteroak, albokariak eta txalapartariak.

11:30 Iturengo joaldunak kalean.

11:30 Incansables txaranga.

11:30 Lore Gazteak dantza taldearen saioa.

12:00 Fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa Seber Altube plazan.

12:30 Herri kirolak Zaldibarren.

12:50 Trikitilarien eta txalapartarien eta albokariaren saioa eta txerri dantza herrikoia, plazan.



GOIENA

Kalejira, hainbat kultura talderen eskutik

Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeak, txistulariak, Udalaxpe txistulari taldea, gaiteroak, albokariak eta txalapartariak.

Plazan, Monte tabernan eta Jokin Zaitegi gelan, 11:30ean.

14:45 Herri Bazkaria Azoka Plazan.

18:00 Profesional mailako pilota partidua Uarkapen.

19:00 Batzen dantza herrikoia, Arbolapetatik plazara.

19:30 Txerri dantza eta larrain dantza, Herriko Plazan.

20:00 Txerri zozketa, plazan.

20:00-23:00 Dantzaldia Ilargi Baltza taldearen eskutik, plazan.

23:00 DJ Makala, gaztetxean.

ABENDUAK 23

ZAPATUA

10:00 Xake txapelketa, Corazon de Encina kultura etxean.

11:00-14:00 eta 16:30-20:30 Eskuartean elkartearen artisau azoka, Seber Altube plazan.

20:00 *Artxipielagoa* ikuskizuna

Paraje eder baten kokatua

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina

Bazkaria hasteko beste modu berezi bat

• Menu bereziak aukerari 18 €

• Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Zorionak eta urte berri on!



Baserritar jantzitako familia bat iazko santamasetako fruta eta barazkien azokan, Seber Altube plazan. GOIENA

Tradizio zaharren feria, gaur egungo ikuspegitik

Urteko azokarik handiena, kalitatezko askotariko produktuen salerosketarako plaza "ezin hobe" izateaz gain, "gaur egungo jendartearen gurgil zoroan irakasgai berri bat" izan daitekeela uste du Santamas Komisiñoak; hilaren 22an, 10:00etatik 14:00etara

Jokin Bereziartua ARRASATE

Ate joka dator urteko azokarik handiena, arrasatearrendako urteko egun kutunetako baten osagai nagusietako bat. Abenduaren 22an, 10:00etatik 14:00etara, hainbat gune hartuko ditu azokak: ganadu eta hegazti feria Laubiden; fruta, barazki eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa Seber Altube plazan; eta artisau langintzen jarduerak feria Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean.

"Egungo gurgil zoroan irakasgai"

Izan ere, santamasak ez daude ulertzerik azoka barik: "Euskal kulturaren parte garrantzitsua den nekazaritza mundua kalera ekarriz, ohitura eta tradizio zaharrak egungo jendartearen gurgil zoroan irakasgai izan daitezkeela sinisten jarraitzen dugu eta batzuetan desagertzen, bestetan eraldatzen zein egokitzten doan mundu hori ardatzean jartzen saiatzen gara", adierazi du Santamas Komisiñoak.

Azoka eta herri kirolak

Komisiñoak gogora ekarri duenez, herritarrek inguruko baserrietako animaliak ezagutu eta ikusteko "aukera ezin hobe" eskaintzen du erakustazoka horrek. "Jende asko erakartzen duen ekintza da, baserritarren eta kaletarren arteko harremanak sendotu eta bertatik-bertara ikusteko zailak diren ganadu eta hegazti anitzak eta ugariak eza-gutzeko aukera dago eta".

Horrez gain, artisau langintzen feria ere azpimarratu nahi izan dute. 1978a ezkerreko antolatzen du Santamas Komisiñoak: "Iraganeko eta geroko lanbide zaharrak balioan jarri eta sustatzeko asmoz antolatu genuen. Artisauek nola lan egiten duten

**LAUBIDEN, GANADU
ETA HEGAZTIAK; SEBER
ALTUBEN, FRUTAK ETA
BARAZKIAK; JOKIN
ZAITEGIN, ARTISAUAK...**

ikusteko aukera egongo da, eta baita euren lanak salerostekoa ere". Hain zuzen, artisautzarekin lotutako bi tailer antolatu dituzte biharko, hilak 16, Kulturaten, 10:00etatik 14:00etara. Batetik, ehaztutako tailerra egongo dute Idoia Bañezekin, eta, bestetik, naturako elementu eta materialekin egindako jostailuen gaineko tailerra egongo da, familia guztientzat, Orbela Natur Hezkuntza komunitatearekin. Azken tailer horretarako gaur da izena emateko azken eguna; honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 717 71 49 33.

Amaitzeko, aspaldiko jarduerak eta ekoizpen lanekin lotura zuzena duten herri kirolak ere ez dira faltako. "Arrasaten ez dago beharbada herri kirolakiko tradizio handirik urtean zehar, baina santamasetako erakustaldiak, herritar askoren interesa pizten du urtero". Zal-dibarko frontoian izango da erakustaldia, 12:30ean hasita.

Santamasak 2017
**Preso eta
Iheslariak
KALERA
KALERA!**



*Osorik Iluntz
Taupa Ekaitz
Jai Zale Basati*



Iosu Amantzio txerria Galartza auzoko Zaloña baserriko zelaian. MIREIA BIKUÑA

'Iosu Amantzio': 300 kilo inguruko txerri emea

Bigarren urtez jarraian, Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña baserrikoa da santamasetako izarra. Abenduaren 21ean helduko da Herriko Plazara, 19:00etan, Luis Mari Alberdirekin, eta han egongo da 22an, egun osoan, herritarren gozamenerako

Mireia Bikuña ARRASATE

Iaz bezala, aurten ere, Aretxabaletako Galartza auzoan dagoen Zaloña baserrikoa da santamasetako protagonista handiena. 300 kilo ditu, emea da eta *Iosu Amantzio* izena ipini dio Komisiñoak. Bada, jatorrizko izena *Kixki* da. "5 urteko alaba hasi zitzaion horrela deitzen eta izen horrekin geratu da", esan du Zaloña baserriko Luis Mari Alberdik.

Hamar bat urte daramatza Zaloñakoak ganadua erakusten Arrasaten, eta iazko txerriarena kasualitatea izan bazen, aurten, propio joan zaizkio Komisiñoako txerri bila. "Oso ondo portatu zen *Txerrita*, eta *Kixki* ere ondo moldatuko da. Txerri lasaia da. Ondo maneiatzen den horietakoa. Izan ere, lekuz aldatzeko, kamioian sartzeko eta horrenbeste orduz, jendaurrean egoteko, derrigor izan behar du animalia lasaia", dio Alberdik.

Ama eta amama

Hiru urte ditu txerriak eta Zaloña baserrian jaio eta hazitakoa da. Baserri kanpoan egokituta duten zelaian bizi da beste hainbat

txerrirekin. Lokatz artean. Gustura. Besteak euskal arrazakoak dira. Santamasetako izarra, frantziar arrazakoa.

Emea izanda, umeak eduki-tzeko erabiltzen du Alberdik. Hiru haurdunaldi izan ditu orain arte. Bakoitzean, 8-12 kume artean izaten ditu. Ama izandakoa da, beraz; baita amama ere. "*Margarita* txerria *Kixki*-ren alaba da, eta orain izan berri ditu hamar kume. *Margarita* ere erakusteko modukoa da, baina, erditu berri zegoenez, ezinezkoa izan da", dio jabeak.

Zaloña baserrian urte asko daramatzate ondoren hiltzeko txerria hazten, baina azken zazpi urteotan txerri emeak dituzte, gehienbat.


Portaloian

Hilaren 21ean eramango dute *Iosu Amantzio* Herriko Plazara, 19:00etan. Aurkezpena egin ostean, jaten emango diote han, eta lasai-lasai geratuko da, abenduaren 22ko azokaren zain.

Egun horretan, 10:00etarako ikusgai egongo da Portaloian, herritarren eta bisitarien gozamenerako.

SANTAMASAK 2017 ARRASATE

GIRORIK ONENA GEUREAN!



Santamasetako lehen kartelaren 40. urteurrena

1976an antolatu zituen Komisiñoak jaiak lehendabizikoz, eta bigarren edizioan egin zuten lehen kartela. Oinarrian Jon Zabaleta marrazkilariaren bineta bat zuen, eta horri aldaketatxo batzuk egin zizkion Jagoba Aranzabal artista arrasatearrak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Santamas jaiak aspalditik egiten dira Arrasaten, baina 1976an ukitu herrikoiaekin antolatu zituzten lehen aldiz Santamas Komisiñoako kideek. "Kuadrilla ezberdinen arteko koordinazioaren emaitza izan zen. Horren aurretik goitibeherak eta bestelako ekimen batzuk antolatzen genituen elkarlanean; beraz, esan daiteke bageneukala alde aurretiko harremana", azaldu du Jose Agustin Ibarluzea *Txispas*-ek.

"Santamas jaiak indarra galtzen ari ziren garai hartan. Elma eta Zerrajera bezalako enpresa zaharretan jaieguna errespetatzeko ohitura zegoen, baina koopera-

tibetan ez zen hala izaten. Indar handia hartzen ari ziren, eta lan-karga handien eraginez arrasatear askok ez zuten jairik izaten. Baina Komisiñoak antolatu genuen hirugarren aldian, 1979an, kooperatibek jai ematea erabaki zuten. Ikusi zuten San Juanen ostean herrian indar handien zuen jaieguna zela".

1977an lehen kartela

1976ko lehen edizioaren ostean, jaietako lehen kartela egin zuten, nahiko modu xebelean, gainera. "Jon Zabaletaren marrazkia du oinarrian. Egunkariren, aldizkariren edo libururen baten

argitaratutako bineta bat zen, eta asko gustatu zitzaigun. Bertan baserritar batzuk agertzen ziren euren asto eta gurdiekin, eta baita polizia antzerako batzuk eurei gelditzeko eskatzen. Garai horietan hain ohikoak izaten ziren Guardia Zibilen kontrolak irudikatzen zituen marrazkia zen. Hala, Jagoba Aranzabal komisioko lagunak, bineta hori hartu zuen, eta moldaketa txiki batzuk egin zizkion. Nolabait esatearren, marrazki hori *arrasateartu* egin zuen, eta hala sortu zen santamasetako lehen kartela. Egia esan ezkerro, ez zen guztiz legal-legala izan" azaldu du *Txispas*-ek.



1977ko kartela izan zen santamasetako lehenena. XABI GOROSTIDI

Ostean Olariaga 30 urtez

1977an kartelak harrera ona izan zuela ikusita, gaia serioago hartzea erabaki zuten Komisiñoako kideek. "Lehen esperimendu horren ostean gauzak serioago hartu genituen kartelari dago-kionez, eta Antton Olariagari eskatu genion diseinu bat egin zezan".

1978an egin zuen lehen kartela marrazkilari usurbildarrak,

eta denbora luzez hura izan zen santamas jaiaren irudia urtetik urtera berritzeko ardura izan zuena.

30 urte izan ziren konkretuki, 2008ko kartela izan baitzen Olariagak egindako azkena. 2009an Komisiñoako kideek lehiaketa bat antolatu zuten kartela diseinatzeke. Aurtengoa, azken urteetan bezala, Iban Galan marrazkilariak egin du.



carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, 14-15. pab. • Uribarri auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

2018

Oparitu ongizatea eta edertasuna



Mima ezazu zeure burua
Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria
80€

Pindas masajea
Ekialdeko masajea, nekearen
eta estresaren aurkakoa
70 €

Mandarinazko peelinga
Poztasunaren peelinga, gorputz
espoliazio indargarria
70 €

Aurpegiko hidratazioa
Azal hidratatua, bizia eta leuna;
zelazko ukipena
55 €

Ion Bao masajea: 5 sentimenez gozatuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin
50 €

Gabon jai zoriontsuak



LIRAIN

ESTETIKA ZENTROA



RPS: 48/14

Ez da osasun
zentroa

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Ilusioa, jolasa eta hainbat ekintza, Gabonen osagai

Abenduaren 23ko Gabonetako kontzerturako sarrerak martitzenean jarri ziren salgai Interneten eta Seminarixoa aretoko leihatilan –eliza zaharreko leihoan, ate ondoan–; etzi aurkeztuko dituzte 'Guti' eta 'Felixin' erraldoien gomazko panpinak, udaletxean (12:00)

Jokin Bereziartua BERGARA

Gabonetako argiak piztuta, erakusleihoak apainduta –hilaren 20an jakinaraziko dira lehiaketako irabazleak–, Mari Domingiren eta Olentzeroren figurak udaletxean –aurten Seminarixoa estreinatuko dute abenduaren 24an... eta adin eta gustu guztiak asetzeko egitaraua urtarilaren 6ra arte. Heldu dira Gabonak.

Bergara Bizi ekimenaren barruan, umeendako seminarioko karpan jolas parkea jarriko dute bihar, hilaren 22an, 23an eta 30ean; eta frontoiaren atarian ohe elastikoak jarri dituzte urtarilaren 7ra arte. Bedelkarren Gabonetako zozketarik ez da faltako; 600 euro zozketatuko dira, 100 euroko hiru saritan eta 50 euroko sei saritan banatuta. Saltoki bakoitzak 300 txartel ditu bezeroei banatzeko.

Kontzerturako sarrerak salgai

Gabonetako klasikoetako bat da Bergarako Musika Eskolak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoak, Bergarako Musika Bandak eta Aritzeta abesbatzak antolatzen duten kontzertua. Abenduaren 23an izango da, frontoian (20:30), eta sarrerak martitzenean jarri ziren salgai. Internetez erosi daitezke (<https://ticket.kutxabank.es>), eta baita Seminarixoa aretoko leihatilan –eliza zaharraren leihoan, ate ondoan–; sarrerak agortu ez badira, gaur, hilaren 18an eta 19an ere irekiko dute leihatila, 18:00etatik 20:00etara.

'Guti'-ren eta 'Felixin'-en panpinak

Asteburua ekintzaz josita dator. Gipuzkoako erretiratuaren abesbatzen topaketako bigarren emaldia egingo dute gaur (ikus 39. orria). Bergarako Erraldoi Taldearen ikur diren *Guti* eta *Felixin* erraldoien gomazko panpinak aurkeztuko dituzte etzi udaletxeko osoko bilkuren aretoan (12:00). Aurkezpena kalejiran helduko



Frontoiaren atarian ohe elastikoak jarri dituzte, umeen gozamenarako. IMANOL SORIANO

da erraldoien taldea –Zabalotegitik abiatuta, 11:00etan– eta, ondoren, *Guti* eta *Felixin*-endako propio egindako balsa dantzatuko dute San Martin plazan, eguraldiak laguntzen badu. Ondoren, salgai jarriko dituzte bi panpinak, 25 eurotan. Etzi guztiak saltzen ez badira, Raizabal, Mujika eta Larrañaga gozotegietan eta Gorka harategian erosi ahalko dira.

Kartzela zaharreko ekintzak

Gaztetxeak ere egitarau berezia antolatu du. Atzo, Martxanteren eskutik, Puscanturpa-Peru espe-

dizioaren gaineko kontakizuna izan zuten, eta aurten ere otarre erotikoa zozketatuko dute: "Kolektiboa ekonomikoki babesteko eta norberaren zein inguruko gozamenarako aukera ederra da". Txartelak lortzeko: martxantera@gmail.com. Gaur, bestalde, *Euzkadi* SA liburua aurkeztuko du Ahoztar Zelaia kazetariak (19:00). Hurrengo asteburuan hasiko dira ekintza potoloenak; adibidez, hilaren 22an *BetFest*-a izango dute (23:00), udaberrian antolatzen den Bergarako Elektronika Topaketa entzutetsuaren aurrekaria.



IGARZA

Irala 5 - Bergara
Tel.: 943 76 24 88



NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Berezia

Gabonak datozela eta, kontzertu bat jotzeko eskaintza berezia jaso dugu: Aita Menni ospitalean jotzeko eskaintza, hain zuzen. Badirudi kultura ekintza desberdinak egiten dituztela, talde aktibo baten ilusioa dela medio. Txaloak merezi dituzte horrelako mundu paraleloetan ekintza aberasgarriak antolatzen dituztenek, errazena gizartetik kanpo lagatzea baita.

Musikak daukan boterea zabaltzeko asmoarekin joango gara eta ziur nago kontzertu berezia izango dela.

Memoria egiten hasi, eta leku arraroetan eman ditudan kontzertu bereziak gogoratzen hasi naiz: elkarte gastronomikoetan, parroketan eta elizetan, mataderia baten, jauregietan, katamaran baten, kalean diru eske, tailer baten, kartzelan.... Beno, egia esan, bi kartzelatan jo dut: Bergarako gaztetxean eta Martutenen.

Askotan gogoratzen didate taldekideek Martuteneko kartzelan jo genuen kontzertua bukatzerakoan mekanikoki esan nuen azken esaldia: "Eskerrik asko denoi etortzeagatik". Ia ostiauta irten ginen...

Ernai eta Buruñao arteko bidegorria egiteko hitzarmenak

Bidegorri sarea osatzen jarraitzeko apustuari eutsiz, Udalak Ernai kalean lehendik dagoen bidegorri zatitik hasi –Materia Agorrosin pareko ingurutik– eta Buruñao auzoko zubiraino luzatzeko proiektua idatzita dauka. Zati horren plan-gintza egiterakoan kontuan hartu dira tramua horretan dauden Marmoleria Bergaresa SL, Dikar Scoop eta Metagra Bergara SA enpresak, eta enpresa bakoitzarekin hitzarmen bana sinatu dute. Izan ere, Udalak obra txiki batzuk egin beharko ditu enpresa horien inguruetan. Hala, 90.000 euro inguruko diru sarrera jasoko du Udalak hitzarmen horiei esker.

OHARRAK

Kale mozketa

Abenduaren 18an, 19an eta 20an Ibargarai kalea itxita egongo da, aparkaleku publikotik Miguel Altuna Lanbide Heziketa ikastetxeko bidegurutzeraino, bidegurutzea barne. Errepidea itxita egongo da asfaltatze lanengatik; obrek iraun artean, saihebidetik desbideratuko da zirkulazioa.

Azokarako tasak

2017ko laugarren hiruhilekoari dagozkion tasak ordain daitezke otsailaren 15era arte. Helbideratutako agiriak kontu korrontetik kobratuko dira; gainerakoek udaletxera jo beharko dute argibide gehiagorako: 943 77 91 00.



Ireki da udal aurrekontua negoziatzeko hilabeteko epea

Udal aurrekontua 24.857.040 eurokoa izateko proposamenaren barruan, seminario azpian aparkalekua egokitzea izango da "erronka nagusia" Gobernuarentzat; EH Bilduren eskaeren artean dago, besteak beste, Seminarixoa zinema ekipamenduarekin osatzea

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Udal Gobernuak 24.857.040 euroko aurrekontu proposamena dauka mahai gainean 2018rako. Gastua iazkoa baino bi milioi euro eta erdi handiagoa izango litzateke, %11 handiagoa, eta inbertsio errealak hiru milioi eurokoak izatetik 5,2 milioi eurokoak izatera pasatuko lirateke. Bizi kalitateari, ongizateari eta herritarren beharrei erantzuteko aurrekontua dela diote: "Pertsonen ongizateari lotuta, nabarmendu behar da iazko aurrekontuaren neurria mantendu egiten dela, eta kopuru berarekin programa berri batzuk

martxan ipiniko direla". Horrez gain, agintaldiko konpromisoei helduz landutako aurrekontuak direla dio Elena Lete alkateak: "Herri erosoago eta atseginagoa eraikitzen jarraitzea lehenesten dute". Aurten, bestalde, Udaleko langileengana jo dute: "Dagozkien alorretan duten ezagutza sakonarekin, aurrekonturako proposamenak egin dituzte. Asmo, agindu eta ekarpen horiek guztiak batuta osatu dugu proposamena".

2018rako proiektuen artean, "erronka nagusia" izango da seminario azpian aparkalekua egokitzea: "Herritarren kezka nagusienetako bat da herriko aparkaleku falta. Horrela jaki-

narazi digute herritarrek, eta, horregatik, Udalak arazoari erantzuna emango dio". 1.400.000 euroko partida bideratzea proposatzen du Gobernuak -ahal bada, obrak exekutatzea espero dute- eta, horretarako, 1.120.000 euroko kreditua eskatuko litzateke.

Beste partida aipagarri batzuk

Beste partida garrantzitsu batzuk bideratzea aurreikusten da Arrizuriaga jauregia eta lorategia berreskuratzeko (1.111.000 euro), Boluko lur-jausiaren eremuaren konponketarako (370.000 euro), Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berrirako bidea egokitze (250.000 euro), mugi-



Alberdi, Barrenetxea eta Lete, eta Eskuaire proiektuko itzultzailea. AMAIA TXINTXURRETA

kortasun planaren hasierako finkapenerako (250.000 euro) eta iaz abiatu eta "oso baliagarria" izan zen ideia lehiaketa gauzatzen jarraitzeko (150.000 euro), besteak beste. Boluko lur-jausiari dagokionez, alkateak nabarmendu du lurren jabetza Udalarena ez izan arren, "zuhurtziaz" jokatu gura dutela.

Aipatzea merezi duen beste partida bat da Seminarixoa are-

torako zinema ekipamendua jartzea (80.000 euro); hala, bergararrek irailerako zinema izatea espero dute. Bestalde, herritarrekiko arreta zerbitzua hobetzeko "lehen pausoak" eman go dira, udal zerbitzu guztien berri bergararrei mahai bakar baten ematea ahalbidetuko duena (50.000 euro). Eta diru kopuruari dagokionez partida oso inportanteak ez badira ere, Go-

Ondo pasa Gabon jaietan!

ABENDUA OSTIRALA 15 XVIII. Gipuzkoako abesbatzen topaketak 16:30 Santa Marina parrokiari Gimnasio erritrikoko erakustaldia 18:00 Labegarietan IGANDEA 17 Domeka Azoka. 11:00-14:30 Seminarioko karpan Guti eta Felixin pampinen aurkezpena 12:00 Udaleko plesio aretoa Zinea Zabaletegin 17:00 "Nur eta herenagaren teipia" (6 urteko goia) 18:30 "Operación Concha" (12 urteko goia) ASTEAZKENA 20 Eskaparte lehiaketaren sari banaketa Udaleko plesio aretoa Zinea Zabaletegin 20:00 Mondri (12 urteko goia) OSTIRALA 22 Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua 18:30 Udal pilotalekuan	Gabonetako postalen XIII. Lehiaketa 19:00 Gure Ametsa elkarleku Frankosarri biziak: argiak piztuko aukera 18:00-22:00 (Abenduaren 22an, 29an eta 30ean) LARUNBATA 23 Bergarako Txistulari Bandaren kalejira 11:00 Napar Feria 11:00 San Antonio auzoan Gabonetako kontzertua 20:30 Udal pilotalekuan (6€) IGANDEA 24 Olientzero eta Mari Domingi 11:30 Harrera azoka inguruan, ondoren kalejira plazara 18:30 Seminarioko haurren gutsunak jasoko ditarte. Osinbur: 18.00etan. Anglozar: 18:45ean plazan. ASTEARTEA 26 Os-Huetak Elizateko konpainia dantza emanaldia 17:00 eta 18:30 Seminarioan (4€ - 2 eta 7 urte bitartekoentzat)	ASTEAZKENA 27 "Do, re, mi family" emanaldia 18:00 Seminarioan (4€ - 3 eta 12 urte bitartekoentzat) Saskibaloia 3x3 19:00-14:00 / 16:00-20:30 Udal pilotalekuan OSTEGUNA 28 Familientzako tailerra: Laborategi jolasak (gasteleroak) 12:00 Laborategi museoan (www.laborategimuseo.eus) Jolas parkea (6 urteko beharagoentzako) 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Udal pilotalekuan (4€) Sun magoa 17:00 eta 19:00 Seminarioan (4€) Goiengazte Ginkana eta kontzertuak Gaztelekuan OSTIRALA 29 Jolas parkea (6 urteko beharagoentzako) 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Udal pilotalekuan (4€) Ur jolasak 17:00-19:00 Agorrotzen. Saskibaloia txapelketa 18:00 Labegarietan.	LARUNBATA 30 Gabonetako pilota txapelketako finalak 16:00 Udal pilotalekuan Saskibaloia txapelketa 18:00 Labegarietan Sutargi eta Gabero abesbatzen kontzertua 19:00 Seminarioan (3€) IGANDEA 31 San Silvestre bolid lasterketa solidarioa 11:30 Iratxe kalean URTARRILA ASTEARTEA 2 Jolas parkea (7 urteko aurrera) 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Labegarietan (4€ - 3 egun 10€) ASTEAZKENA 3 Jolas parkea (7 urteko aurrera) 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Labegarietan (4€ - 3 egun 10€) "Biodibertsitatea, Bizia eta etorkizuna" 11:30 Familientzat bostak gidatua (haurrek belduekin)	OSTEGUNA 4 Jolas parkea (7 urteko aurrera) 11:00-13:00 / 17:00-20:00 Labegarietan (4€ - 3 egun 10€) OSTIRALA 5 Bizarzurik haurren gutun bilketa 17:00 Udaleko atarian. Ondoren txokolata San Josepe elkarleku prestatuta. Errege kabalgata 19:00 Udal biltegitik hasita Errege kabalgata Elosua, 18:00 Plazan Gogoratu... Gabonetan, Olientzero eta Mari Domingi udaleko atarian haurren gutunak jasoko dituzte! ERAKUSKETAK Susana Jedra eta Patricia Schneider (Serigrafia). Azaroaren 17tik abenduaren 3ra, Aroztegi aretoa. Beart (Pintura-eskultura). Abenduaren 8tik 17ra, Aroztegi aretoa. Bergarako Taila Elkarleku (Taila). Abenduaren 22tik 31ra, Aroztegi aretoa. "Biodibertsitatea, Bizia eta etorkizuna", Laborategi museoan. Buztintza elkarleku (Zeramika). Urtarrilaren 5etik 14ra, Aroztegi aretoa
---	---	--	--	---

bernuak beste batzuk ere azpimarratu ditu; tartean, azoka indartzeko 20.000 euro. Hain justu, ildo horretan kokatzen dute 2018rako entzumen urritasuna dutenei zuzendutako zerbitzua eskaintzea: "Harremantant itzultzaile zerbitzua izango da eta Udaleko hainbat komunikaziotan ere keinu hizkuntza-ren itzultzailea izango da".

EH Bilduren proposamenak

Oposizioko talde nagusia den EH Bilduk martitzenean egin zuen agerraldia bere proposamenen berri emateko. Adierazi zutenez, Gobernuak esan zien azaro erdialderako luzatuko zietela proposamena, baina, ez denez hala izan, erabaki dute euren lehentasun berri ematea Gobernuaren proposamena jaso aurretik. "Aurrekontu sozialen eta aurrerakoien aldeko apustua

UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENEAN %11KO IGOERA AURREIKUSTEN DA IAZKOAZ ALDERATUTA



EH Bilduko Leticia, Osa, Arantzabal, Artola, Iruin, San Migel eta Luarizaristi. J.BEREZIARTUA

egiten dugu, eta saiaturako gara baldintza horiek euren dokumentuan txertatzen. Eurenak aurrekontu sozialagoak eta hobeak izan daitezen saiaturako gara", esan zuen Gorka Artolak. Hainbat proposamen zehatz dituzte mahai gainean, eta horien artean nabarmendu zuten, adibidez, mugikortasun plana "ahalik eta azkarren" egitearen beharra; erdigunean aparkale-

ku gehiago ahalbidetzeko azterketa bat egitea, bizikletendako aparkaleku estaliak egokitzea eta bidegorri sarea osatzen jarraitzea eskatzen dute, bereziki. Seminarixoa aretoaren irekiera "albiste oso pozgarria" dela esateaz gain, bertarako zinema ekipamendua eskatu zuten; esandako moduan, Gobernuak espero du irailerako martxan egongo dela.

Gainera, 2017an Udalarendako buruhauste iturri izan den beste gai bati 2018an irtenbidea emateko eskaera ere egin zuen EH Bilduk: Agorrosingo kanpoko igerilekuetako leku falta. "Ur parkeak jartzea aukera polita izan daitekeela uste dugu. Egia da beste publiko bati erantzuten diotela, baina egun beroenetarako alternatiba izan daiteke. Antzuolan eta Oñatin jarri zuten eta oso ondo funtzionatzen du. Hortik harago, herrian ze beste baliabide dauden ondo aztertu behar da", deritzo Leire Iruinek. Beste proposamen batzuen artean daude auzoetarako inbertsioen artean Osintxu biziberritzea, helduen egoeraren eta beharren gaineko azterketa egitea eta jolas leku estaliak egokitzea.

Oposizioko talde nagusiak uste du Gobernuarekin akordioa egiteko aukerak badaudela. Ez dute uste iazko formula egokia denik: "Iaz 80.000 euro gorde zituen Gobernuak oposizioaren dako; ez dugu uste akordioetara heltzeko bide bat denik; izan ere, aurrekontu osoaren oso portzentaje txikia da, oposizioaren lana islatzeko ez da partida

duina. Gainera, ez dugu uste zenbaki baten gorabeheran adostu behar denik aurrekontua". Hortaz, martitzeneko agerraldian Gobernuak aurtan ze asmo duen ez zekiten oraindik: "Ez dakigu berriro ere aurrekontu guztiz itxi batekin etorriko diren edo izango dugun aukera gure proposamenak txertatzeko. Gure eskaera nagusietan sintonia egon badago; hain justu, puntu horiek nabarmendu ditugu, uste dugulako Gobernuarekin adostasun batera heltzeko moduak direla", gaineratu zuen Iruinek.

Osoko bilkura, urtarilaren 29an
Proposamenak proposamen, orain, hilabeteko epea irekiko da Gobernuaren eta oposizioko bi taldeen arteko negoziazioetarako. Udal aurrekontua urtarilaren 29ko osoko bilkuran onartzea espero da.

MUGIKORTASUN PLANA, UR PARKEAK ETA ZINEMA ESKATZEN DITU EH BILDUK, BESTEAK BESTE

Mirari

See may say I'm a dreamer
but I'm not the only one
Imagine all the people
Sharing all the world

Gabon zoriontsuak guztioi!

Ibargarai hiribidea 14 • Bergara • Tel.: 943762393

Javier Igarza Realeko kontseilaria izango da

Eguaztenean egindako akziodunen batzar orokorrean, Jokin Aperribai eta haren taldea onartu zuten administrazio kontseilurako; kideen artean bergarar bat dago eta, aldez, Juanjo Arrieta utzi egingo du Reala, bederatzi urteko ibilbidearen ondoren

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Real Sociedad elkarteak akziodunen batzar orokorra egin zuen eguaztenean; besteak beste, administrazio kontseilu berria onartu zuten. Bada, kontseilari berrien artean, Javier Igarza bergararra dago. "Jokin Aperribai deitu zidan, eta hark proposatu zidan kontseiluan sartzea. Profil egokia dudala eta taldearen balioekin bat egiten dudala esan zidan", azaldu du Igarzak. Erabakia hartzea ez zela samurra izan dio: "Zalantzak izan nituen, batez ere, ez nekielako klubari eskaintzeko nahikoa denbora izango nuen edo ez".

Hasiera batean, behintzat, antolaketa eta estrategia sailean jardungo du Igarzak. "Enpresa mundutik nator ni eta Aperribai egoki ikusten nau arlo horretan", azaldu du. Igarza Ekonomia Zientzietan eta Enpresagintzan lizentziaduna da. 2002az geroztik Reiner enpresako zuzendari nagusia da.

Jarraitzailea eta akzioduna

Reala jarraitu izan duen galde-tuta, Igarzak dio: "Jarraitzailea eta sufritu izan duenetakoa naiz, gainera". Horrez gain, bazkidea eta akzioduna dela gaineratu du: "Semearekin joaten naiz Realaren partiduetan ikustera eta aurrerantzean ezin izango dut hori egin. Horrek ematen dit pena handien".

Oraindik ez dituela erronkak zehaztu azaldu du. Hala ere, pozgarria iruditzen zaio estadioaren birmoldaketarekin kointziditzea, "klubarendako garrantzitsua" delako.

Juanjo Arrieta kontseilari ohiarekin berba egiteko astirik ez duela izan esan digu, baina ez duela dudarik "aholku interresgarriak" emango dizkiola.

Juanjo Arrieta: 9 urte Realean

Batzar orokorra baliatu zuten administrazio kontseilu berria



Javier Igarza kontseilari berria. 'MUNDO DEPORTIVO'

HASIERA BATEAN, ANTOLAKETA ETA ESTRATEGIA SAILEAN JARDUNGO DU IGARZAK

izendatzeko; batzuk sartu eta beste batzuk irten. Eta irten direnen artean beste bergarar bat dago: Juanjo Arrieta. Bederatzi urte egin ditu Realean, eta "pozik" utzi du kargua.

"Oso esperientzia ona izan da. Aurrez baneukan esperientzia –Eibarren–, eta Realeko bederatzi urte hauek oso positiboak izan dira", azaldu du Arrieta. "Gainera, gure artean ondo konpondu gara eta horrelaxe irten gara", gaineratu du.

Hasiera zailak izan zituen

Realeko administrazio kontseiluan sartu zenean klubaren egoera kaskarra zela dio: "Bigarren Mailan geunden, eta kluba ordainketen etenaldian zegoen, gainera. Zorte ona izan dugula uste dut: telebistak dirua ordaintzen hasi ziren eta gaur egun ekonomikoki egoera sa-

neatuta dago. Kluba uzteko momentu ona dela uste dut".

Bederatzi urte horietan Realak izan duen bilakaera ekarri du gogora: "Bigarren Mailan egotetik European egotera pasa gara; egoera ekonomikoa guztiz aldatu da; eta taldea Lehen Mailan sendotu da". Hain zuzen, kirol ikuspegitik mugarri horiek nabarmendu gura izan ditu Arrieta: "Lehen Mailara igotzea, eta European gaudela". Eta, aurrera begira, ligako sailkapena aurrekontuen arabera izango dela uste du. "Aurrean aurrekontu handiena dutenak egongo dira; 6-12 postuen artean ondorengoak –Reala hor egongo da–, eta gainerakoak atzean. Hala ere, urtero egoten da sorpresaren bat", dio.

Gaur egun klubak duen erronka nagusia estadioaren obrak dira: "Diru asko balio duen lana da, baina ilusioa sortu du. Bazkideek eurek onartutako birmoldaketa izan da".

Administrazio kontseilu berrian beste bergarar bat egongo delako pozik dago: "Ezagutzen dut; batez ere, gurasoak. Ez diot aholkurik eman; zorte onena opa diot".

Seme kutun izendatu dute Asier Garitano Leganes herrian

Entrenatzaile bergararra "pozik" agertu da izendapen horrekin, eta "ohorea" dela esan du

A. E. BERGARA

Asier Garitano futbol entrenatzaile bergararra Leganesko seme kutun izendatu dute. Hain zuzen, astelehenean egin zuten ekitaldia, Leganesko Udalak antolatuta. Bergararra pozik agertu da izendapen berriarekin: "Ohorea da herri honi poztasuna eman dion zerbaitetan parte hartu izana".

"Gertutasuna eta maitasuna"

"Niretako, oso zaila da azaltzea zer sentitzen dudan horrenbeste eman didan hiri honengatik. Nik eta nire etxekoek zuon guztion gertutasuna eta maitasuna sentitu dugu. Eta kirol arloan zuen hiriko futbol talde nagusiarekin lan egiteko aukera eman didazue, Leganes Futbol Taldearekin", nabarmendu zuen Asier Garitanok asteleheneko ekitaldian.



Asier Garitano. LEGANESKO UDALA

Asier Garitano bergararraren izendapena Espainiako Konstituzioaren 39. urteurreneko oroitzapenezko ekitaldiaren barruan egin zuten; eta Leganesko beste zenbait pertsonaia eta eragile ere izan zituzten gogoan aipatutako ekitaldian.

Herriko gimnastek erakustaldia egingo dute gaur arratsaldean

Gimnasia erritmikokoek erakustaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Labegaraletan. 16:00etan ekingo dute emanaldia Ariznoa elkarteko gaztetxoek. Ohikoa den moduan, bakarkako eta taldeko erakustaldiak egingo dituzte, eta hainbat estilo landu: uztaiak, baloiak, mazoak... Horiekin guztiekin gozatzeko aukera egongo da.

Saskibaloit taldeak aurkari zuzena izango du aurrean bihar

Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatzen duen Bergara Soraluece taldeak Ganbara hartuko du Labegaraletan bihar, 19:30ean. Ganbara bergararren aurkari zuzena da; zazpigarren –Bergara Soraluece– eta zortzigarren daude sailkapenean, puntu bakarraren aldearekin. Hurrengo jardunaldia urtarrilaren 14an izango dute.

Gazteei lanerako espazio eskaintzeko bekak

Bergaran erroldatuta dauden 18 eta 35 urte bitartekoei zuzendutako beka aurkeztu du Beartek; euren lokaleko leku erabilgarria artista gazteei doan uztea da helburu nagusia. Interesa duenak urtarilaren 10a baino lehen egin beharko du eskaera

Arantzazu Ezkibel BERGARA

Beartek gazteei zuzendutako bekak aurkeztu ditu. Helburua da arte plastikoetan lan egiteko eremu aproposa eskaintzea herriko artista gazteei. Bergaran erroldatuta dauden 18 eta 35 urte bitartekoei zuzendutako bekak izango dira. "Bearteko lokalean leku erabilgarria dagoenez, eta gure elkarteko batez besteko adina ikusita, Beartera jende gaztea erakartzeko helburuarekin Beartek beka batzuk eskaintzea erabaki du; helburu nagusia lan egiteko espazioak jende gazteari doan uztea izango litzateke", azaldu du Karlos Galarragak, Bearteko presidentek.

Beka arte plastikoen edozein diziplinatar dago zuzenduta eta urtebetean lanerako espazioa eskainiko zaie bekadunei. Lanerako espazio hori Bearteko egoitza izango da; hau da, Bolu auzoan daukaten lokala. Hasiera batean beka urtebetekoa izango den arren, aukera egongo da beka hiru urte arte luzatzeko.

Urtebete pasatu ostean, beka-dunari, Bearten egindako arte-lanekin Bergarako edozein aretotan erakusketa bat egitea eskatuko zaio. Horrez gain, batzordeak egoki ikusiz gero, 2019an Aroztegi aretoan erakusketa egiteko proposamena egingo zaio.

Beka eskatzeko modua

Bearteko egoitzan bere txokoa izan gura duen artista gazteak urtarilaren 10a baino lehen beart.elkartea@gmail.com helbidera mezu bat bidali beharko du. Mezu horretan curriculum labur bat azaldu beharko da; horrez gain, urtean zehar egin nahi diren lan azalpentoak ere gehitu beharko da.

Bearteko zuzendaritza batzordeak aztertuko ditu eskaera guztiak.



Bolun dago Beart elkartearen lokala. ITZIAR ZUBIA

URTARRILEAN EMANGO DIETE ERANTZUNA BEKA ESKATU DUTEN GUZTIEI

Erantzuna, urtarrilerako

Hain zuzen, beka eskatu duten guztiei urtarrila bukatu baino lehen esango diete onartuak izan diren edo ez.

Bearteko erakusketa Aroztegin

Urtero moduan, Gabonetako erakusketa egin du Beart elkarteak Aroztegin. Hilaren 8an zabaldu zituzten ateak, eta lanak ikusgai egongo dira domekara arte, abenduaren 17ra arte.

Elkarteko kideen lanak jarri dituzte ikusgai; batez ere, margolanak daude ikusgai, baina badaude zenbait eskultura ere. Guztira, 50 bat artelan daude Aroztegin. Erakusketa ikusgai egongo da ondoko ordutegian; gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

Moises Eguren lanak katalogatzen

Moises Eguren (Bergara 1927-1976) lanak aurkitu eta katalogatzeko ardura hartu du herritar talde batek. Hain zuzen ere, Eguren artelanak non dauden jakin, argazkiak egin eta gordetzea da asmoa, ondoren katalogazio lana egiteko. Horregatik, Moises Eguren lanak dituzten pertsonak eskatu diete antolatzaileekin harremanetan jartzeko —Jose Luis Azkarate 609 48 99 67, Anton Arrillaga 646 90 68 85 eta Xabier Agirre 615 79 72 62—.

Eguren lanak aurkitu ostean, antolatzaileek hautaketa egin nahiko lukete, haren omenezko erakusketa bat egiteko. Simon Arrietaren ikaslea izan zen.

Arantzazu Idigorasek 'Sueños del ayer' liburua aurkeztuko du

Ekitaldia Errotalde jauregian izango da, gaur, egubakoitza, 20:00etan. Luntxa izango da ondoren

A.E. BERGARA

Helduendako *Sueños del ayer* liburua argitaratu berri du Arantzazu Idigoras bergararrak; bada, aurkezpen ekitaldia gaur egingo du Errotalde jauregian, 20:00etan.

Ogibidez musika irakaslea da Idigoras, baina idaztea du zale-tasun. Liburuan, amets erotiko bat oinarri duen istorioa kontatzen du. 38 urte dituen Rebeka Roig madrildarra da protagonista. Roigek neska batekin harreman sexualak dituela amesten du; baina, gizonak gustuko dituenek, ez du ametsaren

esanahia ulertzen. Hala, erantzun bila jotzen du Moran psikiatra-ren bulegora. Hori da istorioaren abiapuntua; baina abiapuntu horrek beste zenbait gai lantzeko aukera ematen dio Idigorasi. Bisexualitatea, dolua... dira ukitzen dituen beste gai batzuk.

VIVelibro argitaletxeak argitaratu du liburua, eta drama eta erotika generoan sailkatu dute. Liburua gazteleraz da. Gaurko aurkezpena herritar guztiei zabalik dago; galderak egiteko aukera egongo da, eta luntx txiki bat egongo da amaieran.

Kantu afaria eta 'Domeketan familian' ekimena asteburuan

Goiena komunitatea

Jardun Euskara Elkartea /

BERGARA

Bazkide batzuek egindako eskaerari erantzunez, aurten berriro ere egingo dugu kantu afaria. Gaur izango da, 21:30ean, Artatse elkartearen.

Bestalde, martxan jarraitzen dugu *Domeketan familian* gozatzeko egitasmoarekin. Hilabeteko azken domeketan, 11:30etik 13:30era Oxirondo azokako gune librean ekinga ezberdinak egingo ditugu haurrentzat eta gurasoentzat. Hurrengoa abenduaren 17an, domekan, izango da eta egun horretan Gabonetarako apaingarriak egiteko aukera izango dugu.

San Joxepeko abeslarien txanda izango da gaur

XVIII. Gipuzkoako abesbatzen topaketaren barruan, San Joxepeko abesbatzaren txanda izango da gaurkoa. Santa Marina parrokiaren abestuko dute: emanaldia 16:30ean hasiko da —Gipuzkoako zortzi abesbatza egongo dira, eta etxekoak azkeneko abestuko du—.

Goizeko izarra, *Buen menú*, *Elurra mara-mara* eta *Kantauri* lanak eskainiko ditu San Joxepe abesbatzak, Ramon Amasorrainen zuzendaritzapean. Gainera, ekitaldia aprobetxatuko dute abesbatzaren 25. urteurrena ospatzeko. Horren barruan, taldeko hainbat kide omenduko dituzte, abesbatzan izan duten ibilbideagatik.




AKORT
PRINT SOLUTIONS

Gabon zoriontsuak izan!

SERIGRAFIA - TANPOGRAFIA
TRANSFERRA - ERROTULAZIOA
- PACKAGINGA LANERAKO
ARROPA - KUADRILENTZAKO
KAMISETAK PROMOZIO
ARTIKULUAK - BORDATUAK
JAIETARAKO ZAPIAK...

Mugarra 7 behea BERGARA | 943 765039 | info@akortprint.com



Iazko San Esteban kros jendetsua. GOIENA

Hirugarrenez, kirola eginez ekingo zaie Gabonei

San Esteban krosean izena emateko epea gaur, egubakoitza amaitzen da; helburua Gabonetako festak kirola eginez ospatzea da. Aurten, gainera, Pilotako Gabon Kopako finalak Antzuolako pilotalekuan jokatuko dira, abenduaren 31n, domekan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Mozorrotuta, bakarka, lagun artean, seme-alabekin... jai giroan eta kirolaz gozatuz aurten ere San Esteban krosean parte hartzeko dei egin gura die Udalak herritarrei. Urtetik urtera, geroz eta kros jendetsuagoa bilakatu da Antzuolako lasterketa; eta dagoeneko Debagoien mailan antolatzen diren Gabonetako herri mailako lasterketen artean izen propioa izatea lortu du. Aurten, hirugarrenez egingo da, gainera. "Lehenengo urtean herriko asko animatu zen; baina iaz, kanpotik ere etorri ziren korrika egitera. Aurten, nobedade gisa, mozorrotutako lasterkarien artean bi kilo babarrun zozketatuko ditugu", dio Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

Helburua kirola sustatzea dela gaineratu du: "Herrian kirola sustatzea eta, lasterketa motza denez, kirolik egiten ez dutenak kirola egitera animatzea da helburua. Antzuolan sortzen den giroa pozgarria da benetan".

Gabon Kopako finala, herrian

Benjamin, alebin eta infantil mailetak 60 bat bikotek hartuko dute parte aurtengo Gabon Kopan. Debagoien mailan egiten den pilota txapelketa da, eta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Aramaio, Bergara eta Antzuolako ordezkariak izango dira. –Eskoriatzak ez du bikoterik aurkeztu–. Aurten, gainera, Antzuolako Olalde taldea da antolatzailea eta finala Antzuolako pilotalekuan jokatuko da, hilaren 31n. 26an hasiko dira partiduak, goizeko hamarretan.

Ibilbidea

San Esteban krosak –abenduak 26– hiru txanda izango ditu, ahalik eta herritar gehienek parte har dezaten. 17:30ean, 5-8 urtekoak; 17:45ean, benjaminak, alebinak eta infantilak; eta 18:00etan, kadeteak eta helduak. Orduetegi bakoitzean, maila desberdinetako gaztetxoak batera irtengo dira, baina maila bakoitzak bere ibilbidea egingo du.

Izen-ematea

Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna. Udaletxean, liburutegian eta liburu dendan eman daiteke. Epe horretatik kanpo izena ematen duenak ez du Ternua sarien zozketan parte hartuko.

HELBURUA HERRIAN KIROLA SUSTATZEA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA BULTZATZEA DA



NIRE USTEZ

JON KORTABARRÍA BIOLOGOA

Ghettoak

Txanponek bezala, euskararen inguruko datuek ere bi aurpegi izaten dituzte: ezagutzarena eta erabilerarena. Ibili izan naizen eskualde erdaldun gehienetan, sumatu izan dut maiz gutxiengo bat euskaraz bizitzeko prest, gaztelaniak euskarari gaina hartu eta ito egin ohi duen arren.

Hala, euskararen erabilera bultzatzeko, ghettoak sortu eta indartzea aukera polita dela esango nuke; kasurako, eremu erdaldunetako ikastetxeetan, euskaraz bizitzeko prest dagoen gutxiengo gainontzekoetatik bereiziz. Ghetto horiei, gainera, ikusgarritasuna eman beharko litzaieke, ekimenetan protagonismoa emanez, erdaldunak erakarriz eta batuz; zurrumbilo baten begira biltzen diren korronteak bezala. Euskara desberdina dela ikusarazi eta prestigioa eman behar diogu. Erakutsi behar dugu hizkuntzari loturiko kultura adierazpen propioak dituela; baina, bestalde, zernahi aldarrikatu daitekeela euskaraz, aisialdi euskalduna zilegi dela eta hitz egin daitekeela Telecincoko saioen inguruan ere euskaraz. Erabileraren aurpegia zizelkatzen hasteko garaia dugu; jakin, gazteen artean gehienek dakitelako.



Miguel Jauregi eta Juanita Zabalo. LANDATXOPE

Txistor-jana eta herriko karta txapelketaren sari banaketa

Abenduaren 21ean egingo dute herriko erretiratuek txistor-jana Santo Tomas eguna ospatzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Landatxoepi erretiratuen elkarteko karta txapelketak baditu irabazleak. Guztira, 36 bikotek hartu du parte punttu, briska, mus eta tute txapelketetan. Giro ezin hobean arrakasta izaten jarraitzen duen ekimena da karta txapelketa.

Punttu txapelketan, hamar bikotek hartu du parte. Txapeldunak Miguel Jauregi eta Juanita Zabalo izan dira. Briska txapelketan ere hamar bikotek hartu du parte. Txapeldunak, kasu horretan, Dolores Sainz eta Beatriz Gabarain antzuola-

rrak izan dira. Tutean, zortzi bikotek hartu du parte eta Izaskun Alberdik eta Antton Biterik jantzi dute txapela. Musean ere zortzi bikotek jokatu dute eta Juan Miguel Pagaldai eta Antton Biteri nagusitu dira.

Txistor-jana eta sari banaketa

Abenduaren 21ean, eguna, egingo da, 18:00etatik aurrera, karta txapelketaren sari banaketa ekitaldia, Landatxopen. Egun horretan urteroko txistor-jana ere egingo dute Landatxoepi erretiratuek, Santo Tomas eguna ospatzeko.

Lanean ere euskaraz jardutea aldarrikatu dute

Herri eta ingurune euskaldunean euskara lan esparruan naturaltasunez nola txertatu den azaldu dute Elay, Goizper eta Matz Errekako ordezkariak; Elay aitzindaria izan da eta helburua bestelako enpresak "kutsatzea" dela diote

Maidar Arregi ANTZUOLA

Elay, Goizper eta Matz Erreka enpresetan euskara planek eman dituzten fruituez eta aurrera-pausoez jardun zuten martitzeneko mahai-inguruan. Egindako ahaleginaz, izandako lorpenez eta bidean topatutako oztopoez jardun zuten herriko hiru enpresetako ordezkariak: erretiratuta dagoen Matz Errekako euskara planeko koordinatzaile izan den Juan Kruz Lizarralde; Goizperreko langile Patxi Olabarriak; eta Elayko kontseilari eta euskara taldeko kide Kristina Elkorok. Guztiak bat zetozen, inguruarekiko errespetuan oinarrituta euskaraz bizi ziren herritarrek ere euskaraz lan egitearen aldeko hautua egin behar zutela.

"Herri euskaldun batean, herritarrek euskaraz ikasten zuten, eta gero, lan mundura salto egitean gaztelerara pasatzen ziren. Ez zeukan zentzurik, eta langileen euskara batzordea sortzeko pro-



Kristina Elkorok, Juan Kruz Lizarralde eta Patxi Olabarria. MAIDER ARREGI

posamena egin genion enpresari 1995ean. Borondate handiko lana izan zen, langileengandik sortua. Emunekin diagnosis egitea oso lagungarria izan zen, 2013an etorri zen enpresaren aldeko babesa", kontatu zuen

Lizarralde. "Enpresara etortzen diren ikasleek euskaraz lan egiteko aukera izatea izan da gure erronka. Bidea egiten ibili gara 25 urtean. %75ean euskaraz egiten dira bilerak, kontseilu errektoreko batzarrek... 2028an gure

Mahai-inguru sorta 2018an

Askotariko esparruetan euskara landuko duten mahai-inguruak antolatu ditu Euskara Sailak. "Hiru edo lau hilean behin, herritar ororendako antolatuko ditugu mahai inguruak. Modu horretan, euskara esparru anitzetan lantzeko aukera izango dugu herrian ere", azaldu du Euskara zinegotzi Jon Ugarteburuk.

Hala, Komunikazioan, enpresan, gizartean, musikan eta antzerkian euskarak daukan eragina eta garrantzia aztertuko dituzte. "Zergatik euskaraz? galderaren bueltan antolatu dugu mahai-inguru sorta. Euskaraz lan egitea, euskarazko musikagintza, euskaraz bizi edo hitz egitea, euskaraz antzeztearen zergatia eta, azkenik, euskara kazetaritzan landu gurako genuke; guztiak Torresorua aretoan, 18:30ean", gaineratu du.

lan hizkuntza euskara hutsa izatea gura dugu".

Goizperreko euskara planak oso hasiera indartsua izan zuela azaldu zuen Patxi Olabarriak: "1999an zuzendaritzak langileei egin zien proposamena eta onartu egin zen. Zortea izan dut; ikasketak euskaraz egin genituenok lana ere euskaraz egin genuen. Trantsizio normala izan zen guretzako. Emunen laguntzarekin komunikazio lantaldea sortu zen, dokumentuak euskaratu ziren, langileek euskarazko eskolak jaso zituzten..."

Elay, aitzindaria

Euskara enpresan txertatzen aitzindaria Elay izan da. 26 urtean egindako lanak fruituak eman ditu eta euskara %100ean egiten dutela -enpresaren prozedurei dagokiena- dio Kristina

Elkorok. "Erabaki politikoa izan zen. Etorkizunean herri honen hizkuntzaren alde lan egiteko hautua egin zuten jabegoak eta langileek. Ametsa bete izana da gure lorpena. 2013an euskara plana itxi genuen, konturatu ginelako euskaraz egiten gurela. Orain, mantentze-lana egiten dugu; izan ere, uharte bat gara. Guretzako, erronkarik garrantzitsuena da ahalik eta enpresa gehien kutsatzea eta uharte hori geroz eta handiagoa izatea kontinente bilakatu arte". Orain, helburu garbia dute: euskara balioan jartzea. "Euskara etxean, familian egiten da eta maila profesionalen desagertu egiten da. Profesional euskaldunak behar ditugu administrazioan, medikuntzan... Euskara balioan jarri behar dugu, gabezia handia dago eta", argitu du.



ANTZUOLAKO UDALA

Tunela egonkortzen dihardute

Azaroaren bigarren astean hasi zituen Gipuzkoako Diputazioak Iraetako tuneleko harria kentzeko lanak. Harria kendu, kendu dute, baina oraindik tunela egonkortzeko eta sendotzeko lanean dihardute makinek bertan. "Asmoa da urtea bukatu baino lehen lanak amaitzea eta bidegorri zatia herritarrendako irekitzea", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Argirik gabe haizeteagatik

Domeka gaueko eta astelehen goizaldeko haizeteak gogor jo zuen Antzuolan. Izan ere, zuhaitz bat erori zen Ondarren dagoen argiteria-sareko zutoinera eta herriko zati handi bat argirik gabe geratu zen. Horren ondorioz, astelehen goizean zenbait komertzio eta taberna itxita egon ziren. Eguerdirako, argia berriro bueltatu zen.



IKER AIZKORBE



Herritar bat, kiroldegi parean ipini berria den parkeko makinak probatzen. L.Z.

Ariketa fisikoa egiteko parke berria, gertu

Kiroldegiko kanpoko aldean erabilgarri daude aire zabalean jarduera fisikoa egiteko sei makina berriak. Adin batetik aurrerako pertsonendako bereziki diseinatuak, zahartzaro aktiboa eta bizitza ohitura osasungarriak bultzatzea dute helburu

Larraitx Zeberio ELGETA

Garrantzitsua da bizitza ohitura osasungarriak izatea eta jakinekua da zahartzaro aktibo eta osasungarriak eragina duela pertsonen bizitza itxaropenean zein bizitza kalitatean. Elgetako Udalak 8.000 euro inguru inbertitu berri ditu Bolatokiko kiroldegi parean erabilgarri dagoen parkea egiteko. "Hauteskunde

programan ekarri genuen egitasmoetako bat zen, eta, inbertsioa egiteko dirua pilatzea kosta bazaigu ere, lortu dugu", adierazi du Iraitx Lazkano alkateak. Adin batetik aurrerako pertsonak dituzten gaitasunak eta beharrak kontuan hartuta diseinatzen dira antzerako parkeak, eta Elgetakoak, hain zuzen, sei makina ditu.

Gorputz atal guztiendako

Alkateak azaldu du gorputzeko atal ezberdinak lantzeko moduko makinak aukeratu dituztela. "Bi makina dira hankak lantzeko; bata eliptikoa eta bestea bizikleta estatikoa. Beste pare bat makina gerria lantzeko dira eta kulunkari estilokoak. Azken biak besoak eta eskuak lantzeko estrukturak dira".



Neska-mutiko taldea ludotekako Gabonetako tailerrean, eguaztenean. L.Z.

Gabonetako tailer berezia egiten ari dira ludoteka zerbitzuan

Gaztelekuko gazteendako, berriz, irteera antolatu dute, hilaren 29rako, BECeko Gabonetako parkera

L.Z. ELGETA

Gabonetako tailer bereziak egiten ari dira ludoteka zerbitzuan. Martitzenerako 6 eta 8 urte bitarteko umeendako antolatu zuten, eta paperezko eta kartoizko Olentzero bana egin zuten, etxean apaingarri moduan jartzeko. Aurreko astean, neska-mutiko txikiagoendako egin zuten tailerra eta gaur, barikua, 9 eta 11 urte artekoendako izango da. Ludoteka zerbitzua eza-gutxera ematea eta izen-emateen kopurua handitzea da helburua; izan ere, gaur egun, lau pabost erabiltzaile finko ditu zerbitzuak.

Gaztelekuak erabiltzaile gehiago ditu eta hilaren 29rako irteera antolatu dute BECeko Gabonetako parkera. Prezioa da 20 euro zerbitzuko erabiltzaileen-dako, eta 25 euro gainerakoendako. Hilaren 22a da izena emateko azken eguna.

Gabonetako lehen ekintzak

Hilaren 22an hasiko dira Elgetan Gabonetako ekintza bereziak. Goizean Herri Eskolako ikasleek azoka egingo dute Mendizaleen Plazan. Musika ikasleek, berriz, Gabonetako kontzertua eskainiko dute antzokian, 19:00etan.

PILOTA TXAPELKETA

Herri mailako pilota txapelketako ligaxkak azken norgehiagokak jokatu dituzte gaur, barikua. Finalerdiak hilaren 22an izango dira.

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Janire Lazkano-Nagore Ojanguren / Maitena Mañarikua-Uxue Larrea **18-15**
Maitena Mañarikua-Uxue Larrea / Rebeka Upera-Ainhoa Zeziaga **18-9**
Rebeka Upera-Ainhoa Zeziaga / Janire Lazkano-Nagore Ojanguren **11-18**

9. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

1. Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Diego Cantabrana-Txomin de Vega
2. Eneko Maguregi-Etor Garate / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
3. Oskar Sarasua-Andoni Elorza / Eneko Ormaetxea-Alain Valle

OHARRAK

Kantsatzeke: batzarra

Mendi taldeak martitzenean egingo du urteko batzarra, 19:30ean, kultura etxean.

Ipuin kontalariak

Umeendako saioa, gaur, 16:40an. Boluntarioek, bestalde, batzarra egingo dute hilaren 20an, 18:00etan.

Podologo zerbitzua

Kontsulta hilaren 21ean izango da. Txanda hartzeko, deitu 943 76 80 77 zenbakira.

Bisita Mizpirualdera

Abenduaren 21arekin joango da elgetar taldea bisitan Mizpirualdera. Bost herritar bizi dira gaur egun bertan. Bisita 15:30ean izango da.

Erretiratuak Kultura Astean murgilduta murgilduta

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, martitzenean ekin zioten 2017ko Kultura Asteari Elgetako erretiratuak. *El moderno* antzezlanaren izen zuten martitzenean Espaloian eta Bergarako Alai Taldearen kontzertua eguaztenean.

Atzo, bingo saioa egin zuten Ozkarbin eta gaurko, Gabonetako luntxa dute iragarrita, 18:00etan, elkartearen.



Bergarako Alai Taldea, eguaztenean, Espaloia kafe antzokian. L.Z.



Azaroaren 30ean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak datorren urteko aurrekontua. O.E.

la 19 milioi euro 2018an Oñati gobernatzeko

Udal Gobernuak uste du inbertsio handietan sartzeko aurrekontuak direla, eta oposizioak, aldiz, kontrako botoa eman du euren proposamen gutxi hartu dituztelako eta planifikazio falta dagoela uste dutelako. Aurtengoa baino %2,15 handiagoa da

Oihana Elortza OÑATI

Azken urteetan, urteko osoko bilkuran, abendukoan, eztabai-datu eta onartu izan du udalbatzak hurrengo urteko aurrekontua, baina aurreko azarokoan onartu dute, lanerako ahalik eta egun erabilgarri gehien alde izateko. Hiru ordu pasa iraun zuen osoko bilkuran, ia 19 milioi aurrekontua onartu zuen udalbatzak, 18.781.000 euro guttira, azkena baino %2,15 handiagoa.

Bi iritzi

Mikel Biain alkateak azaldu zuen moduan, "inbertsioak egiteko inflexio puntua" da aurrekontu hori. "Kontu hartzaileak esan duen moduan, aurrezki arrunt garbia duen aurrekontua da, ia milioi batekoa du. Zorpetze maila oso baxua da, 900.000 euroekin itxiko dugu urtea. Oinarri on bat da hurrengo urteetan inbertsio plan baten sartzeko. Kirol plana hor dago, adibidez. Talde eragileak egin

du bere txostena, herritarren iritziak ere jaso dira eta inbertsiorako unea da orain. Esaterako, exekuzio proiekturako diru kopuru bat jaso da".

Oposizioaren ustez, ordea, egoera ekonomikoa ona dela esatea asko esatea da. "Egonkortasun eta bideragarritasun segurtasunik ez duen aurrekontua da. Lau milioi euroko inbertsioak sartzeko dira, baina bi bakarrik betetzen dira. Desorekan jartzen du horrek Udala. Urtean bete ez diren inbertsioekin finantzatzeko da hurrengo eta planifikazio falta izugarria dago. Gainera, zorpetze maila txikia izateak eta kreditu gutxi izateak ez du ezer esan gura. Gastu arrunta nora doan eta

**LANERAKO AHALIK
ETA EGUN
ERABILGARRI GEHIEN
IZATEKO ONARTU
DITUZTE AZAROAN**

inbertsioei aurre egiteko ahalmena dagoen ikusi behar da. Finantzen plan ekonomikoa behar da. Kontu hartzaileak esan du hori", azaldu zuen bozeramaileak, Lourdes Idoiak. Udal Gobernuak, aldiz, ez du plan horren beharrik ikusten momentuan.

"Planifikaziorik eza" izan zen EAJk kontra bozkatzeko arrazoietakoa bat; eta bigarrena, euren egindako 40 proposametatik zazpi bakarrik hartu zituela Udal Gobernuak. Gainerakoak "gutxi landuak" zeudela esan zuen alkateak, errepliken saioan, eta horrek mindu egin zituen jeltzaleak. "Lan handia egin dugu herritarren proposamenak eta gureak bildu eta lantzen", Idoiagaren esanetan.

Xehetasunak

Datorren asteko GOIENA aldizkarian sakonago landuko da aurrekontuen gaia, inbertsio nagusien gaineko xehetasunak aipatuta.

Emakumeen bizimoduan denda txikiek duten pisua aztergai

Irati Garaik eta Jone Arrazolak landuko dute gai hori, 'Selma Huxley Barkham' ikerketa beka irabazita

T.M. OÑATI

"Emakumeok historian zehar egin ditugun askotariko ekarpenak, orain artean androzentrisismoaren ondorioz ezkutuan egon direnak, jasotzea eta herritarren artean zabaltzea" da *Selma Huxley Barkham* bekaren helburua, Leire Zumalde Berdintasun zinegotziak azaldu duen moduan, eta Irati Garai eta Jone Arrazola antropologo oñatiarrek aurkeztutako lana izan da aukeratua: *Oñatiko emakumeak errekadutan: XX. mendeko etnografia feminista*. "Gure hipotesia da emakumeen bizipenatarako sekulako balio soziala izan duen ekarpena egin dutela komertzio txikiek. Benetako balioa eman gura diogu horri, bizipenak jasoz hori berretsi eta handiz idatzitako historiaren parte dela erakutsi", azpimarratu du Jone Arrazolak.



Garai eta Arrazola. T.M.

Ikerketa egiteko, herrian egondako denden inbentarioa egin gura dute, eta herritarren laguntza eskatu dute horretarako. Bi telefono zenbaki hauetara deitu dezakete herritarrek: 688 61 28 41 eta 671 71 53 21. Elkarriketarako ere egingo dituzte.

Linea gehiago jartzea aztertuko du Foru Aldundiak

Aldundiko kabinete-buruarekin izan zuten bilera atzo, eguna, goizean udal ordezkariak, eta beste bilera bat egiteko adostasunarekin bueltatu ziren Donostiatik. "Guk eskatu diogu lehengo egoerara bueltatzea eta Eskoriatza eta Bergarako linea horiek berreskuratzea. Hori posible izan arte beste irtenbide hau ezartzea proposatu diogu:

eskola eta lantegietako sarrera eta irteera orduetan, behintzat, autobus lineak jartzea, Eskoriatzara, Bergarara, eta alderantziz", azaldu du alkateak, Mikel Biainek. Aldundiko ordezkariaren erantzuna izan da ulertzekoa dela egoera eta beharra, eta departamentuko buruarekin beste bilera bat egitekotan gelditu dira alde biak.

Urriaren 2an jarri zen indarrean lineen ordutegi berria, eta kontrako 1.500 sinadura baino gehiago batu dituzte Oñatin.

Ondo pasau Gabonak!!

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44 • OÑATI

"Gure belaunaldiari ahotsa jartzeko garaia da"

UXUE ALBERDI IDAZLEA

Uxue Albediren 'Jenisjoplin' eleberriak zeresan handia eman du. Asteazkenean, abenduak 20, 18:30ean, Antixenean egongo da idazlea horretaz berba egiteko

Goiena komunitatea

Antixena gaztetxea / OÑATI

Urri hasieran argitaratu zen elgoibartarraren liburua, eta oso harrera ona izan du. Zerrenda askotan liburu salduenen artean dago eta Durangoko Azokan arrakasta izan du.

Nola baloratzen duzu harrera hau?

Ezinbestean, oso eskertuta nago. Baina emaitzarekin baino gehiago, bidearekin gelditzen naiz, eta *Jenisjoplin*-en idazketa prozesua oso ederra izan da; zailtasunekin, baina ederra. Orain, bakardadean emandako prozesu honen emaitza jendeak horrela jasotzea pozgarria da.

Eleberriak zure belaunaldiko neska baten bizitza kontatzen du. Badi-rudi iraganari begirada eta bizitza-koaren gaineko hausnarketa bat dagoela liburuan.

Bai, hala da. Askok poztzen nau ikusteak nire belaunaldi kide direnak identifikatzen direla istorioarekin. Polita da ikustea ni baino gazteagoentzat beste begirada bat ekar dezakeela, niretzat ni baino zaharragoak diren musika talde edo idazleek ekarri zuten bezala. Gure belaunaldiak orain arte ez dio gauza askori ahotsik jarri, eta lekukoa hartzeko garaia da. Gure aurreko belaunaldia oso potentea izan da, eta gu haien anai-arreba gazteak izan gara.

Nor da Nagore Vargas?

Nagore Vargas 80ko hamarkada hasieran Euskal Herriko herri industrial bateko auzo pobre batean jaio den neska bat da. Aitaren aldetik Andaluziako etorkinen ondorengoa eta amaren aldetik, Euskal Herriko barnealdeko baserri pobre bateko azken alaba. Familia politizatu eta ezkertiar batean haziko da eta 80ko eta 90eko hamarkadak oso modu intentsuan biziko ditu. Familiak daraman tabernaren ardura hartuko du oso gaztetatik eta hiesarekin bizipen gogorrak izango ditu.



Uxue Alberdi, Bergarako gaztetxean, 2014an. IMANOL GALLEGU

"ADI EZ BAZAUDE, KOSTA EGITEN DA OHARTZEA AZAL ZAHARRA HILDA DAGOELA"

Oso izaera indartsu eta gogorra eraikiko du, aitzak bere gain daukan proiektzioan oinarrituta. Eta adinean aurrera, oso esperientzia intentsuak biziko ditu. **Nobelaren puntu garrantzitsu bat hiesa da. Gaztetxekooi harritu egin gaitu, urruti ikusten baitugu.**

Txikiak ginenean, oso presente zegoen gai bat zen; xiringekin kontuz ibiltzeko esaten ziguten, lapurreta txikiak izaten ziren eta Elgoibarren hiesaren erruz belaunaldi oso bat falta dela esaten da. Baina egia da gazte egin nintzenerako hiesarekiko beldurra galdu egin zela, eta gure belaunaldiaren kezka haurdun gelditzea izan da, ez hiesa. Baina, errealtatearekin kontrastatuz gero, Osakidetzan bi egunean behin antzematen da kasu berri bat. Eta gaur egun badirudi diagnostikoari daukan izaera soziala kendu zaiola; kla-

sea, aukera sexuala... eta jarraitzen du estigma soziala izaten. Gaiak ere aukera eman dit sexualitateaz hitz egiteko eta gure belaunaldiaren beste bizipen batzuk kontatzeko. Adibidez, emankorra izan da erruduntasunaz hitz egiteko; emakume bezala, herri bezala, daukaguna. Eta orain arte nagusi izan den heroien diskurtsoarekin kontrajarri dut.

Nobelan, momentu batean, Nagore Vargasek esaten du bera azalberritzen ari dela, eta Euskal Herria ere bai. Gai askotarako ematen du metafora horrek.

Bai. Otarrainak azalberritzen direnean oso zaurgarri gelditzen dira, azal zaharra apurtzen ari zaielako eta berria eraiki gabe daukatelako. Eta adi ez bazaude, askotan, kosta egiten da ohartzea azal zaharra hilda dagoela. Nagore ohartzen ari da bere aurretiko moduek ez diotela balio, eta bere burua berreraikitzen hasten da. Nire partetik, *bisio-narioa* izan nahi gabe, uste dut gure herrian ere aspektu askotan antzeko zerbait gertatzen ari dela, gatazka politikoan, bertsolaritzan, kulturgintzan... Modu berriak sortzen ari direla.



NIRE USTEZ

JON SAGARZAZU

Maitatu Arantzazu

Apenas bi hilabete dira Iñaki Beristain fraide frantziskotar ezagun eta mina hil zitzaigunetik. Euskal Herri osoan eta Debagoienean zehar sentitu dugu bere presentzia bereziak utzitako hutsune samina.

Iñaki, Arantzazuko predikalari jatorra ez ezik, komunikatzaile nabarmena zen irrati eta telebistan, idazle aparta *Arantzazu* aldizkarian eta hainbat hedabidetan, musikari eta euskaltzale xaloe, beste askoren artean. Arantzazuren ondare eta esanguraren sustatzaile sutsua izan zen Iñaki gizarte zabalean, Arantzazuko Adiskideen Elkartearen bidez, *Elkarrekin bila* programaren bitartez, eta Debagoienean bere ebanjelio-oihartzuna hedatuko zuen edozein ekimeni ekinez.

Iñakiren hitz-jario fresko eta agorrezina amaierako gaixoaldiak bakarrik isilarazi zezakeen. Orduan oparitu zizkigun bere berba sakon eta bihotzekoenak, bi hitzeko testamentu xamurra, debagoiendarrontzat bereziki aproposa: "Maitatu Arantzazu!".

Asteburuan artisau, truke eta elkartasun azokak izango dituzte

Domekan, abenduak 17, herriko artisauek azoka egingo dute Foruen plazan. Hemeretzi artisauek elkartuko dira eurek egingo dako produktuak erakusteko eta saltzeko. "Egongo dira, adibidez, egurrez eta harritz egingo dako jostailuak, jositako arropak, teknika ezberdinak erabilitako bitxiak, euskal zeramika, egurrekin landutako objektuak,

kosmetika naturala eta bizikleten pneumatikoekin egindako gerrikoak, esaterako. Jakiak ere egongo dira aurtan, gainera. Adibidez, ezti", azaldu du azokan parte hartuko duen Ainhoa Aranburuzabalak. 10:30etik 14:30era izango da azoka hori, eta, euria egiten badu, karpak jarriko dituzte.

Zapatu goizean, urtero egin ohi duen elkartasun azoka egingo du plazan Elkar Hezi ikastetxeak, eta Txaloka ludotekan jostailu truke azoka izango da.

Harpa jotzaile batekin abestuko du bihar Ganbarako Hots-ek

Gabonetarako prestatu duten kontzertuetako bat izango da. 'Pinotxo'-k Euskalduna eta Gayarre ezagutuko ditu

O.E. OÑATI

Gabonetarako "inoizko egitarau indartsuena" antolatu du Ganbarak, Aitor Biainen esanetan, eta bihar, emakume ahotsek osatzen duten Hots taldeak beneditarren kaperan 19:00etan egingo duen kontzertua da. *Izar ederra* du izena. "Duela hamalau hilabete jaio zen abesbatza hau, eta hilean behin elkartzen gara entseguetarako. Bi zati izango ditu emanaldiak: zati baten, Raquel Ortega harpa jotzaile iruindarra izango dugu lagun. Oso berezia izango da, gutxitan

izaten dugu-eta harpa doinua entzuteko aukera", dio Edurne Agirrek. Bigarrenean, konpositore euskaldunen obrak kantatuko dituzte eta Eli Mendiaren laguntza izango dute pianoan. Bakarlarri lanetan Edurne Agirre bera eta Nere Ibarra arituko dira. Sarrera bost euro da.

Bestalde, *Pinotxo* ikuskizunarekin, Bilboko Euskalduna jauregira joango dira hilaren 27an eta Iruñeko Gayarre antzokira urtarilaren 3an. Bietarako sarrerak antzokietako webguneetan sartuta eros daitezke.

Herriarren kirol saria, lau hautagaien artean

Herriarrek eguaztenera bitartean dute botoa emateko aukera, Udalaren webgunean. Zehatz esanda, kirol ezberdinetan diharduten lau hautagai aurkeztu ditu epaimahaiak. Abenduaren 22an egingo dute sari banaketa ekitaldia

Iker Oñate OÑATI

Azken urteetako ohiturari jarraiki, kirolarien eta horren bueltan dihardutenen lana aitortzeko egitasmoa abiatu du Udalak: Oñatiko Kirol Sariak. "Oro har, herriko kirolari guztien jarduna errekonozitu nahi genuke, baina ez zaigu posible guztiak hautagai sortan sartzea. Nolabait, esan dezakegu horretarako bitarteko dela egitasmoa", aitortu du Borja Moiuak, Kirol zinegotziak.

Besteak beste, lau hautagaien artean hautatu beharko dute herriarrek: Nerea Diaz igerilaria, Xabi Lete mendi lasterkaria, Ihanire Urteaga triatleta eta Jon

Altube txirrindularia. Horren harira, interesa duenak Udalaren webgunean eman dezake bere botoa. "Metodo horren bitartez, herriarrek eurak dira kirolarien lana errekonozitzen dutenak. Polita da hori", dio Kirol zinegotziak. Abenduaren 20ra bitartean egongo da botoa emateko aukera.

Bakarka lehiatzen direnak


Aurtengoan, bakarkako kirolen diharduten kirolarien artean hautatu behar dute herriarrek. "Kirolen espektroa zabaltzeko aukera eskaintzen dute halako ekimenek. Alegia, taldekako kirolez gaindi goaz, bakarka

lehiatzen diren horien ibilbidea gertuagotik ezagutzea ahalbidetuz", argitu du Moiuak.


Sari banaketa

Gauzak horrela, abenduaren 22an, egubakoitzean, egingo dute sari banaketa; 19:00etan hasiko da ekitaldia, udaletxeko pleno aretoan. Bertan, boto gehien jaso dituenarentzat ez ezik, beste kirolari batzuentzat ere badago saririk. Tartean, kirol talde, entrenatzaile eta kirolari onenak sarituko dituzte; aipamen berezirik ere izango da kirolaren bueltako zenbait pertsonarentzat. Guztira, zortzi sari banatuko dituzte.

Hautagaiak



Nerea Diaz
Estatuan bost alditan lehiatu da.



Xabi Lete
Euskal Kopa Konbinatua irabazi du.



Ihanire Urteaga
Esprint distantzian Gipuzkoako garaile.



Jon Altube
Arabako BTT Challengea irabazi du.

Partidu garrantzitsua du Aloña Mendik domekan

Asteburuan etxean jokatu dute Aloña Mendi futbol taldeko mutilek. Domekan dute hitzordua, 16:30ean, Lagun Onak taldearen kontra -laugarren postuan dira azpeitiarrak-. Beraz, sailkapeneko lehen postua sendotzeko ahaleginean, asteburuko norgehiagoka garrantzitsua da oñatiarrentzat. Orain artekoari segida ematen saiatuko dira.

Gimnasia erritmiko erakustaldia, urtea bukatzeko

Orain arte ikasitakoa erakusteko prestatzen dihardute 4 eta 13 urte bitarteko 100 gimnasta inguruk. Zehatz esanda, hilaren 21erako finkatu dute hitzordua; Zubikoa kiroldegiko kantxan jardungo dute, 18:30ean hasita. Musika lagun, gimnasia erritmikoko ikasleak taldeka arituko dira, kurtsoan zehar ikasitako ariketak ikusarazi guran.



«Komunitate guztiek dute mundua beren hizkuntzaren kristaletik ikusi eta kontatu beharra, eta eskubidea.»

Miren Amuriza

Izan **berria** laguna
Berria.eus/geroazugan



UDAk Aspanogi Eguna ospatuko du derbian

FUTBOLA Aretxabaletak eta Mondrak derbia jokatu dute domekan (16:30), eta, Klubaren Egun beharrean, Aspanogi Egun izendatu dute etziko hitzordua aretxabaletarrek; sarrerekin lortzen duten kopurua ekimenera bideratuko dute

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Haur minbizidunen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea du helburu Aspanogi elkarte gipuzkoarrak, eta UDak bat egin du ekimen horrekin: "Kirol taldeak lan sozial bat egiten dugun elkarrekin gara, baina, aldi berean, gizartearekin zorretan gaudela uste dugu. Hori horrela, zertan edo nor lagun genezakeen hausnartzen hasi ginen, eta Aspanogiren balioak UDako balioekin alderatu genituenean konturatu ginen bat gentozela", adierazi du Agurtzane Elkorok, UDako presidentea.

Hirugarren elastikoa

Bada, Markel Irizar ziklista oñatiarraren bitartez batu ziren UDakoak eta Aspanogikoak: "Hasteko, UDAn beti gura izan dugu hirugarren ekipazio bat egin, eta salmentetako zati bat ekimen solidario batera bideratu. Ekipazioak prest daude eta Belar Meta dendan izango ditugu salgai 35 euroren truke. Uste

"HIRUGARREN ELASTIKOAREKIN JOKATZEKO BAIMENA ESKATU DUGU"



Egurbide, Etxeandia, Andonegi (Aspanogi), Loiti eta Etxabe. X.U.

dugu Olentzerotarako opari ederra dela. Baina konturatu ginen askoz errazagoa zela Mondraren kontrako derbia aitzakia moduan erabilita sarrerak Aspanogiri bideratzea. Urtean bi partidua Klubaren Egun izendatzen ditugu, eta horko diru-sarrera erabiltzen dugu klubaren ekonomiari bultzada emateko. Bada, Klubaren Egun beharrean, domekako partidua Aspanogi Eguna izango da; espero dugu sarrera polita lortzea, urtero derbi honetara jende asko etortzen da eta".

Elastiko berriarekin jokatzeko

Horixe gura dute UDakoek, Aspanogiren logoa ere badaraman hirugarren ekipamendu berri horrekin jokatu ahal izatea domekan: "Baina, horretarako, Federazioaren baimena behar dugu, ea lortzen dugun".

Osagai askoko derbia

Berdegunera jaitsita, UDaren (22) eta Mondraren (26) arteko derbiak osagai guztiak ditu. Hainbat urtean Aretxabaletak Mondrak baino talde indartsuagoa izan du, baina azken boladan

Reala, Eibar eta Debagoieneko selekzioa Gabonetako Torneoan

FUTBOLA Abenduaren 29an kategoria txikietako taldeek jokatu dute; hilaren 30ean izango da hirukoa, Ibarra

X.U. ARETXABALETA

Abian da Arizmendik antolatzen duen Gabonetako Emakumezkoen XIII. Futbol Txapelketa. Batetik, abenduaren 29an alebin, infantil eta kadete mailetako txapelketak egingo dituzte, eta Gipuz-

koa osotik etorritako klubetako ordezkariak izango dira.

Eta abenduaren 30ean jokatu dute 10:30ean hasita Euskal Herriko emakumezkoen talde nagusiak batzen dituen hiruko torneo: "Urteak dira Eibar ez

dela txapelketara etorri, eta uste dugu gure jokalariek lan txukuna egin dezaketela bi talde horien kontra", dio Urtzi Amianok. Aurtengo albiste pozgarria izan da Mondrak, Arizmendik eta UDak indarrak batu dituztela emakumezkoen talde bateratua osatzeko: "Bai, selekzioaren bizkarrezurra Leintz Arizmendiko neskek osatuko dute. Hezkuntzan, ikasgeletako hormak bota ditugun moduan, futboleko hormak bota ditugu, indarrak batzeko".

Ekimen solidarioetan murgilduta



Gazte sahararrak Bergarako jantziekin, talde erretratuan. BKE

Bergara Kirol Elkarteko futbol sailak futbol-jantziak eta baloiak bidali ditu Saharako kanpamentu batera, hango umeek beste edozein gaztek bezala futbolaz goza dezaten.



Mondrako eta Gurutze Gorriko ordezkariak, txekearekin. MONDRA FC

Mondra futbol taldeak 200 euroko txekearekin babestu du Gurutze Gorriaren *Haien eskubideak jokoan* ekimena. Ordiziaren kontrako partiduko diru-sarrerak erabili zituzten horretarako.

hori aldatu egin da, eta parean daude biak ala biak. Jokatutako hamalau jardunaldiek erakusten dute joan-etorri handiko denboraldia izaten dabilela bi taldeen dako, nahiz eta arrasatearrak

erregularrago dabiliz. Zuri-moreak lider egon diren Bergara eta Ordizia menderatzetik datoz, moralez gainezka daude, baina ondo dakite UDA Ibarra bestelako oilarra dela.



Arizmendiko lagunak, udal ordezkariak eta klubetako ordezkariak. I.BELOKI


Ziklistak Urrutxuko eskaileren zain daude

ZIKLO-KROSA Domekan egingo dute Oñatiko lasterketaren 7. edizioa –09:30ean hasiko dira masterrak–, eta Gipuzkoako Txapelketa izango da. Arrikruz Kobak taldeko zazpi ziklista izango dira irteera puntuan, kadete eta junior mailetan banatuta

Xabier Urzelai OÑATI

Ziklistek ondo gogoan dituzte Urrutxuko ziklo-kros zirkuituko eskailera, iaz jota utzi zuten-eta bat baino gehiago. 30 eskailera inguru dira, bernetan berotu ederra hartzeko nahikoa, eta ikusgarritasuna ematen diote lasterketari, ziklistek euren bizikletak bizkarrera bota eta korrika igo behar izaten dituztelako: "Dezenteko lana izan zen eskailera egitea, baina txukun geratu zen, eta orain, urtean zehar herritarrek bestela ere aprobetxatzen dituzte", dio Ruper Arkauzek.

Oñatiko lasterketara begira Aloña Mendikoak gogor dabilta



Ander Blazquez, iaz. GOIENA

lanean. Eta Euskal Federazioarekin haserre samar daudela aitortu diote GOIENARI: "Guk lasterketa gazteei begira antolatzaren dugu, hori da gure filosofia. Domekan Gipuzkoako Txapelketa egongo da jokoan, baina Valentzian Espainiako Kopa egongo da jokoan, eta Euskal Federazioak ziklistak eramango ditu hara. Bada, Federazioak agindu zigun ziklista gipuzkoarrak deialditik kanpo utziko zituztela, baina ez dute hitza bete". Aritz Torres, Unai Cueva, Aitor Altube, Josu Gartzia, Ander Blazquez eta Gaizka Maiztegi izango dira irteera puntuan. Aimar Erostarbe, berriz, Valentziara doa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Mondra

Domeka. 16:30. Ibarra.

Hernani-Bergara

Zapatua. 16:30. Zubipe.

ERREGIONAL PREFERE.

Zumaia-Antzuola

Zapatua. 17:00. Zumaia.

Aloña Mendi-Lagun O.

Domeka. 16:30. Azkoaga.

Bergara-Elgoibar

Domeka. 17:15. Ipintza.

Mondra-Aretxabaleta

Domeka. 12:00. Mojaitegi.

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL MAILA

Aretxab. UDA-Soloarte

Zapatua. 17:30. Ibarra.

EUSKADIKO TXAPELK.

Mondrate

Atsedena.

Eskoriatza-Elorrietako

Zapatua. 18:00. M.Muño.

EMAKUMEZKO SENIOR.

Eskoriatza

Atsedena.

SASKIBALOIA

EBA

Ardoi-MU

Domeka. 18:00. Zizur N.

GIPUZKOAKO LEHEN M.

C. Aitona-Alkideba O.

Zapatua. 20:00. Donostia.

DKS-Aloña Mendi

Zapatua. 20:00. Donostia.

GIPUZKOAKO BIG. MA.

Bergara Sora.-Ganbara

Zapatua. 19:30. Bergara.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Corazo.-Ford Mugarri

Zapatua. 20:00. Gasteiz.

Fagor Indus.-Siglo XX

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSKADI. TXAP. EMAK.

Aloña Mendi

Atsedena.

GIPUZKOAKO TXAP.

Egia-Soraluce BKE

Zapatua. 17:00. Donostia.

Sesiseña Aloña-Orma.

Domeka. 12:00. Zubikoa.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Bilboko U.-Kanpanzar

Zapatua. 17:30. Zapatua.

PILOTA

SANTAMAS TXAPELKET.

Finalak, gaur,

Uarkapen (19:00).

PILOTA FEDERATUA

Aretxabaleta:

Gaur. 18:00etan hasita

partidu bat.

Bergara:

Gaur. 19:30ean hasita bi

partidu. Domekan,

13:00etan partidu bat.

ATLETISMOA

SANTAMAS KROSA.

Koadrilen Arteko

Lasterketa 12:30ean.

11:00etan hasita

haurrendako probak

egingo dituzte.

PADEL-A

SANTAMAS TXAPELKET.

Finalak, domekan,

10:00etan hasita,

Musakolan.

OÑATIKO SARIA

Domekan, 09:30ean

Urrutxun.

09:30 Masterrak.

10:30 kadeteak.

11:15 junior eta

emakumezkoak.

12:15 Open maila.



24 orduko asistentzia abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua 100€-tik aurrera

Euskarazko zerbitzua

Asistentzia momentu oro Debagoienetik



Itzalitze automatikoa kabinan LED teknologiarekin



Larrialdi telefonoa DOAN IGOGAILU GUZTETAN

Eskatu aurrekontua

www.bertako.eus • info@bertako.eus

GARAIA Goiru 1 A -20.500 ARRASATE • 943 90 34 50



Ondo ibili santamasetan!

Egun osoko festa handia, zortzi artistaren itzalpean

Domekan jokatu dute Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko finala Barakaldoko Bilbao Exhibition Centren (BEC); Maialen Lujanbio, Unai Agirre, Sustrai Colina, Aitor Sarriegi, Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi eta Amets Arzallus dira finalistak

Eneko Azurmendi ARRASATE

Duela lau urteko finalarekin alderatuta, aldaketa bakarra dago aurtengoan. Izan ere, Unai Agirrek Unai Iturriagaren lekua hartuko du. 14.600 bertsozale batuko dira domekan BECen, 11:00etan hasiko den final handian. Debagoien osotik hainbat lagun joango dira hara. Herri gehienetatik joango dira autobusak: Arrasatetik, Bergararik, Oñatitik, Aretxabaletatik eta Aramaiotik. Beste bertsozale asko autoz ere joango dira. Oñatiko gaztetxean, gainera, finala ikusteko aukera egongo da.

Finalari berari begira jarrita, "egun osoko festa handia" espero dute bailarako zenbait bertsozalek, eta finala "airean" ikusten dute. "Egun osoko saio bat da, luzea, eta edozer gauza pasa daiteke", dio Xabi Igoak. Manex Agirrek ere ez du batere argi irabazle zein izan daitekeen. "Bertsolari bakoitzak bere ekarpena egingo dio finalari, eta hori izango da polita. Guztiek arriskatu dute iruditzen zait, eta guk horrekin gozatu egingo dugu". Iñaki Olalde berdintasun handia ikusten du finalista guztien artean, eta faboritorik ez duela dio. "Bertsotan ondo egiten duenak aurrera egitea iruditzen zait justuena. Irabazi dezala



Zortzi finalistak, aurkezpenean. BERTSOZALE ELKARTEA

onenak". Txapelketan lau aldiz epaimahaiko kide izan den Mikel Fernandez de Arroiabek dio txapelketa bikaina izan dela eta "oso maila ona" eskaini dutela, bai finalistek, baita kanpoan geratu direnek ere.

Mintzola Terraza

Ahozkoartasuna lantzen duten nazioarteko hainbat ikertzaile BECen izango dira, Mintzola Ahozko Lantegiak gonbidatuta. Horientzako lanean ibiliko dira hainbat itzultzaile, momentuan bertan bertsoak ingelesera itzul-

tzen -ahoz-. Mariela Barkero aretxabaletarra izango da itzultzaile horietako bat: "Kabina bakoitzean bi egoten gara, eta ordu erdian behin aldatu egiten dugu txanda, kontzentrazio handia eskatzen duen lana da eta".

Saio berezia

Martitzenean -21:00etan- saio berezia eskainiko du Goiena telebistak, Julen Iriondo kazetariak aurkeztuta. Mahai-inguru bat izango da, Ibon Leibar, Maider Arregi eta Iñaki Olalde bertsozaleekin.



Hor Konpon taldea, aspaldiko kontzertu batean. HOR KONPON

Hor Konpon taldearen itzulera, Tapiaren azken lanarekin batera

Oñatiko gaztelekuan eskainiko dute kontzertua bihar, zapatua, 22:30ean; sarrera zortzi euro da

E.A. OÑATI

21 urte geldo egon ostean, kontzertua eskainiko du Hor Konpon talde oñatiarrak. Kilometroak jaiaren aurkezpenean abesti bat jo ostean, "kontzertuetako adrenalina hori" sentitzeko gogoia etorri zitzaion, eta berriz jotzen hastea erabaki dute. "Orain, gainera, umeak eta hazita ditugu eta denbora luzeagoa dugu entseatzeko", azaldu du Xabi Yanizek, taldeko abeslariak.

Horrenbeste denbora pasa ostean, hasieran "erdoilduta" sentitu zirela aitortu du Yanizek. "Azken urteetan beste pautu batzuekin ohituta geunden, eta nik, behintzat, akorde asko eta abestien letra gehienak ere ahaztuta nituen", adierazi du.

Kontzertuari erreparatuta, azken diskoko kantu gehienak, disko zaharreko beste hainbat eta uda honetan sortutako beste kantu bat joko dituzte. Ilusioz

gainezka daude berriro ere kontzertu bat eskaintzeko. "Urte askoren ostean, herrian joko dugu, baldintzak onak dira, eta Joseba Tapia bezalako artista batekin partekatuko dugu oholtza", dio Yanizek.

Tapiaren lan berria

Yanizek esan bezala, Joseba Tapiaren lan berria -Besamotzak- entzuteko aukera ere egongo da. Trikitia gitarra elektrikoarekin aldatu du lasarteak disko hori osatzeko. "Trikiti apur bat ere badago diskoan, Dani Narbartek jota. Baina nik neuk gitarra jotzen dut", dio. Bakarkako hogeitau urteko ibilbidean konposatu dituen 100 kantuetatik hamaika aukeratu ditu lan horretarako, eta kantu horiek rock estilora moldatu. "Hautaketan eragin handia izan du rock estilora moldatzeko nahi horrek", azpimarratu du.

BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA
2017

FINALA
BARAKALDO
Bilbao Exhibition Centre
Abenduak 17, 11:00

Aitor Mendiluze
Aitor Sarriegi
Amets Arzallus
Beñat Gaztelumendi
Igor Elortza
Maialen Lujanbio
Sustrai Colina
Unai Agirre



goiena

bertsozale.eus

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Angiozar. Eraberritutako etxebizitza errentan ematen da Angiozarren: hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, aseoa txiki bat eta txokoa dauzka, hainbat solairutan banatuta. Berokuntza, tximinia eta hari musikarekin, bizitzera sartzeko moduan. Guztiz ekipatuta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 33 18 70

104.ERRENTAN HARTU

Arrasate. Erdigunean etxebizitza hartuko nuke errentan. Bi logelarekin nahikoa. Hilean 600 euro ordain ditzaket. Telefonoa: 618 28 91 28

Bergara edo Arrasate. Familia bat gara etxebizitza behar dugu errentan. Epe luzeko lan kontratua daukagu. 651 02 03 14

Debagoiena. Baserrira edo lursaila duen etxea hartuko nuke errentan. Partekatzeko ere gertu egongo nintzateke. Telefonoa: 669 64 11 31

Debagoiena. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi logelakoa gutxienez. Jantzitza ez badago ere, hartuko genuke. Hilean 300-500 euro artean ordainduko genuke. Telefonoa: 632 77 35 38

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan, kuartelaren parean. Telefonoa: 609 94 76 94

Arrasate. Erdialdean logela bila nabil. Ikaslea naiz. 634 69 01 96

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Erdigunean, Arruriagan, etxebizitza errentan ematen da. 55 metro koadrokoa, hirugarren solairuan eta duplexa. Sukaldea, jangela, komuna, bikotearendako moduko logela bat eta egongela handia. Kanpalderra ematen du eta jantzitza dago. Ur beroa eta berogailua gas naturala-

rekin eta igogailua. 600 36 81 37 (Itziar)

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Ganbara Oñatin. Etxaluzen (Kalebarria 54an) ganbara alokatzen da. Biltegi moduan erabiltzeko oso aproposa. Prezio ona. Deitu 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 618 19 51 01

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Eskoriatza
Tabernarako
zerbitzaria
behar da.
605706054

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Soziosanitario ikasketak eta urtetako esperientzia duen emakumea nagusiak zaindu eta garbiketak egiteko gertu. Telefonoa: 630 99 11 85

Arrasate eta Aretxabaleta. Etxeak, jatetxeak, bulegoak eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Titulazioa eta esperientzia dauzkat. Zaintza lanetan ere arituko nintzateke. Telefonoa: 631 82 63 32 (Celine)

Arrasate eta Aretxabaleta. Garbiketak egiten lan egingo nuke. 631 03 04 49

Bergara edo Arrasate. Neska gertu gauetan pertsonak zaintzeko. Deitu zenbaki honetan goizeko 8:00ak eta 9:00 artean edo 20:00etatik 22:00etara. 943 50 47 29

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusi eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, sukalde laguntzaile moduan edota elikagai dendan jarduteko. Autoa daukat. 618 84 98 79 (Ana)

Debagoiena. Emakume arduratsu eta langilea gertu umeak zaintzeko etxeko lanak egiteko edota tabernan jarduteko. Ahal bada, arratsalde. 675 94 46 35 (Marjé)

Debagoiena. Emakumea gertu etxean garbitzeko edota emakume nagusiak zaintzeko. 632 77 35 38

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzen eta garbiketlan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 634 23 33 58

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziaduna. Autoa daukat. 662 43 08 50

Debagoiena. Garbiketlan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 631 44 25 79 (Yaritza)

Debagoiena. Garbiketlan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Erizain laguntzaile ikasketak dauzkat. 698 65 19 25 (Emilse)

Debagoiena. Garbiketlan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 19 02 54 (Lilian)

Debagoiena. Gidari, bantzaile, peoi, jatetxe zein hotelen garbiketa lanetan eta abarrean lan egingo nuke. Autoa daukat. Telefonoa: 632 98 31 81

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxean garbiketarak, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 631 70 73 85

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baita asteburuetan ere. Garbitasun lanak ere egingo nituzke. 632 95 30 13

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke, etxean bertan bizi iaten edo be-

tela. Esperientzia daukat. 603 37 50 51 (Gloria)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketlan eta abarren lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Titulazioa eta lege-paperak dauzkat. 612 20 35 71

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketlan, sukalde laguntzaile edota supermerkatuan lan egingo gertu nago. Telefonoa: 647 01 74 66

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, margolari lanetan edota garbiketlan lan egingo nuke. Telefonoa: 685 98 26 06

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka, asteburuetan edota gauetan. Berehala hasteko moduan. 631 19 98 77

Debagoiena. Neska euskalduna gertu nagusiak

eta umeak zaintzeko, zein ostalaritzan eta dendan lan egiteko. Deitu telefono honetara: 656 79 28 37

Emakume euskalduna Bergaran. Eskarmentu handiko emakume euskalduna eskaintzen da eraguztietako garbiketak burutzeko: atariak, etxebizitzak, tabernak eta abar. 690 86 46 80

Galeoiak. Galeoien marrazkiak dituen kuadroa erosiko nuke. Telefonoa: 656 75 76 98

Lan bila. Esperientzia handiko emakumea jende nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 44 92 85

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Bigarren batxilergoko matematikako eta

fisikako eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 55 06 41

Matematika. Batxilergoko bigarren mailako matematika eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: Telefonoa: 669 63 52 25

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Goibeia txakurkumeak. Urriaren 30ean jaiotako txakurkumeak saltzen dira 30 eurotan. Ama Goibeia eta aita Border Collie arrazakoak. Animaliekin lanerako edo etxeko lagun bezala erabil daitezke. Informazio gehiagorako deitu mugikorrera. Deitu telefono honetara: 687 32 99 57

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



EJU-PNV

MARKEL OLANOREKIN BERBETAN

‘Harira’ Eguaztena, 21:00



BERTSOZALE ELKARTEA

BERTSOLARI TXAPELKETARI BURUZKO SOLASALDIA

‘Mahai-ingurua’ Martitzena, 21:00

ASTELEHENA, 18

FUTBOLA, ZIKLO-KROSA ETA KROSA

‘Harmailatik’
21:30

EGUENA 21

AMETS ORMAETXEA, JULEN IRIONDOREKIN

‘Ikustenda Hi, gazte’
21:00



EGUENA, 21



GOIENA

ANDUEZA ETA BILBAO KULTURAZ BERBETAN

‘Kulturizketak’
21:30

EGUENA, 21

SANTAMASETAKO TXERRIA EZAGUTZEN

‘Hemen Debagoiena’
18:00/20:00/22:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garaiea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

Irargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorostol.com

ETXEBIZITZAK SALOAI
BERGAR A:

- Baserri berria Agirre San Martin Auzoan. Kalapen oso. Kontuak prestatu.
- Auzoan, 89 m², 3 gela, trasterikoa, igogailu. 180.000€.
- Zabaltegi, 79 m², 3 gela, igogailu, bitarteko sarrera. 150.000€.
- San Lorenzo, 75 m², 3 gela, igogailu, trasterikoa. 147.000€.
- Moderno, 100 m², 4 gela, trasterikoa, berrota. 150.000€.
- Baserri, 70 m², 3 gela, eguzkitza, bide onak. Gorte itxo onak. 125.000€.
- Moderno, 75 m², 3 gela, igogailu, eguzkitza, berrota. Gorte itxo onak. 99.000€.
- Moderno, 93 m², 3 gela, igogailu, trasterikoa eta garaje berria. 185.000€.
- Auzoan, 89 m², 3 gela, trasterikoa. Bitarteko sarrera. 130.000€.
- Moderno, 77 m², igogailu, bitarteko eta bitarteko berrota. Bitarteko sarrera. 110.000€.
- Irizte, 93 m², 3 gela, igogailu, bide onak. Berrota. 180.000€.
- San Lorenzo, 79 m², 2 gela, igogailu, bitarteko sarrera. 142.000€.
- Moderno, 75 m², 3 gela, berrota, bitarteko sarrera. 119.000€.
- Moderno, 90 m², 4 gela, berrota, garaje onak. Igogailu. 180.000€.
- San Lorenzo, 81 m², 2 gela, igogailu. Garaiea onak. 142.000€.
- Moderno, 130 m², 3 gela, igogailu. Bitarteko sarrera. 200.000€.
- Moderno, 80 m², 3 gela, trasterikoa, igogailu. Eguzkitza. 125.000€.
- Moderno Agirre (Eguzkitza), 84 m², 4 gela, garaje onak. 208.000€.
- Irizte, 87 m², 3 gela, igogailu eta trasterikoa. 142.000€.
- Moderno, 57 m², 2 gela, berrota. Bitarteko sarrera. 118.000€.
- Zabaltegi, 70 m², 3 gela, bitarteko sarrera. 127.000€.
- Baserri, 54 m², 2 gela, berrota. Igogailu eta 92.000€.

ANGIOZAR:

- Zabaltegi, 60 m², 2 gela, orbera berria. Trasterikoa. 80.000€.
- Baserri, 233 m², lur sakel eta bi etxebizitza egiteko berrota. 238.000€.

OSINTXU:

- Oñate, 92 m², 3 gela, igogailu, garaje. Etxe berria. 150.000€.
- Oñate, 61 m², 3 gela eta trasterikoa. 180.000€.
- Oñate, 70 m², 2 gela eta igogailu. 62.000€.

UBERA:

- Baserri eta 15 hektarea lurra (gorria eta zabaltegi). 470.000€.

ANTZUOLA:

- ERANTZUZA BERRIA (PIZUA ETXEA GARAIEA)
- ERDIALDEAN KOKATUTA – KALITATEKO MATERIALAK
- GARAIEAK BEHEKO SOLAIRUAN-IGOGAILU GARAIEA
- PREZIOAK: 167.000 – 250.000 € artean.
- Antzua, 71 m², 3 gela. Erdialdean berrota, trasterikoa. 80.000€.
- Gokale, 70 m², 3 gela. Erdialdean berrota. 130.000€.
- Baserri, 65 m², 2 gela. Ez da onak berrota. 180.000€.
- Baserri, 90 m², 3 gela. Trasterikoa, eguzkitza. 190.000€.
- Baserri, 65 m², 3 gela, igogailu. 180.000€.
- Gokale, 65 m², 2 gela, igogailu. Baserri oso. 91.000€.
- Baserri, 65 m², 2 gela, igogailu, garaje onak. Bitarteko sarrera. 180.000€.

ELGETA:

- Moderno, 77 m², 3 gela. Berrota. Oso onak.

TXUTXU-MUTXUAK



60 urte ezkontuta
Ignacio Alberdik eta Teresa Bruñak 60 urte bete dituzte ezkontuta eta etxekoekin ospatu dute. Zorionak, bikote! Segi horrela urte askoan!

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Maddi Iturbe Gabiria
Abenduaren 21ean, 7 urte. Zorionak, printzesa, Noaren eta etxeko guztien partetik. Egun ona pasatu. Muxu potolo bat!



BERGARA
Markel Arrieta Gorosabel
Abenduaren 20an, 11 urte. Zorionak, artista! Ondo-ondo pasatu eguna eta etxeko danen partetik, patxo handi bat!



ANTZUOLA
Julen Zabalo Azurmendi
Abenduaren 19an, 3 urte. Zorionak, txipiron! Ondo pasatu zure eguna, etxeko danon partetik!



ESKORIATZA
Amets Aguirre Gandarias
Abenduaren 16an, 2 urte. Zorionak, Amets. Bi urtetxo egin dituzu. Muxu potolo bat, etxeko partetik. Ondo pasatu eguna, maitia.



OÑATI
Ekain Azpiazu Urtzelai
Abenduaren 15ean, 3 urte beteko ditu Ekainek eta bezperan, bere ama Iratik 30. Zorionak etxeko denon partetik.



OÑATI
Leire Guridi Agirre
Abenduaren 15ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Zure urtebetetze egunaz disfrutatu eta muxu handi-handia, etxeko danon partetik!



BERGARA
Unai Diaz Davila
Abenduaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Unai! 3 urte! Ondo pasatu eta muxu handi-handi bat, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Gari Azpiazu Botello
Abenduaren 14an, 5 urte. Zorionak, maitia, familia osoaren eta, batez ere, Jonen partetik. Ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat.



BERGARA
Aratz Aperribai Mujika
Abenduaren 14an, 5 urte. Zorionak, Aratz! Primeran pasatu zure eguna! Patxo potolo asko, danon partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ARRASATE
Aner Horriillo Zallo
Abenduaren 14an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat gurasoen, aitita-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada eta Angelesen partetik.



BERGARA
Haitz Haas Zabaleta
Abenduaren 13an, 3 urte. Gure etxeko piratak hitu urte bete dituu. Jarraitu etxia pozez betetzen, maitia! Asko maitte zaitugu.



ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna. Etxeko partetik, muxu handi bat.



ARAMAIO
Paule Avila Hernando
Abenduaren 12an, 3 urte. Zorionak! Jarraitu alaitasun horrekin, maitia. Muxu potolo bat familiaren eta Maddiren partetik.



BERGARA
Malen Aretxaga Arabaolaza
Abenduaren 12an, 5 urte. Zorionak, Malen! Zelako ondo pasatuko doun zure urtebetetze egunian! Patxo handi-handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Aner Navajo Marquez
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak, Aner. Oso ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo potolo bat familia osoaren eta, bereziki, Maiderren partetik. Asko maite zaitugu.




ANTZUOLA
Aimar Moreno Sanchez
Abenduaren 11n, 11 urte. Zorionak, guapo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko danon eta, batez be, Ankararen partetik.



OÑATI
Peru Orueta Santos
Abenduaren 11n, 6 urte. Zorionak familiaren eta lagun danan partetik, txapeldun! Ondo pasatu zure egun handia! Zorionak, Peru!



BERGARA
Urko Muruamendiaraz Arevalillo
Abenduaren 10ean, 5 urte. Zorionak, maitia! Anouken eta etxeko guztien partetik. Ondo pasatu eta muxu potolo pila bat.



ESKORIATZA
Gorka Enekotegi Oyanguren
Abenduaren 10ean urtetxo bat! Zorionak familiaren partetik, bihotza! Muxu handi bat!



OÑATI
Aner Errasti Urrate
Abenduaren 9an, 6 urte. Zorionak, Aner! Azkenian aiau da zure eguna eta sei urte bete dituzu. Ondo-ondo pasatu eta patxo handi bat, etxeko danon partetik!



BERGARA
Alaitz Garai Zenitagoia
Abenduaren 8an, 6 urte. Zorionak, poxpolintxo! Txokolatzeko patxo pila bat zuretzat, familiako danen partetik.



ANTZUOLA
Andoni Sanchez
Abenduaren 8an, 2 urte. Urte askotarako, txikitxo. Disfrutatu zure eguna. Muxu handi bat zure senideen eta, bereziki, Nagoreren partetik.



ARAMAIO
Eñaut Garai Gutierrez
Abenduaren 7an, 8 urte. Zorionak, Eñaut! Ederto pasatu zure egune! Patxo handi bat, etxeko mutil handixarentzat.




ESKORIATZA
Aner Ortiz Esnaola
Abenduaren 7an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Heldu da azkenean zure eguna. Familia osoaren, eta bereziki, Aimarren, amakoren eta aitaxoren muxuak!



ARRASATE
Oxel Azurmendi Casas
Abenduaren 6an, 7 urte. Iritsi da hainbeste espero zenuen eguna. Zorionak, bihotza! Muxu handi bat Ainhoaren, amakoren eta aitaxoren partetik.



BERGARA
Aimar Anakabe
Abenduaren 6an, 8 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko danon eta, batez ere, Unaxen partetik!




ARRASATE
Oihane Martinez Oruna
Abenduaren 5ean, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Jarraitu horrela. Etxeko bizi poza zara, maitia. Muxu potolo bat, etxeko guztien eta, batez ere, Naiaren partetik.



OÑATI
Garazi Beitia Urkia
Abenduaren 3an, urtebete. Zorionak. Patxo handi bat denon partetik.



OÑATI
Laia Aramendi Urkia
Abenduaren 2an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat. Maite zaitugun denon partetik.



ARRASATE
Benja Ramos
Abenduaren 2an, 35 urte. Zorionak, aitatxo! Ilargiraino maite zaitugu! Muxu potolo bat, familiaren partetik!

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo *eskelak@goiena.eus*

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 € / Goiena Klubeko bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 € / Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

HILDAKOAK

Rafael Etxaniz Umerez. Oñatin, azaroaren 25ean. 63 urte.

Mikel Sarasola Goitia. Arrasaten, azaroaren 26an. 51 urte.

Carmen Altuna San Miguel. Bergaran, azaroaren 28an. 83 urte.

Lorenzo Uribesalgo Aquizu. Bergaran, azaroaren 29an. 68 urte.

Lazaro Larreategi Gallastegi. Oñatin, azaroaren 29an. 87 urte.

Elena Aranburu Agirrebalzategi. Oñatin, azaroaren 29an. 90 urte.

Manoli Goñi Arruiz. Aretxabaletan, azaroaren 30ean. 95 urte.

Maria Valiente Martinez. Bergaran, abenduaren 4an. 86 urte.

Pilar Barrena Berezibar. Arrasaten, abenduaren 5ean. 79 urte.

Felix Zubia Orobengoa. Oñatin, abenduaren 5ean. 73 urte.

Aurora Telleriarte Egidazu. Bergaran, abenduaren 5ean. 90 urte.

Felix Agiriano Gurutzeta. Arrasaten, abenduaren 9an. 93 urte.

Carmen Garai Igartua. Arrasaten, abenduaren 9an. 95 urte.

Joxe Olabe Zuazua. Aretxabaletan, abenduaren 9an. 82 urte.

Felisa Bengoa Ezkibel. Eskoriatzan, abenduaren 9an. 91 urte.

Jose M. Roldan Cecilia. Aretxabaletan, abenduaren 10ean. 71 urte.

Luis Dieguez Martin. Arrasaten, abenduaren 10ean. 82 urte.

Francisco Tristan Oca. Arrasaten, abenduaren 11n.

Maria Angeles Elorza Astola. Arrasaten, abenduaren 11n. 60 urte.

Felisa Ramona Agirre Larrea. Oñatin, abenduaren 11n. 93 urte.

Jose Manuel Carbajo Rodriguez. Arrasaten, 12an. 65 urte.

Margarita Etxebarria Ugarte. Arrasaten, 13an. 93 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26
Zapatua, 16	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 17	SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Astelehena, 18	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 19	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 20	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguena, 21	ALBERTO AZKAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 15	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 16	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 17	ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 18	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Martitzena, 19	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguaztena, 20	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguena, 21	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 15	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 16	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 17	ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 18	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 19	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 20	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 21	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia
eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play-tik edo
AppStore-tik.

ESKER ONA

Margarita Etxebarria Ugarte

"Troko"
Victoriano Zabaletaren alarguna

2017ko abenduaren 13an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Patricia Blazquez Romeo

2017ko azaroaren 18an hil zen, 30 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bereziki, Mizpirualde egoitzako lankideei. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Rafael Etxaniz Umerez

2017ko azaroaren 25ean hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Lorenzo Uribesalgo Aquizu

2017ko azaroaren 29an hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Maria Angeles Elorza Astola

2017ko abenduaren 11n hil zen, 60 urte zituela

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Joxe Olabe Zuazua

2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Jose Maria Roldan Cecilia

2017ko abenduaren 10ean hil zen, 71 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2017ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Felisa Bengoa Ezkibel

2017ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Maria Angeles Elorza Astola



Ikastolako langilea

2017ko abenduaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Marian Elorza Astola



2017ko abenduaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

Txabolako lagunek faltan botako zaitugu.

Arrasaten, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Carmen Garai Igartua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 95 urte zituela.

Urte askotako alderdikide baina batez ere lagun.
Zurekin igarotako uneak beti gogoratuko ditugu.
Agurrik ez, beti arte.



Arrasateko Eusko Alkartasuna.
Arrasaten, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Joxe Olabe Zuazua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Guretzat beti:
Tio Joxe

Agurtzane, Iñigo, Jokin, Ander, Iker, Kepa, Aitor, Xabi, Iratxe, Maider,
Naiara, Uxue, Ibai, Beñat, Maddalen, Edurne eta Joseba.
Aretxabaletan, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Joxe Olabe Zuazua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Urte askoan emandako laguntzagatik.



Lana Kooperatiba.
Oñatin, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Joxe Olabe Zuazua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Eredugarri izan zinen eta eredu izango zaitugu.



UDA.
Aretxabaletan, 2017ko abenduaren 15ean.

OROIGARRIA

Joxe Olabe Zuazua



2017ko abenduaren 9an hil zen, 82 urte zituela.

Ez nau beldurtzen negu hurbilak
ta azken loreak biltzeak
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.

Bizitzari beti baietz
erantzun diozulako
eta irakatsi diguzunagaitik
Eskerrik asko, Joxe.

Amaia, Hirune, Ixiar, Izaskun, Loli, Mila.
Aretxabaletan, 2017ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

Bittor Irazola Altuna



2016ko abenduaren 3an hil zen, 94 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,
abenduaren 17an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2017ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

Isabel Belar Olabarria



Gregorio Altuberen alarguna

2016ko abenduaren 16an hil zen, 102 urte zituela.

Urteurreneko meza Angiozarko Mikel Deunaren Eliza Nagusian,
2017ko abenduaren 17an, 11:00etan, ospatuko da.
Aldez aurretik mila esker.

Zu jua zara baina zukanako gure maitasuna ez.
Zure bizipoza ta alaitasuna ez ditugu inoiz ahaztuko.
Ezagutu zintugunon bihotzean betirako biziko zara.

Angiozarren (Bergara), 2017ko abenduaren 15ean.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

URTEURRENA

Bixente Iturricastillo Gorosabel



2016ko abenduaren 1ean hil zen, 85 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Bergaran, 2017ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

Sebastiana Atorrasagasti Arana



2016ko abenduaren 6an hil zen, 95 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da,
abenduaren 17an, 12:00etan,
Elgetako parrokian.

Joango direnei, alde z aurretik sendiaren partetik eskerrik beroenak.
Elgetan, 2017ko abenduaren 15ean.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 15

BERGARA Gimnasia erritmiko erakustaldia

Ariznoako gimnasten eskutik.
Labegaraletan, 16:00etan.

ELGETA Gabonetako tailerra

LHko 4-5 eta 6ko ikasleendako.
Ludotekan, 17:00etan.

ARETXABALETA Gaztaina-saltzailea

Aretxartek gonbidatuta. Bezeroen artean txartelak banatuko dituzte gaztainak debalde jateko.
Mitarte kalean, 18:00etan.

ELGETA Erretiratuendako luntxa

Gabonetako ekintza.
Ozkarbi elkartean, 18:00etan.

OÑATI Txistor-jana eta dantzaldia

Erretiratuendako ekintza.
Pake Lekun, 18:00etan.

ARRASATE Gabonetako kontzertua

Arrasate Musikaleko ikasleak.
Kulturaten, 18:30ean.

ARETXABALETA Moda desfilea

Aretxarteko kideekin
Herriko Plazan, 18:30ean.

BERGARA 'Euzkadi SA' liburuaren aurkezpena

Ahoztar Zelaieta egilea egongo da ekitaldian.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARAMAIO Maider Undari omenaldia

Olinpiadak bukatzeko.
Kiroldegian, 19:00etan.

OÑATI 'Saio linbikoak'

Musikak, literaturak eta emozioak bat egingo dute, Estankonarekin.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE Goikobaluren elkartasun kontzertua

Harreman GKErekin elkarlanean.
Parrokian, 20:00etan.

OÑATI 'Supituki' ikuskizuna

Irazan taldekoekin. Debalde.
Gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI Binakako pilota txapelketako kanporaketa

Profesional mailako pilotarien arteko norgehiagoka: Elezkano-Rezusta bikotea, Bengoetxea-Laruben bikotearen kontra.
Kiroldegian, 22:00etan.

ZAPATUA 16

OÑATI 'Taupadak' azoka

Elkar Heziren urteko azoka.
Foruen plazan, 09:00etan.

ESKORIATZA Borroka arteak eta borroka kirolak

Lau orduko ikastaroa egiten den bitartean, SOS Refugiados taldearentzako janaria jasoko da.
Pilotalekuan, 10:00etan.

ARETXABALETA Neguko Azoka

Hirugarrenez egingo dute: 10:30-14:30 eta 17:00-20:30.
Herriko Plazan, aipatutako orduetan.

OÑATI Jostailu truke azoka

Txalokaren eskutik.
Aipatutako lekuan, 11:00etan.

ARETXABALETA Bideo jokoak diseinatzeko ikastaroa

Jon Sanchez aretxabaletarrekin.
Arkupen, 11:30ean.

ARETXABALETA 'Iraungorriko Marimiri' antzezlan

Itzal-titereak Zurrunka txotxongilo taldearekin, 4 urtetik gorakoendako.
Arkupen, 11:30ean.

ARRASATE Txorbela Otxotearen emanaldia

Musika sakroa oinarri duen kontzertua egingo dute.
San Frantzisko elizan, 13:00etan.

OÑATI '10 urte' ikuskizuna

Tomax pailazoaren abenturak, Urgain-Errekaldeko guraso elkarteak gonbidatuta. Sarrerak, lau euro.
Zuazola institutuan, 16:30ean eta 18:30ean.

ARRASATE 'Go!azen' antzezlan

Basakabiko udalekuetako kideen abenturak. Sarrerak agortuta daude.
Amaia antzokian, 17:00etan.



GANBARA

OÑATI Hots abesbatza eta Raquel Ortega

Izar ederra izeneko ikuskizuna egingo dute, biek ala biek. Ganbara Abesbatzaren oinarritik sortutako emakumeen abesbatzak Raquel Ortega harpa-jolearen laguntza izango du.
Bihar, zapatua, beneditarren kaperan, 19:00etan.

ESKORIATZA Arte tailerra familian

Haurrekin artearen inguruan gozatzeko helburuarekin.
Kultura etxean, 17:30ean.

ARRASATE Txerri dantza ikastaroa

Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Alivi' talde jolasa

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Ping-pong txapelketa

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

OÑATI Gabon kantak

Jose de Azpiazu musika eskolako txistulari eta akordeoi ikasleekin.
Udaletxeko arkupeetan, 18:30ean.

ARAMAIO 'Irripartxou' antzerkia

Txirritola taldekoekin.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Guillotina eta Control De Plagas taldeak

Langabeen eta ikasleen sarrerak hiru euro. Besteak, bost euro.
Gaztetxean, 19:00etan.

OÑATI Hor Konpon eta Joseba Tapia, zuzenean

Oñatiarrak Tapiaren teloneroak izango dira. Sarrerak, zortzi euro.
Gaztelekuan, 22:30ean.

DOMEKA 17

OÑATI Mendi irteera

Azpeitia-Erlo-Xoxote-Kakuta-Azpeitia ibilaldia egingo dute Aloña Mendirekin.
Postetxean, 08:00etan.

ESKORIATZA Mendi irteera familian

Orixol mendira joango dira San Kristobaldik.
Huheziko aparkalekuan, 09:30ean.

OÑATI Ziklo-kros lasterketa

Arrikruz taldeko sei ziklista lehiatuko dira maila ezberdinetan.
Urrutxun, 09:30ean.

ARETXABALETA Neguko Azoka

Hirugarrenez egingo dute: 10:30-14:30 eta 17:00-20:30.
Herriko Plazan, aipatutako orduetan.

OÑATI 'Errota martxan, labea bero-bero' egitasmoa

San Migel errota martxan ipini eta ogia egingo dute.
Aipatutako lekuan, 10:00etan.

OÑATI Herriko artisauen azoka

Kosmetika naturala, jostailuak, euskal zeramika, bitxigintza, arropak...
Foruen plazan, 10:30ean.

BERGARA Domeka azoka

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko merkatua.
Seminarioko karpan, 11:00etan.

BERGARA Erraldoien**aurkezpena**

Guti eta Felixin gomazko panpinen aurkezpena egingo dute.
Udaletxean, 12:00etan.

OÑATI Berezaoko jaiak

Santa Lutziazen omenezko meza egingo dute. Ostean, luntxa.
Ermitan, 12:00etan.

ARAMAIO Gabonetako**kontzertua**

Bizente Goikoetxea abesbatzaren emanaldia.
Parrokian, 12:30ean.

OÑATI 'Go!azen 4.0' antzerkia

Basakabiko udalekuetako kideen abenturak, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak, hiru euro.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ESKORIATZA Ping-pong**txapelketa**

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARETXABALETA Akziozko**pelikula**

Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Bingo jokoa

Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:30ean.

ESKORIATZA 'Mami Lebrun'**antzezlan**

Pertsona baten heriotzari buruz gogoeta egiten du Kepa Errasti aretxabaletarrak. Sarrerak, lau euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertu berezia

Udal musika bandak, Oñati, Ganbara, Hots eta Ganbara Txiki abesbatzek eta parrokiako koruak parte hartuko dute.
Parrokian, 19:00etan.

ASTELEHENA 18

ARETXABALETA 'Sugedorriak' antzezlan

Karmele Igartua sorkuntza bekaren 2016ko irabazle Alaitz Olaizolak idatzitako lana antzeztuko dute

Kurtzebarri eskolako bosgarren mailako ikasleek.
Arkupen, 18:00etan.

ESKORIATZA **Paketeak egin eta opariak biltzeko teknikak** Ikastaroan parte hartzeko aurrez eman behar da izena 943-71 46 88 telefonoan. Izen-ematea, bost euro.
Kultura etxean, 18:30ean.

OÑATI **Literatura solasaldia** Uxue Alberdiren *Janisjoplin* liburua hartuko dute hizpide. Egilea ere egongo da solasaldian.
Gaztetxean, 18:30ean.

ARRASATE **'Santa Familia' komikiaren gaineko solasaldia** Julen Ribasek eta Eider Rodriguezek egingo dute berba, Igor Leturiak gidatutako solasaldian.
Kulturaten, 19:00etan.

MARTITZENA 19

OÑATI **Itzalezko txotxongiloak** 4 eta 6 urte bitarteko haurrendako.
Haur liburutegian, 17:30ean.

ARETXABALETA **'Sugegorriak' antzezlan**a Karmele Igartua sorkuntza bekako lana.
Arkupen, 18:00etan.

ARAMAIO **'Burmuin abdominala, gure bigarren burmuina'** Hitzaldia.
Kultura etxean, 18:30ean.

ANTZUOLA **Gabonetako kontzertua** Musika eskolako ikasleak.
Torresoroan, 19:00etan.

BERGARA **Parisko aldarrikapenei buruzkoak** Abenduaren 9an egindako manifestazioari buruz egingo dute berba.
Irizarren, 19:00etan.

EGUAZTENA 20

BERGARA **Azoka** Bertako baserritarren produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 15:00etan.

ESKORIATZA **Olentzerori eskutitza** Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARETXABALETA **'Sugegorriak' antzezlan**a Karmele Igartua sorkuntza bekako lana.
Arkupen, 18:00etan.

ELGETA **Ipuin kontalari boluntarioen batzarra** Balorazioa egin eta aurrera begirakoak landuko dituzte.
Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI **Helduendako ipuin kontaketa** *En la boca del lobo* delako saioa Cecilia Paganinirekin.
Liburutegian, 19:00etan.

ARETXABALETA **Kpiqa-Collective eta InPut taldeak** Jaiki elkartearen eskutik dantza erakustaldia.
Herriko Plazan, 19:00etan.

EGUENA 21

ANTZUOLA **San Tomas feria** Txokolate-jana eta txistor-pintxoak izango dira.
Eskolako patioan, 16:00etan.

ARETXABALETA **San Tomas eguna Basotxon** Txistor-pintxoak eta Gabonetako opariak.
Aipatutako lekuan, 17:00etan.

ANTZUOLA **Txistor-jana Landatxopen** Karta txapelketako sariak ere banatuko dituzte.
Aipatutako lekuan, 18:00etan.

BERGARA **Postalen lehiaketako sari banaketa** Gure Ametsa elkartean.
Aipatutako lekuan, 19:00etan.

ARRASATE **Santamasetako bertso jaialdia** Sustrai Colina, Jone Uria, Aitor Mendiluze, Oihana Iguaran, Jon Maia eta Miren Artetxe bertsotan, AEDk gonbidatuta.
Amaia antzokian, 20:00etan.

ZINEMA

ARRASATE	EIBAR
AMAIA ANTZOKIA	COLISEO
Asesinato en el Orient Express Domeka: 19:30. Astelehena: 20:30. Deep Domeka: 17:00.	La libreria Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30. El sentindo de un final Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30. ANTZOKIA Star Wars Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30. Domeka: 17:00, 20:00. Astelehena: 20:30.
BERGARA	
ZABALOTEGI	
Operacion Concha Domeka: 19:30. Nur eta herensugearen tenplua Domeka: 17:00.	
OÑATI	
KULTURA ETXEA	
Asesinato en el Orient Express Egubakoitza eta zapatua: 22:30. Domeka: 10:30, 22:30. Astelehena: 19:30. Coco Zapatua eta domeka: 17:00.	
ARETXABALETA	
ARKUPE	
Oro Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30. Spark Zapatua eta domeka: 17:00.	
	GASTEIZ
	BOULEVARD
	Star wars Egubakoitza eta zapatua: 18:00, 21:00, 23:00. Domekatik eguenera: 18:00. Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00. Star wars 3D Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:30. Egubakoitza eta zapatua: 23:30.

Se armo el belen Egubakoitzetik eguenera: 16:40, 18:40. Perfectos desconocidos Egubakoitza eta zapatua: 23:30. Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 17:15, 18:20, 19:20, 20:25, 21:25, 22:30. Coco Egubakoitzetik eguaztenara: 15:50, 18:15, 20:35. Eguena: 15:50, 18:15. Egubakoitzetik eguenera: 16:50, 19:15. Asesinato en el Orient Express Egubakoitzetik eguenera: 15:45, 18:05, 20:25, 22:45. Wonder Egunero, martitzenean izan ezik: 15:45, 18:05, 20:25. Martitzena, jatorrizko bertsioan: 20:25. Suburbicon Egunero, martitzenean izan ezik: 21:30, 23:40. Martitzena, jatorrizko bertsioan: 21:30.	Dos padres por desigual Egubakoitzetik eguenera: 20:40. El gran desmadre Egubakoitzetik eguenera: 22:50. Feliz día de tu madre Egubakoitzetik eguenera: 22:45. Paddington Egubakoitzetik eguenera: 16:45. La liga de la justicia Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:15. Tadeo Jones 2 Egubakoitzetik eguenera: 16:10. GORBEIA Paddington Egubakoitzetik domekara: 16:20. La herida Egubakoitzetik domekara: 18:25, 20:20, 22:25. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00. Se armo el belen Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:25, 20:20. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00.
--	---

El autor Egubakoitzetik eguenera: 22:00. Star wars Egubakoitzetik domekara: 16:30, 17:30, 19:25, 20:30, 22:20. Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:30, 20:15, 21:30. Coco Zapatua eta domeka: 11:30. Egubakoitzetik domekara: 16:20, 17:30, 18:50, 20:00, 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00. Tadeo Jones 2 Zapatua eta domeka: 11:45. Dos padres por desigual Egubakoitzetik domekara: 16:20. Astelehenetik eguenera: 17:00. El gran desmadre Egubakoitzetik domekara: 21:30. Astelehenetik eguaztenara: 22:00. El día mas corto Eguena: 17:30, 20:00, 22:30.	Deep Astelehenetik eguenera: 17:00. La liga de la justicia Egubakoitzetik domekara: 21:20. Astelehenetik eguenera: 19:30, 22:00. Perfectos desconocidos Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00. Wonder Zapatua eta domeka: 12:00. Egubakoitzetik domekara: 18:15, 20:30, 22:40. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00. Asesinato en Orient Express Egubakoitzetik domekara: 18:10, 20:30, 22:45. Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00. My little pony Zapatua eta domeka: 12:00, 16:20. Thor: Rangarok Zapatua eta domeka: 11:45.
---	---

KRITIKA

Asesinato en el Orient Express ★★☆☆☆
Zuz.: Kenneth Branagh. **Herr.:** AEB (2017). **Aktoreak:** Keneth Branagh, Michelle Pfeiffer, Jonhny Depp.

Ezaguna, baina dibertigarria

ANTONIO ZABALA
Kenneth Branagh ez da kikitzen Britainia Handiko idazle ospetsuen lanak zinemara egokitzerakoan. Literatura klasikoa ezagutzen du eta ondo daki horiei ikusgarritasun puntu aproposa aurkitzen. Argi dauka zinema kultura izateaz gain, entretenimendua ere badela. Hori horrela, askotan, bere lanek badute erotasun puntu bat, baina pasa gabe. Klasikoen funtsa mantentzea lortzen du, eta, aldi berean, dibertigarria izatea. Shakespeareren *Enrique V*, *Hamlet*, *Mucho ruido y pocas*

nueces eta *Tiempos de amor perdidos* –musikal bihurtuta– zuzendu ditu. Baita Mary Shellyren *Frankenstein*. Orain suspentse eeberrien erregina Agatha Christieren unibertsoa hurbildu da. Bazegoen 1974an Sidney Lumet-ek zuzendutako *Asesinato en el Orient Express*-eko bertsioa. Hortaz, pentsa genezake ez duela zentzu handirik beste bertsio berri bat egitea. Liburua irakurri duenak edo filmaren lehen bertsioa ikusi duenak badaki zer gertatu behar

den eta zein den hiltzailea. Horrek asko mugatzen du interesa. Hitchcocken filmak behin eta berriz ikus daitezke suspense tramaren azpitik gauza asko daudelako, baino halako kasuetan ez da gauza berbera gertatzen. Dena den, Branaghек garrantzia ematen dio Hercules Poiroten pertsonaiari eta duen dilema moralari. Gainera, pertsonaiei eta filmari ematen dien ukitu dibertigarriak eta ikusgarriak lan atsegina egiteko balioko dio.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Durangotik bueltan

Urtero joaten naiz, zale itsua izan ez banaiz ere. Aje ezberdinak aurkitu izan dizkiot: prehistorian, ospelak sortzeko aproposak ziren eliz-atari izoztua eta azoka apenas epelagoa; geroago, mazedonia bezain nahasia zen eskaintza, soilik salmentara bideratua; elektronika garatu aurretik, diruz edo txekez ordaindu beharra... Duela hamar bat urte, kezka ere sentitu nuen euskal izenaren pean gaztelaniazko argitalpen gero eta gehiago sartzen zigutelako –gogoratzen mojen gozokiak errezetak?–.

Azken urteotan, aldiz, pozik bueltatzen naiz Durangotik. Tokiak ez du aitzakiarik; eskaintza gero eta antolatuagoa dago, bai azokaren gune ezberdinetan, eta baita stand bakoitzean ere; salmentaz gain, aukera mordoa eskaintzen du azokak informaziorako eta harremanetarako; oraindik diru asko dabil, baina elektronika ere erabil daiteke... Baina beste zerbaitek eragiten dit poza: euskara eta euskal edukiak nagusi dira berriro azokan, naturaltasunez berreskuratu da euskararen hegemonia, hiztun komunitatearen topagune ederra bihurtu da berriro urtean behingo hitzordua.

Behar ditugu halako guneak, indarrak berritzeko.

BUKATZEKO



Bideo bat landu dute kanpaina ezagutzera emateko; euskal kulturaren bueltako zenbait pertsonak esku hartu dute. EVA FRANCO

Hiesa duten emakumeen egoera irauli guran

Hiesa duten Indiako emakumeen bizi kalitatea hobetzeko jardunean diharduten egitasmoak sostengatu guran, 'crowdfunding' kanpaina jarri dute martxan. Bertako emakumeen ahalduntzea ere landu gura dute bultzatzaileek

Iker Oñate DEBAGOIENA

Hiesa duten Indiako emakumeek bazterketa dute eguneroko errutina. Bada, horien sufrimendua leuntzeko lanean dabilta Mondragon Unibertsitateko zenbait ikasle; Calcuta Ondoan GGKE-rekin dihardute elkarlanean. "Hiesa heriotza sozial bilakatzen da Indiako emakumeentzat, baztertu egiten dituzte", azaldu du

Eneritz Arizmendiarririk, *Vidasenpositivo* kanpainaren bultzatzaileetako batek. Indian hiesa dutenen artean %40 dira emakumeak.

Arazoaren tamainaz jabeturik, hainbat ekimen jarri dituzte martxan bultzatzaileek. Horien artean da *crowdfunding* kanpaina. "Norberak ahal eta gura duen ekarpen ekonomikoa egin

diezaioke egitasmoari", argitu du Arizmendiarririk. www.goteo.cc/vidasenpositivo webgunean dago horretarako aukera.

Gainera, ekarpen ekonomikoa egiteak izango du oparirik: ahal duntze txartela. "Barruan hazi bat daroan kotoizko txartela jasoko da trukean. Emakumeon ahalduntzeari lotutako mezu bat idatzi, eta landatzeko aukera

eskaintzen du txartelak. Ahal duntze landarea haziko da ostean", dio Arizmendiarririk. Ez da edozelan aukeraturiko oparia, beraz.


Horrez gain, argazki kanpaina ere abiatu dute. Hori horrela, *#Vidasenpositivo* dioen kartela esku artean duten herriarrien irudiak bildu gura dituzte; sare sozialen –Facebook eta Instagram– bitartez hedatu dute egitasmoa. Finean, ekinbidea sostengatzeko beste modu bat litzateke hori.

Emakumeen ahalduntzea

Proiektu orok izan ohi du lortu gura bat; kasua ez da salbuespen. Besteak beste, Calcuta Ondoan GGKEren jarduna finantzatzeko lagundu gura dute bultzatzaileek. Askotarikoak dira erakundeak Indian dituen zereginak: "Euren jarduna ez da hiesa duten horiei egunerokotasuneko kontuekin laguntzera mugatzen –umeak zaindu edo hezkuntza baliabideak eskaini, esaterako–. Horrez gain, Indiako emakumeen ahalduntzea lantzen ere badihardute". Azaldu dutenez, Indian "sekulako alde" dago gizonen eta emakumeen artean, "alor sozialean eta ekonomikoan, batez ere".

Finantzazioa bukatzeke

Gaur-gaurkoz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sostengu ekonomikoarekin dihardu GGKEren jardunak; baina, amaitzen doa finantziarioa. "Urteka ematen dituzte diru laguntzak. Ez genuke gura finantzazioa bukatzean, erakundeak bere jarduna eten beharra izatea. Hori ekiditeko bidea da bestelako bitartekoak erabiliz dirua lortzen saiatzea", dio Arizmendiarririk.



%30
deskon-
tua

**EGUZKITAKO
BETAURREKOEN
bilduma BERRI
GUZTIETAN**

www.multioplicasgipuzkoa.com

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezango da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan